

Erretrobirus endogenoen detekzioa eta karakterizazioa behietan eta beste hainbat mamaliotan

Egilea: **KOLDO GARCIA ETXEBARRIA**

Urtea: **2010**

Zuzendariak: **BEGO JUGO ORRANTIA**

Unibertsitatea: **UPV/EHU**

ISBN: **978-84-8438-587-5**

Hitzaurrea

Euskara ama-hizkuntza dut. Ikasketak (Arizko Ikastola, Urbi Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea) euskaraz egin nituen, karrera eta doktoradutz-programa euskara hutsean egiteko aukera izan ez banuen ere. Genetikako laborategian sartu nintzenean lan-taldearen lan-hizkuntza euskara zen. Gauzarik naturalena eta normalena tesi euskaraz egitea zen eta bai ikertzeko nahikotasuna eta tesi euskaraz idatzi eta defendatu nituen. Beste edozein hizkuntz normal bat bezala.

Tesiaren erronka hirukoitza zen: genoma-osoko ikuspegia landu kasu handirik egiten ez zaien osagai genetikoei buruz, soilik lanabes bionformatikoak erabilita egin eta euskaraz idatzi eta defendatu. Erronkak baina ez zaitasunak, horiek beste leku batzuetatik eterri ziren. Tesi hiru arlo horietan berritzalea zenez dena egiteke zegoen eta erronka horiei gogotsu ekin nien. Gustora egiten den lana. Euskararen arloan hitzak asmatu behar izan genituen, *query* itzultzeko amu-sekuentzia erabiltzea nire gogokoena izan zen. Tesiaren hasieran euskara – ingelesa – gaztelera hiztegitxo bat aurkituko duzu horiek biltzen dituenak.

Tesiaren helburua zientifikoa bazen ere, euskaraz egin izanak hizkuntzarekiko erantzunkizun eta konpromezu bat ekarri zuen. Bilatuta izan ez bazen ere hizkuntza hauspotu, indartu eta zabaldu zen; eta euskara ere goi-mailako hizkuntza dela, berriro ere, frogatu. Bai, euskaraz gai abstraktuetaz eta orain arte ez jakindakoetaz aritu gaitezke beste edozein hizkuntzetan bezala. Ezagumendu berria euskaraz sortu daiteke, mugarik gabe. Mugatu gabe. Konplexurik gabe.

Eskuetan duzun tesi hau ez da bakarrik euskararen hauspotze, indartze eta zabaltzeari egindako ekarpen bat. Ezta beranduago Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak Zientzia esperimental arloan II. Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Sariarekin ohoratutako tesi bat. Ezta ere euskara teknikoarentzat ondare soila. Baita ere tesi hau gurasoei eta arbasoei omenaldia eta esker ona da, euskara gaur egun arte transmititzeagatik eta oparitzeagatik.

Basaurin, 2016ko apirilaren 27an.

Koldo Garcia



Erretrobirus endogenoen detekzioa eta karakterizazioa behiatan eta beste hainbat mamaliotan

Koldo Garcia Etxebarria
2010

Euskal Herriko Unibertsitateko Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animali Fisiologia Sailean egindako tesi hau, UPV/EHUk emandako EHU06/107 proiektuarekin, UPV/EHU eta enpresa arteko kontratuarekin eta UPV/EHUk emandako GIU07/62 diru-laguntzarekin finantzatu da.

Egileak 2006 urtean UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzako Euskarazko tesia sustatzeko beka eta 2006-2009 urteen bitartean UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzako Euskarazko tesia sustatzeko diru-laguntza jaso ditu.

Atxitxe eta Amamari
(Luis Etxebarria eta Aurelia Garmendiari)
Gure bihotzeten harro zaudetelako

A Amama Dámasa
(Dámasa García)
por llegar a vivirlo

“Eskerrik asko bizitzari, horrenbeste eman didanak
irria eman dit eta negarra eman dit.”
(Violeta Parra)

Bere buruaz beste zuen pertsona batek hitz eder hauek idatzi izanak betidanik deigarria egin zait. Eta egon daitekeen kontraesanik handiena. Bainazken finean bizitza hori da, kontraesanez betetako bide zoragarri bat. Eta eskerrak ematerakoan tesia izan den etapa honetan lagundu nautenei, bizitzan lagundu nautenei eta, azken finean, bizitzari eskerrak eman behar dizkiet. Bizitza eta lana banatzeak zentzurik ez daukalako, garenak gure bizitzako esparru guztiak bustitzen dituelako. Bide honetan, ezer ulertu gabe bazen ere, pausu bakoitzean arduratu direnei. Asko zarete abentura hau nola zihoa galduen didazuenak eta bidaia atseginagoa egiten saiatu zaretenak. Ez daukat hitzik eman didazuen adore guztia eskertzeko. Badakit jendea ahaztu egingo zaidala, hala ere...

Lehenik eta behin Begori eman behar dizkio. Zure konfiantzarik gabe guzti hau ezinezkoa izango baitzen. Nigan sinistu zenuen inork egiten ez zuen lan modu bat aurrera eramateko. Asko pasa dugu, lan asko eta txukuna egin dugu, asko ikasi dut eta, gainera, bakoitzaren bizitza aldatu da, eta nola gainera! Bainaz beti gauza arraroak egiten dituzten horiek izango gara.

MHC-koak direnei edo MHC-tik pasa direnei. Bereziki Amaiari, hasieratik batera egon gara eta urte hauetan denetarik pasa eta partekatu dugu: lan eremua, ordenagailuak, kongresuak, kafeak, zurrumurruak, lanak, oroigarriak, azken orduko papeleo eta posterrak, etxeetara bisitak... eskerrik asko momentu guztiengatik. Maialeni, ez gara bakarrik laborategian batera egon, azken bi urteetan ingelesean ere, gaindosiarekin bukatuko duzu, eta gainera tesi honek duen lan esperimental bakarra zuk egin duzu, meritu handia daukazu. Ibairi, zure onddoen zuhaitz filogenetikoekin baso bat landatu (edo suntsitu) badaiteke ere, zurekin lan egiterakoan asko ikasi dut, baina, batez ere, oso atseginak izan dira zurekin partekatutako tarte guztiak. Iñakiri, bakarrik *frango churrasco*agatik eskerrak merezi dituzu, baina zure sugandilek (eta eman didaten lanek) ere aipamena merezi dute eta, nola ez, pasatutako abentura guztiak, Donostian galdua barne. Eta urte hauetan MHCtik pasa diren gainontzekoei. Beti MHC izango gara eta Rupert gure profeta.

Ezin naiteke ahaztu *laboko* gainontzeko jendeaz. Eskerrik asko ni bezalako arraro baten lana pixka bat ezberdina dela ulertzeagatik eta barkatu sortutako arazoak, gaizki-ulertuak eta emandako *txarleta* ulergaitz horiek. Eta ordenagailuei buruz zeozer galduen didatenei, nigan konfiantza hori edukitzea eskertzen dizuet. Bereziki Iratxeri, ez bakarrik egin dizkidazun milaka galderengatik, batez ere Bartzelonan primeran pasa genuelako, eta, gogoratu, ez hartu ezer lurretik. Eta baita kafetik pasa den zerrenda bukaezin horri ere eskerrak eman behar dizkio, orduak eta orduak pasa baititugu gure kontuak partekatzen. Eta Antroko jendeari, Montseri eta Ikerri, hitz egiten pasa ditugun orduengatik. Guztiotzat bizkotxoa!

Tesi hau aurrera eramatea posible egin duten beste gauza batzuk ere badaude. Derrigorrez abusatu dudan ordenagailu guztiei eskerrak eman behar dizkiet, euren sufrimendu gaitasunagatik ez balitz ez nituzke orri hauek beteko. Bereziki *Sagartxuri*, nire *Macari*. Eta *Forfri*, nire kotxea, urte hauetan egindako zerbitzu ikaragarriagatik, ez bakarrik niri, baita hemen agertzen den jende askori ere. Eta lan guztia, bidaia eta idatzeta lagundu duten soinu-bandaren partaideei. Eskerrik asko Amparo Sanchez-i “Seguiré caminando”-gatik, Quique González-i “Ajuste de cuentas”-gatik, Lichis-i “Ni jaulas, ni peceras”-gatik, Wilco-ri “Kicking Television”-gatik eta Jack Johnson-i “En concert”-gatik, bizitza zuzenean soinu hobia duelako. Coen Anaiei eta Pixarrekoie euren filmeengatik.

Euren sorbaldetan bidaitu dudan erraldoi guztiei.

Egunero ez egonda ere arduratu diren guztiei: Juanjo eta Nieves; Karol eta Beni; Euskarabilako jendea; Euskal blogosferakoak eta gainontzeko ziberrak.

Aitorri eta Bergoiri, urte hauetan egindako baziariak, bidalitako mezuak eta emailak eta bisitak eskertzen dizkizuet, karrerako momentu onenak gogoratz, baziarien egindako telefono deiak boikotatuz eta kamisetak prestatuz.

Leireri, lankide izatetik laguna izatera pasa zarelako. Urte hauetan pazientzia handia izan duzu nirekin eta nire izaerarekin, gure kafe amaigabe horietan. Badakit askotan txantxekin pasa naizela, baina badakizu zu bezalako gotika zapuztu bati adarra jotzea gustuko dudala eta beti intentzio

onekin izan dela. Eta baita zure etxeko eta bizitzako ateak zabaltzeagatik (eta hedapenez, Ikerri eta Neguri). Evari, printzesari, zuri ere gauza berberagatik, Leireren biziota lotsa gabe asaltatu dugu eta oraindik ez dut ulertzen nola ez gaituen pikutara bidali. Eskerrik asko biei bazkariengatik, galdeztzeagatik, hor egoteagatik. Ez dakit zer egingo duzuen ni gabe. Eta Arantzari, Leireren etxea okupatzen dugunetan, ez dezatela zure irria itzali.

Senitartekoei. Ez duzue ezer ulertuko baina harro zaudete. Hori asko da. Beti galdeztzen, beti arduratuta, beti presioa kentzen saiatzen. Eskerrik asko Gabonak mantentzeagatik. Eskerrik asko Amama Dámasa, Tía Isabel, Tío Agustín, Ana, Aitor, Uxue (familiako fitxaketa berria), Gabi, Maider; Izeko Bego, Osaba Elías, Amagoia, Osabita, Izeko Edurne, Unai; eta Eneritzi, eskerrik asko danagatik, eta barkatu jostailuak jaso ez izana, zeu baino beranduagoa Doktore izango naiz, baina zeu beti *doktora muñē* izango zara eta ni *doktor txilin*.

Maiderri. Bide honetan ezinbesteko euskarria izan zara. Beti laguntzeko, entzuteko, jasateko prest egon zara. Eskerrik asko inork ulertzen ez zuena ulertzeagatik, inork ulertzen ez dituen elkarritzetak edukitzteagatik eta, batez ere, nire Laguna izateagatik. *Llu non.*

Aitari eta Amari.

Eskerrik asko 1982ko Otsail horretan salto ez egiteagatik eta ahal izan zenuten guztia egiteagatik. Eta ordutik egindako guztia. Zuen urrezko haurrak tesi hau idatzi dizue.

Eskerrik asko, bihotzez.

“*Hau da niretzat nabi nuen bizitza,
baina ez da niretzat nabi zenuen bizitza.*”
(Quique González)

Koldo

*“Gracias a la vida que me ha dado tanto
me ha dado la risa y me ha dado el llanto”.*
(Violeta Parra)

Siempre me ha parecido llamativo que una persona que se suicidó escribiese estas palabras tan bellas. Y la mayor contradicción que puede haber. Pero al final la vida es eso, un camino maravilloso lleno de contradicciones. Y al dar las gracias se los tengo que dar a los que me han ayudado en esta etapa que ha sido la tesis, a los que me han ayudado en la vida y, a la postre, a la vida. Porque separar vida y trabajo no tiene sentido, lo que somos empapa todos los ámbitos de nuestra vida. A los que en este camino, aunque no entendiesen nada, a cada paso se han preocupado. Sois muchos los que me habéis preguntado cómo iba esta aventura y los que habéis intentado hacerme este viaje más agradable. No tengo palabras para agradecerlos todo el aliento que me habéis dado. Sé que se me olvidará gente, sin embargo,...

En primer lugar tengo que agradecérselo a Bego. Ya que sin tu confianza todo esto no hubiese sido posible. Creíste en mí para sacar una forma de trabajo que no hacía nadie. Hemos pasado muchas cosas, hemos hecho mucho trabajo y bien hecho, he aprendido mucho y, no solo eso sino que, la vida de cada uno ha cambiado, y ¡cómo además! Pero siempre seremos esos que hacen cosas raras.

A los que son de MHC o los que han pasado por MHC. Especialmente a Amaia, hemos estado juntos desde el principio y en estos años hemos pasado y compartido de todo: zona de trabajo, ordenadores, congresos, cafés, cotilleos, trabajos, recuerdos, papeleos y pósteres de último momento, visitas a domicilio,... muchas gracias por todos los momentos. A Maialen, que no solo hemos estado juntos en el laboratorio, sino también los dos últimos años en inglés, terminarás con sobredosis, y además el único trabajo experimental que tiene esta tesis la has hecho tú, tienen un gran mérito. A Ibai, aunque con los árboles filogenéticos de tus hongos se puede plantar un bosque (o destruirlo), he aprendido mucho trabajando contigo, pero sobre todo, todos los momentos que he compartido contigo han sido muy agradables. A Iñaki, solo ya por el *frango churrasco* mereces las gracias, pero también merecen ser mencionadas tus lagartijas (y el trabajo que me han dado) y, como no, todas las aventuras que hemos pasado, incluido estar perdido en Donostia. Y al resto que ha pasado por MHC. Siempre seremos MHC y Rupert nuestro profeta.

No me puedo olvidar del resto de la gente del *labo*. Gracias por entender que el trabajo de un raro como yo es distinto y os pido perdón por los problemas ocasionados, los malentendidos y las *txarletas* incomprensibles que he dado. Y a los que me habéis preguntado algo sobre ordenadores, os agradezco esa confianza que depositasteis en mí. Especialmente a Iratxe, no solo por las miles de preguntas que me has hecho, sobre todo porque lo pasamos estupendamente en Barcelona, y, recuerda, no cojas nada del suelo. También tengo que darles las gracias a esa lista interminable de personas que han pasado por los cafés, ya que hemos pasado horas y horas compartiendo nuestras cosas. Y a la gente de Antro por las horas que hemos pasado hablando. ¡Para todos bizcocho!

También hay otro tipos de cosas que han hecho posible hacer esta tesis. A la fuerza tengo que dar las gracias a todos los ordenadores de los que abusé, si no fuese por su capacidad de sufrimiento no hubiese llenado estas páginas. Especialmente a *Sagartxu*, mi *Mac*. Y a *Forfi*, mi coche, por el increíble servicio prestado estos años, no solo a mí, sino también a un montón de gente que aparece aquí. A los participantes de la banda sonora que han acompañado todo el trabajo, los viajes y la escritura. Gracias a Amparo Sanchez por “Seguiré caminando”, a Quique González por “Ajuste de cuentas”, a Lichis por “Ni jaulas, ni peceras”, a Wilco por “Kicking Television” y a Jack Johnson por “En concert”, la vida en directo suena mucho mejor. A los Hermanos Coen y a los de Pixar por sus películas.

A todos los gigantes en cuyos hombros he viajado.

A los que, aunque no han estado día a día, los que se han preocupado: Juanjo y Nieves; Karol y Beni; la gente de Euskarabila; los de la blogosfera vasca y demás cibers.

A Aitor y Bergoi, os agradezco las comidas hechas estos años, los mensajes e emails mandados y las visitas, recordando los mejores momentos de la carrera, boicoteando las llamadas hechas en las comidas y preparando camisetas.

A Leire, porque has pasado de ser una compañera a una amiga. Estos años has tenido una gran paciencia conmigo y con mi forma de ser, en esos nuestros cafés interminables. Sé que muchas veces me he pasado con las bromas pero sabes que me encanta tomar el pelo a una gótica frustrada como tú y que siempre lo he hecho con buena intención. Y también por abrirme las puertas de tu casa y de tu vida (y por extensión, a Iker y Negu). A Eva, printzeska, a ti también por lo mismo, hemos asaltado la vida de Leire sin vergüenza alguna y aún no entiendo cómo no nos ha mandado a freír espárragos. Gracias a las dos por las comidas, por preguntar, por estar ahí. No sé que haréis sin mí. Y a Arantza, por cuando okupamos la casa de Leire, que no apaguen tu sonrisa.

A la familia. No entenderéis nada pero estáis orgullosos. Eso es mucho. Siempre preguntado, siempre preocupados, siempre intentando quitar presión. Gracias por mantener las Navidades. Gracias a Amama Dámasa, Tía Isabel, Tío Agustín, Ana, Aitor, Uxue (familiako fitxaketa berria), Gabi, Maider; Izeko Bego, Osaba Elías, Amagoia, Osabita, Izeko Edurne, Unai; y a Eneritz, gracias por todo, y perdona no haber recogido los juguetes, seré Doctor más tarde que tú, pero tú siempre serás *doktora muñe* y yo *doktor txilin*.

A Maider. Has si un soporte imprescindible en este camino. Siempre has estado dispuesta a ayudar, a escuchar, a aguantar. Gracias por entender lo que nadie entiende, por tener esas conversaciones que nadie entiende y, sobre todo, por ser mi Amiga. *Llu nou*.

A Aita y Ama.

Muchas gracias por no haber saltado en aquel febrero de 1982 y por hacer todo lo que podíais Y todo lo hecho desde entonces. Vuestro niño de oro os ha escrito esta tesis.

Muchas gracias, de corazón.

*“Esta es la vida que yo quería para mí,
pero no es la vida que tú querías para mí”*
(Quique González)

Koldo

Aurkibidea

Aurkibidea.....	V
Taulen aurkibidea.....	VII
Irudien aurkibidea.....	IX
Laburdurak.....	XI
Hiztegi laburra.....	XIII
Nomenklatura.....	XIII
Laburpena.....	XV
Summary.....	XVII
Resumen.....	XIX
I.Sarrera.....	
I.1.ERVen egitura.....	3
I.2.ERVen sailkapena eta banaketa.....	5
I.3.ERVen in silico azterketa.....	8
I.4.ERVen dinamika ebolutiboa.....	12
I.5.ERVen adierazpena eta ostalarian duten eragina.....	18
I.6.Aztertutako taxoiak eta espezieak.....	22
I.7.Lanaren planteamendua.....	24
I.8.Bibliografia.....	26
II.Genome-wide detection and characterization of endogenous retroviruses in Bos taurus.....	31
II.1.Abstract	33
II.2.Introduction	33
II.3.Materials and methods.....	34
II.4.Results	36
II.5.Discussion.....	44
II.6.References.....	46
II.7.Appendix.....	48
III.Zaldiaren erretroirus endogenoen (ERV) detekzioa eta sailkapena.....	51
III.1.Sarrera.....	53
III.2.Material eta metodoak.....	54
III.3.Emaitzak.....	56
III.4.Eztabaidea.....	63
III.5.Bibliografia.....	65
III.6.Eranskina.....	68
IV.Mamalioen erretroirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa.....	73
IV.1.Sarrera.....	75
IV.2.Material eta metodoak.....	76
IV.3.Emaitzak.....	79
IV.4.Eztabaidea.....	102
IV.5.Bibliografia.....	106
IV.6.Eranskina.....	109
V.Genes around bovine endogenous retroviruses (BoERVs) are related to host defense and histone functions.....	133
V.1.Introduction.....	135
V.2.Materials and methods.....	136
V.3.Results.....	137
V.4.Discussion.....	142
V.5.References.....	146
V.6.Appendix.....	148
VI.Behiaren erretroirus endogenoen (BoERV) adierazpena behiaren (Bos taurus) EST-etan ..	153
VI.1.Sarrera.....	155
VI.2.Materialak eta metodoak.....	156
VI.3.Emaitzak.....	157
VI.4.Eztabaidea.....	162
VI.5.Bibliografia.....	165
VI.6.Eranskina.....	167
VII.Eztabaidea orokorra.....	173
Bibliografia.....	180
VIII.Ondorioak.....	183

Taulen aurkibidea

I-1. taula: ERVen in silico bilaketak egindako genomak.	10
I-2. taula: HERV familien kopia-kopuruaren emendioaren mekanismo nagusiak.	15
I-3. taula: Mikromatriseen bidez egindako ERVen adierazpenari buruzko lanen laburpena.	21
Table II-1: Previously characterized retroviruses from a variety of species used as query.	35
Table II-2: ERV elements detected by each method.	37
Table II-3: Structure of ERV elements detected by each method.	38
Table II-4: Properties of BoERV families characterized in this work.	40
III-1. taula: Bilaketa genomikoa burutzeko erabilitako erretrobirusak, amu-sekuentzian posizioa eta sekuentzien arteko distantzia.	55
III-2. taula: Zaldiaren genoma-bertsio bakoitzean detektatutako elementu-kopuruen arteko ezberdintasuna.	57
III-3. taula: Metodo bakoitzak detektatutako elementuak EquCab2 genoma-bertsioan.	58
III-4. taula: Metodo bakoitzak detektatutako elementuen egitura EquCab2 genomaren bertsioan.	59
III-5. taula: Detektatutako EqERV familiak.	61
III-6. taula: Behiaren eta zaldiaren ERVen detekzioaren konparazioa.	63
IV-1. taula: Aztertutako genomen laburpena.	76
IV-2. taula: Bilaketa genomikoa burutzeko erabilitako erretrobirusak, amu-sekuentzian posizioa eta sekuentzien arteko distantzia.	77
IV-3. taula: Aztertutako ERVen ezaugarriak espezie eta metafamilia bakoitzean.	80
IV-4. taula: Errekonbinazio intergeniko gertaren laburpena, aztertutako filogenia ezberdinaren geneetan.	89
IV-5. taula: ERVen hautespenaren estimazioa aztertutako espezie, metafamilia eta geneetan. Adar guztietan ω berdina (M_0 eredu) izatea eta barneko eta kanpoko adarrek ω ezberdina izatearen artean eredu probableena azterzen duen analisiaren laburpena.	90
IV-6. taula: ERVen errekonbinazio intragenikoaren detekzioa aztertutako espezie, metafamilia eta geneetan.	93
IV-7. taula: ERVen hautespenaren estimazioa aztertutako espezie, metafamilia eta geneetan. ω bakarra egotearen (M_0 eredu) eta 3 ω ezberdin egotearen (M_3 eredu) artean eredu probableena estimatzten duen analisiaren laburpena.	97
IV-8. taula: ERVen hautespenaren estimazioa aztertutako espezie, metafamilia eta geneetan. Eedu ia neutralaren (M_1 eredu) eta hautespen positiboaren (M_2 eredu) artean eredu probableena estimatzten duen analisiaren laburpena.	99
Table V-1: Features of used datasets.	136
Table V-2: Overview of gene and BoERVs associations in each range and BoERV data-set.	137
Table V-3: Features of all genes near BoERVs, in each range and BoERV data-set.	139
Table V-4: Overrepresented Gene Ontology terms in each range and BoERV data-set.	140
Table V-5: Features of BoERVs around genes that are in overrepresented GO terms, in each range and BoERV data-set.	141
Table V-6: Features of genes related with overrepresented GO terms in each range and BoERV data-set.	142
VI-1. taula: Adierazitako diren behiaren BoERVen inguruan dauden gene-kopurua.	161
VI-2. taula: Gene Ontology termino gainerrepresentatuak eta erlazionatutako ERV eta geneak.	162
VII-1. taula: ERV eta genomaren arteko erlazionen laburpena.	178

Irudien aurkibidea

I-1. irudia: Elementu transposakorren sailkapena eta erretroelementuen egitura.	3
I-2. irudia: Erretrobirusen oinarrizko egitura.	3
I-3. irudia: ERVen banaketa hainbat espezietaan.	6
I-4. irudia: LTRdun elementuak detektatzeko LTR_STRUC-ek bilatzen dituen egiturak (McCarthy & McDonald, 2003).	9
I-5. irudia: ERVen bilaketa egiteko Retrotector©-ek erabiltzen dituen motiboak (Sperber et al., 2007)	9
I-6. irudia: ERVen bizi-zikloa.	12
I-7. irudia: Erretrobirusen aurkako defentsa-hesiak.	13
I-8. irudia: KoRVren agerpena koalaren hainbat populaziotan (Tarlinton et al., 2006).	17
I-9. irudia: enJSRVen eta ardiaren historia ebolutiboa. (Arnaud et al., 2008).	17
I-10. irudia: Elementu transposakorrak eta genoma-ingurune elkarrekintzak.	18
Figure II-1: Diagram representing the number of detected elements (circle size) and common elements (overlapping area).	38
Figure II-2: RT region based phylogenetic tree of BoERVs.	39
Figure II-3: Partial aminoacid sequence of the RT region of the representative ERVs from each putative family.	42
Figure II-4: RT region based unrooted phylogenetic tree of ERVs from different species.	43
III-1. irudia: Aztertutako zaldiaren bi genoma-bertsioetan detektatutako elementu-kopurua (zirkuluen tamainarekiko) eta elementu komunak (gainjartzen den azalera) irudikatzen dituen Venn diagrama.	56
III-2. irudia: RT eskualdean oinarritutako EqERV-en zuhaitz filogenetikoa.	60
III-3. irudia: Espezie ezberdinetako ERVen RT eskualdean oinarritutako erroto gabeko zuhaitz filogenetikoa.	62
IV-1. irudia: Aukeratutako gizakiaren ERVen gag+pol+env geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.	81
IV-2. irudia: LTRak detektatu zaien gizakien ERVen 5'LTR, parte zentrala eta 3'LTR zuhaitz filogenetikoak.	82
IV-3. irudia: Aukeratutako txinpantzearen ERVen gag+pol+env geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.	82
IV-4. irudia: Aukeratutako saguaren ERVen gag+pol+env geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.	83
IV-5. irudia: LTRak detektatu zaien saguaren ERVen 5'LTR, parte zentrala eta 3'LTR zuhaitz filogenetikoak.	84
IV-6. irudia: Aukeratutako arratoiaren ERVen gag+pol+env geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.	84
IV-7. irudia: LTRak detektatu zaien arratoiaren ERVen 5'LTR, parte zentrala eta 3'LTR zuhaitz filogenetikoak.	86
IV-8. irudia: Aukeratutako txakurraren ERVen gag+pol+env geneen gene-anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.	87
IV-9. irudia: Aukeratutako behiaren ERVen gag+pol+env geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.	87
IV-10. irudia: LTRak detektatu zaien behien ERVen 5'LTR, parte zentrala eta 3'LTR zuhaitz filogenetikoak.	88
IV-11. irudia: Aukeratutako zaldiaren ERVen gag+pol+env geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.	88
Figure V-1: Insertion orientation of BoERVs in each range and data-set.	137
Figure V-2: Number of associations of BoERVs and genes in each dataset.	138
VI-1. irudia: gag, pol eta env ERVen geneen eta GAPDH genearen adierazpen erlatiboa aurkitutatako ESTak ehun/organoka sailkatuta.	157
VI-2. irudia: gag genearen adierazpen-maila erlatiboa ((ESTak/ehunaren EST kopuru totala)*105) ehun eta familiaka.	158
VI-3. irudia: pol genearen adierazpen maila erlatiboa ((ESTak/ehunaren EST kopuru totala)*105) ehun eta familiaka.	159
VI-4. irudia: env genearen adierazpen maila erlatiboa ((ESTak/ehunaren EST kopuru totala)*105) ehun eta familiaka.	159
VI-5. Irudia: Adierazpena aztertu zaien ERVen familien zuhaitz filogenetikoa.	160
VI-6. irudia: BoERVen txertaketa-norabidea.	161
VII-1. irudia: Tesi-lan horretan egindako analisien adierazpen eskamatikoa.	175
VII-2. irudia: Erretrobirus endogenoei buruzko ikuspegি orokorra.	176

Laburdurak

- BFV (*Bovine foamy virus*): behi apardunen birus.
- BLV (*Bovine leukemia virus*): behien leuzemiaren birus.
- BoERV (*bovine endogenous retrovirus*): behien erretrobirus endogeno.
- CERV (*chimpanzee endogenous retrovirus*): txinپантзеен erretrobirus endogeno.
- EIAV (*Equine Infectious Anemia Virus*): zaldien anemia infektziosoaren birus.
- EqERV (*equine endogenous retrovirus*): zaldien erretrobirus endogeno.
- ERV (*endogenous retrovirus*): erretrobirus endogeno.
- EST (*expressed sequence tag*): adierazitako sekuentzien markatzaile.
- FDR (*false discovery rate*): aurkikuntza faltsuen tasa
- FeLV (*Feline leukemia virus*): felidoen leuzemia birus.
- GALV (*Gibbon Ape leukemia virus*): Giboi tximinoaren leuzemiaren birus.
- GO (*Gene Ontology*): gene-ontologia
- HERV (*human endogenous retrovirus*): gizakien erretrobirus endogeno.
- HIV (*Human immunodeficiency virus*): giza immunoeskasiaren birus.
- HTLV (*Human T cell lymphotropic virus*): giza T zelula linfotrofikoen birus.
- HSRV (*Human spuma retrovirus*): giza spumaretrobirus.
- IGF2 (*Insulin-like growth factor 2*): insulina-antzerako hazkunde-faktore 2.
- IRG (*Immunity related GTPases*): imunitatearekin erlazionatutako GTPasak.
- JSRV (*Jaagsiekte Sheep Retrovirus*): ardién Jaagsiekte retrobirus.
- LTR (*long terminal repeats*): muturreko errepika luzeak.
- Mf: METAFAMILIA.
- MHC (*Major Histocompatibility Complex*).
- ML (*maximum likelihood*): egiantz handien.
- MLV (*Murine leukemia virus*): murinoen leuzemiaren birus.
- MmERV (*Mus musculus endogenous retrovirus*): saguen erretrobirus endogeno.
- MMTV (*Mouse mammary tumor virus*): saguen bular-tumorearen birus.
- MPMV (*Mason-Pfizer Monkey Virus*): Mason-Pfizer tximino birus.
- NJ (*neighbor joining*): aldamenekoën elkartzea.
- OERV (*ovine endogenous retrovirus*): ardién errotribirus endogeno.
- PAG (*Pregnancy-associated glycoproteins*): haurdunaldiarekin erlazionatutako glikoproteinak.
- PBS (*primer binding-site*): hasle-loturaren gune.
- PERV (*porcine endogenous retrovirus*): txerrien erretrobirus endogeno.
- PIC (*preintegration complex*): txertaketa aurreko konplexu.
- PPT (*polypurine tract*): polipurina traktua.
- RnERV (*Rattus norvegicus endogenous retrovirus*): arratoien erretrobirus endogeno.
- RT (*reverse transcriptase*): pol geneko alderantzizko transkriptasa eskualdea.
- TE (*transposable element*): elementu transposakor.
- TM (*transmembrane*): env geneko transmitza eskualdea.
- XIST (*X chromosome inactivation-specific transcript*): X kromosomaren inaktibazioaren transkripto espezifiko.
- XRV (*exogenous retrovirus*): erretrobirus exogeno.

Hiztegi laburra

Euskara	English	Castellano
Adierazitako sekuentzien markatzaile	Expressed sequence tag (EST)	
Akordio-sekuentzia	Consense sequence	Secuencia consenso
Amu-sekuentzia	Sequence to search	
Antzekotasun	Similarity	Similitud
Aurkikuntza faltsuen tasa	False discovery rate	
Bikote-ezabapena	Pairwaise deletion	
Eboluzio-esparru	Evolutionary framework	
Egiantz handien	Likelihood	Máxima versimilitud
Egiantza-arrazoi test	Likelihood ratio test	Test de máxima verosimilitud
Elementu transposakor	Transposable element	Elemento transponible
Estaldura	Cover	
Etxekotze-prozesua	Domestication	Domesticación
GC-edukia	GC content	Contenido GC
Gene-konbertsioa	Gene conversion	Conversión génica
Genearen impronta patroia	Gene's imprinting pattern	
Genoma-bertsio	Genome version	Versión de la secuenciación del genoma
GO prozesu biologikoa	GO biological process	
Hasle-loturaren gune	Primer binding site	
Insertzio-denbora	Insertion time	Tiempo de inserción
Inpronta-patroia	Imprinting pattern	
Markov-en ezkutuko ereduak	Hidden Markov Models	Modelos ocultos de Markov
Murritzte-faktore	Restriction factor	Factor de restricción
Muturreko errepika luze	Long terminal repeat	
Ondorengo probabilitate bayestarra	Bayesian posterior probability	Probabilidad posterior Bayesiana
p-distantzia	p-distance	
solo-LTRak	solo-LTRs	
Taldez kanpokoa	Outgroup	
Txertaketa aurreko konplexu	Preintegration complex	
Txertatze-norabidea	Insertion direction	Dirección de la inserción

Nomenklatura

Lan honetan nomenklatura bi mailatan ezarri da: bata espezie bateko ERVak orokorrean izendatzeko eta besteaERV bakoitzaz izendatzeko.

- Beste espezietan erabilitako nomenklatura jarraituz, lan honetan behiaren ERVak BoERV (*Bovine endogenous retrovirus*) izendatu dira eta zaldiarenak EqERV (*Equine endogenous retrovirus*).

-ERV indibidualak modu estandarrean izendatzeko proposamena egin bada ere (Blomberg et al., 2009), arrazoi praktikoak direla eta, lan honetan ERV indibidualak izendatzeko zein kromosometan detektatu den eta kromosoma horretako zenbatgarren ERVa den erabili dira, adibidez, chr1_1, lehengoko kromosoman lehenengo agertzen den ERV adierazteko.

Laburpena

Lan honetan hainbat mamalioen genoman detektatutako erretrobirus endogenoa (ERV) lanabes bioinformatikoen bidez aztertu dira. ERVak jatorri erretrobirala duten elementu genomikoak dira eta ornodunen genomen hein zabal batean detektu dira, batez ere mamaliotan. Hala ere elementu hauei buruzko ezagumendua mugatua da eta egindako azterketa genomikoak primate eta karraskarietara mugatu da.

Honela, ERVen identifikazioa behian eta zaldian burutu da, zeintzuen ERVak maila genomikoan aztertu ez diren bi taxoien ordezkariak diren (Ruminantia eta Equidae). ERVen dinamika ebolutiboa (euren proliferazioa eta sekuentzien aldaketen baimentzea) aztertu da ere bi espezie hauen ERVetan, eta emaitzak testuinguruan jartzeko, beste bost espezien ERVak, hala nola, gizakia, txinpantza, sagua, arratoia eta txakurra, ere aztertu ziren. Azkenik, behiaren genoman, ERVen adierazpena EST datubaseak erabiliz aztertu da eta ERVetatik gertu zeuden geneak karakterizatu dira.

ERVen detekzioa burutzeko hiru metodo ezberdin erabili ziren: BLAST algoritmoan oinarritutako metodo bat eta beste bi LTR_STRUC eta Retrotector[©] programa espezifikoetan oinarrituta. Metodoen artean ERV gehien aurkitu zituena Retotector[©] izan baten ere, komunak ez ziren emaitza kopuru altua zela eta, ERVak detektatzeko programa bat baino gehiago erabiltzea gomendagarria dirudi. Detektatutako ERVen analisi filogenetikoek behian 24 balizko ERV familia zeudela azaldu zuten, horietatik 20 esperimentalki ez zeuden deskribatuak eta lan honetan lehen aldiz deskribatzen den BoERV1 familia ugariena izan zen. Zaldian, aldiz, 15 balizko familia deskribatu ziren, aurrelik deskribatuta ez zeudenak. Aztertutako espezie hauen arteko ezberdintasunaren jatorria genoma bakoitzaren dinamikan, espezie bakoitzaren ezaugarrietan eta etxekotze-prozesuan egon daiteke.

ERVen dinamika ebolutiboari dagokionez, ERVen kopia-kopuruaren emendioa eta ERVen sekuentziaren aldaketen baimentzea inferitzeko, errekonbinazio intergenikoa, errekonbinazio intragenikoa eta hautespenea aztertu ziren. Sekuentziatan aldaketak baimentzeari dagokionez, oro har, ERVen sekuentziatan hautespen purifikatzaila nagusia izan zen, hauespen neutralpean eta hautespen positibopean zeuden kodoiak detektatu baziren ere. Gainera, zaldiaren ERVetan izan ezik, espezie gehienetan ERVetan errekonbinazio intrageniko gertaera nahiko detektatu ziren. Gure analisien arabera, behiaren eta zaldiaren ERVak, gizaki, txinpantze, sagu eta txakurran bezala, berrinfekzio bidez euren kopurua emendatu zuten. Salbuespen bakarra arratoiaren ERVak izan ziren, zeinetan emaitzek erretrotransposizioa kopuruaren emendio-mekanismo moduan iradokitzen duten.

Testuinguru genomikoari dagokionez, behiaren ERVetatik gertu zeuden geneak, zati handi batean, birusen aurreko defentsarekin eta histonekin erlazionatutako geneak izan ziren. Gainera, ERVetatik gertu zeuden gene proportzio bat pseudogeneak eta aurresandako geneak izan ziren, duplikazio gertaeran arrastoak izan daitezkeenak.

Azkenik, behiaren ESTak aztertuz behiaren ehunetan ERVen adierazpena detektatu da. Adierazpen hau garapen-fase, ehunaren eta aztertutako gene erretrobirala araberakoa izan zen. Gehien adierazi zen gene erretrobirala *env* izan zen eta ERVen adierazpena batez ere enbrioi-ehunetan gertatu zen.

Hortaz, lan honetan aurkezten diren emaitzek, adibidez ERVen txertaketa preferentziak eta ERVen adierazpen kontrolatua, genoma ostalararen eta elementu genomiko hauen artean erlazio bizi eta konplexua dagoela aditzera ematen dute.

Summary

In the present work endogenous retroviruses (ERV) detected on genomes from different mammals have been analysed by bioinformatic tools. ERVs are genomic elements with retroviral origin and they have been detected in a wide range of vertebrates, especially in mammals. However, the knowledge about this elements is limited and the genomic analyses performed were limited to primates and rodents.

Thus, the identification of ERVs have been performed in cow and horses, which are representatives of two taxa (Ruminantia and Equidae) whose ERVs have not had analyses at genomic level. Moreover, the evolutionary dynamic (their proliferation and the permissiveness of changes in the sequence) of ERVs of this all species has been studied also, and to place in context ERVs from other species, such as human, chimpanzee, mouse, rat and dog, have been analysed. Finally, in the bovine genome, the expression of ERVs have been analysed using the EST databases, and the genes around ERVs have been characterized.

In order to detect ERVs three different methods were used: one method based on BLAST algorithm and other two based on LTR_STRUC and Retrotector[©] specific programs. Although Retrotector[©] detected more elements, due to the high number of results that were not share, it seemed advisable to use more than one program to detect ERVs. The phylogenetic analyses of detected ERVs showed that in the cow there were 24 putative ERV families, from which 20 had not been experimentally described and the BoERV1 family, which is described in this work for the first time, was the largest. In the horse, however, 15 families were described, which had not been described before. The origin of the differences between these studied species could be the dynamic of each genome, the features of each species and the domestication process.

As far as ERV's evolutionary dynamic is concerned, to infer the proliferation of ERVs and the permissiveness of changes in the sequence of ERVs, intergenic recombination, intragenic recombination and selection were analysed. Regarding the changes allowed in the sequence, in general, purifying selection was the principal in the sequence of the 3 retroviral genes, although codons under neutral selection and positive selection were detected also. Moreover, except in horse's ERVs, there were detected many intragenic recombination events. According to the results of our analyses, ERVs from cow and horse, like human, chimpanzee, mouse and dog, proliferated by reinfection. The only exception were the ERVs from rat, where the results suggested retrotransposition as proliferation-mechanism.

As regards the genomic context, the genes located near bovine ERVs were, largely, genes related to defence against virus and histones. Moreover, a proportion of genes near of ERVs were pseudogenes or predicted genes, which could be traces of duplication events.

Finally, by the analysis of bovine ESTs, the expression of ERVs in bovine tissues was detected. This expression depended on the development-phase, tissue and studied retroviral gen. *env* gene was the most expressed retroviral gene and the highest expression of ERVs happened in embryonic tissue.

Thus, the processes detected in the present work such as the insertion preferences of ERVs and the control of the expression of ERVs, showed a dynamic and complex relation between the host's genome and these genomic elements.

Resumen

En este trabajo se han analizado los retrovirus endógenos (ERV) detectados en los genomas de varios mamíferos mediante herramientas bionformáticas. Los ERVs son elementos genómicos de origen retroviral y han sido descritos en un amplio rango de genomas de vertebrados, sobre todo en mamíferos. Sin embargo el conocimiento sobre estos elementos es limitado y los análisis genómicos realizados se han circunscrito a primates y roedores.

Así, se ha realizado la identificación de ERVs en vaca y yegua, que son representantes de dos taxones (Ruminantia y Equidae) cuyos ERVs no han sido analizados a nivel genómico. También se ha estudiado la dinámica evolutiva (su proliferación y la permisividad de cambios en su secuencia) de los ERVs de estas dos especies, y para poner los resultados en contexto, se han analizado también los ERVs de otras especies, tales como, humano, chimpancé, ratón, rata y perro. Por último, en el genoma bovino, se ha analizado la expresión de ERVs utilizando las bases de datos de ESTs y se han caracterizado los genes cercanos a los ERVs.

Para realizar la detección de los ERVs se utilizaron tres métodos distintos: un método basado en el algoritmo BLAST y otros dos basados en los programas específicos LTR_STRUC y Retrotector©. Aunque Retrotector© fue el que más ERVs detectó, debido al alto número de resultados que no fueron comunes parece recomendable utilizar más de un programa para detectar ERVs. Los análisis filogenéticos de los ERVs detectados mostraron que en la vaca hay 24 posibles familias de ERVs, de las cuales 20 no estaban experimentalmente descritas y que la familia BoERV1, que se describe por primera vez en este trabajo, fue la más numerosa. En la yegua, por su parte, se describieron 15 posibles familias, que no habían sido descritas anteriormente. El origen de las diferencias entre las especies estudiadas podría radicar en la dinámica de cada genoma, en las características de cada especie y en el proceso de domesticación.

En cuanto a la dinámica evolutiva de los ERVs, para inferir la proliferación de los ERVs y la permisividad de los cambios en la secuencia de los ERVs, se analizaron la recombinación intergénica, la recombinación intragénica y la selección. En lo que respecta a los cambios permitidos en las secuencias, en general, la selección purificadora fue la mayoritaria en las secuencias de los 3 genes retrovirales, aunque también se detectaron codones bajo selección neutral y selección positiva. Además, excepto en los ERVs de la yegua, en los ERVs de la mayoría de las especies se detectaron numerosos eventos de recombinación intragénica. Según los resultados de nuestros análisis, los ERVs de vaca y yegua, al igual que de humano, chimpancé, ratón y perro, proliferaron mediante reinfección. La única excepción fueron los ERVs de rata, donde los resultados sugieren la retrotransposición como mecanismo de proliferación.


En cuanto al contexto genómico, los genes localizados cerca de los ERVs bovinos fueron, en gran parte, genes relacionados con la defensa ante virus y con histonas. Además, una proporción de los genes cercanos a los ERVs fueron pseudogenes o genes predichos, que pudieran ser rastros de eventos de duplicación.

Por último, mediante el análisis de ESTs bovinos se detectó la expresión de los ERVs en varios tejidos bovinos. Esta expresión dependió de la fase de desarrollo, del tejido y del gen retroviral examinado. El gen retroviral que más se expresó fue *env* y la expresión de los ERVs ocurrió sobre todo en el tejido embrionario.

Por tanto, los procesos detectados en este trabajo, tales como las preferencias de inserción de los ERVs y la expresión controlada de los ERVs, muestran que existe una relación dinámica y compleja entre el genoma huésped y estos elementos genómicos.

I. Sarrera

Erretrobirus endogenoak (ERV, *endogenous retrovirus* ingelessez) organismo eukariotoen genometan agertzen diren elementuak dira. Erretrobirus exogenoek (XRV, *exogenous retrovirus*) hozi-lerroko zelulak infektatzen dituzte eta haien genoman txertatzen dira. Hala, belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira. ERV bihurtu direla esaten da orduan (Boeve & Stoye, 1997).




I-1. irudia: Elementu transposakorren sailkapena eta retroelementuen egitura.
(Bannert & Kurth, 2004)-tik moldatua.

ERVak elementu transposakorrak (TE, *transposable elements*) deritzen elementu genomikoen barruan sailkatzen dira (I-1. irudia). Mamalioen genomaren ia erdia elementu transposakorrez osotuta dago. Elementu transposakorren artean, bi talde bereizten dira: transposoiak eta retroelementuak. Azken horiek, halaber, bi klase nagusitan banatzen dira: LTRrik (*long terminal repeats*) gabeko elementuak eta LTRdun elementuak. SINEak (*short interspersed elements*) eta LINEak (*long interspersed elements*) LTRrik gabeko klaseko kideak dira eta kopia kopuru handietan agertzen dira mamalioen hozi-lerroan; SINEek ez dute proteinarik kodetzeko gaitasunik eta LINEak behar dituzte amplifikatzeko. LTRdun klasearen barruan retrotransposoiak, ERVak eta ERVdun jatorria duten elementu errepikakorrak (LTR bakartiak edo solo-LTRak, adibidez) daude (Bannert & Kurth, 2004).

I.I. ERVen egitura

Erretrobirus endogenoek (ERV) erretrobirus exogenoen (XRV) antzeko egitura dute: gutxienez *gag*, *pro-pol* eta *env* geneak eta alboetan LTRak azaltzen dituzte (I-2. irudia). Erretrobirus batzuetan, gene hauetaz gain, beste gene osagarri batzuk ere ager daitezke; horiek agertzen badira, erretrobirusak konplexutzat jotzen dira eta agertzen ez badira, sinpletzat (Vogt, 1997; Griffiths, 2001). Atal honetan azalduko den erretrobirusen genomaren informazio orokorra nagusiki Vogt-ek (1997) "Retrovirus" libururako egindako kapitulutik hartu da.

Geneez eta LTRez gain, beste bi gune garrantzitsu aurki daitezke erretrobirusen egituraren: hasleloturaren gunea (PBS, *primer-binding site* ingelesez) eta polipurina traktua (PPT, *polypurine tract*). PBSa erretrobirusen alderantzizko transkripzioa hasteko gunea da, zeinari tRNA espezifiko bat lotzen zaion erretrobirusaren DNAren (-) harizpiaren transkripzioa hasteko. PPTa erretrobirusaren DNAren (+) harizpiaren haslea sintetizatzen duen eskualdea da (Vogt, 1997).



I-2. irudia: Erretrobirusen oinarrizko egitura.

LTR, *long terminal repeats*, U3, R eta U5 eskualdeak. *gag* genea, matriza (MA), kapsida (CA) eta nukleokapsida (NC) proteinak. *pro* genea, proteasa (PR) proteina. *pol* genea, alderantzizko transkripzatza (RT) eta integrasa (IN) entzimak. *env* genea, gainazal (SU) eta transminta (TM) glikoproteinak. PBS, *protein binding site*, (-) harizpiaren sintesia hasteko haslea lotzen den eskualdea. PPT *polypurine tract*, (+) harizpiaren haslea sintetizatzen duen eskualdea.

I.I.1. *gag* genea

gag geneak birusaren barne-egiturako proteina bat kodetzen du, Gag proteina, alegia (jatorrizko *group-specific antigen* izenetik, gaitasun antigenikoak zituela pentsatzen baitzen). Gag proteinatik proteolitikoki honako hauek eratortzen dira: MA proteina (matrizea), CA proteina (kapsida), NC proteina (nukleokapsida) eta, batzuetan, funtzio ezezaguna duten beste proteina bat (Vogt, 1997).

Oro har, onartzen da MA proteina mintz-proteina periferikoa dela eta uste da mintzaren eta MA proteinaren arteko elkarrekintza egon daitekeela. Proteina horren funtzioa guztiz argitura ez badago ere, miristilatzen dela ikusi da eta, prozesu hori erretrobirusa muntatzeko beharrezkoa da. Halaber, ikusi da, birus ezberdinak MA proteinek lipido ezberdinekiko afinitate desberdina dutela. Bestalde, badirudi, *env* genearekin elkarrekintzaren bat dutela (Vogt, 1997).

CA proteina antigenikoa da. Proteina horren funtzioa guztiz argitu ez bada ere, badirudi birusaren RNA gordetzen duen konplexu erribonukleikoaren inguruan “maskor” bat eratzen duela, kapsida alegia. Hala ere, “maskor” horren funtzio biologikoa ez dago argi. Ikerketa batzuek aditzera mean dute CA proteinak infekzioaren hastapenean garrantzia izan dezakeela (Vogt, 1997).

Bestalde, ikusi da NC proteinak RNA genomikoarekiko lotura estua duela eta badirudi proteina horrek erretrobirusaren muntaketan parte har dezakeela. Orobak, ikusi da tRNA PBS guneari lotzea erraztu eta alderantzizko transkripzioa suspertzen duela (Vogt, 1997).

I.I.2. *pro-pol* geneak

pro geneak PR (proteasa birikoa) proteina kodetzen du. Proteina horrek *gag*, *pro*, *pol* eta, batzuetan, *env* geneek kodetutako proteinak proteolitikoki prozesatzen ditu eta, prozesu horren ondorioz, proteina horiek funtzionalak bilakatzen dira. Horrela, birusaren muntatzearen bukaeran, proteasak aldaketa morfologikoak eragiten ditu birusean eta infekzioso bihurtzen du (Vogt, 1997).

pol geneak RT (alderantzizko transkriptasa) eta IN (integrasa) entzimak kodetzen ditu. RT entzimak DNA polimerasa jarduera du; RNA molde bat erabiliz, DNA sekuentziak sintetizatzen ditu. Halaber, RT entzimak RNAsa H jarduera du; hots, RNA/DNA hibridoak degradatzen ditu (Vogt, 1997).

IN delako entzimak genoma erretrobiralaren erreplikazioan parte hartzen duelarik, erretrobirusen DNA genoman txertatzeko proteina gakoa da. Proteina hori gai da sintetizatu berri diren erretrobirusaren DNA harizpiak jasotzeko eta genomaren DNA ituan zoriz txertatzeko (Vogt, 1997).

I.I.3. *env* genea

env geneak zelulako proteina hartzaleekin espezifikoki elkarrekintza duten SU (gainazal glikoproteina) eta TM (transmintza proteina) proteinak kodetzen ditu. Horrelako proteinak estalkia eratzen dute, infekta daitezkeen zeluletan birusa adsorbatzen eta sartzen laguntzen duen egitura (Vogt, 1997).

I.I.4. Gainontzeko geneak

Erretrobirus gutxi batzuek kokapen genomiko aldakorra duen *dut* delako genea azaltzen dute, eta horrek DU proteina (deoxiuridina trifosfatasa) kodetzen du. DU proteinak deoxiuridina trifosfatoa birioian sartzea ekiditen duelarik, kieszentzian dauden zeluletako erreplikazioa errazten du. Gainontzeko geneen artean birusaren adierazpena erregulatu eta koordinatzen dituzten geneak ere aurki daitezke (Vogt, 1997).

Erretrobirus batzuek *onc* geneak (onkogeneak) eduki ditzakete beren egitura genomikoan. Horrelako geneak daramatzaten erretrobirusek tumoreak sortzen dituzte eta, oro har, ez dira funtzionalak, erreplikaziorako beharrezkoak diren geneetan ezabatzeak pairatu baitituzte *onc* geneak kokatzeko. Erreplikazioa gertatu ahal izateko, *onc* genea duten birus horiek beharrezkoa dute funtzionala den erretrobirus baten laguntza (Vogt, 1997).

I.1.5. LTRak

LTRak erretrobirusen alboetan dauden egiturak dira. LTRak sekuentzia berdin-berdinak dira eta tamaina aldakorra duten eskualdeez osatuta daude: U3 (*unique 3*), R (*repeat*) eta U5 (*unique 5*) eskualdeak. Guztira LTRek 300 eta 1800 base-pareko luzera dute. Transkripzioaren kontrol-elementu gehienak U3 eskualdean kokatuta daude, adibidez, sustatzaileak eta areagotzaileak. Areagotzaileak berebiziko garrantzia du infektatuko den ehuna zer-nolakoa izango den, hau da, patogenesia nolakoa izango den baldintzatzen baitu. PoliA isatsa seinalea R eta U5 eskualdeen artean kokatuta dago (Vogt, 1997).

LTRak genoman txertatzeko orduan, berdin-berdinak dira eta haien dibergentzia txertatzenbora estimatzeko erabiltzen da (Dangel et al., 1995; Vogt, 1997; Hughes & Coffin, 2005).


I.2. ERVen sailkapena eta banaketa

Erretrobirus endogenoen (ERV) eta erretrobirus exogenoen (XRV) sailkapena ez da batera garatu, beren artean erlazioa egonda ere. Horren ondorioz, oro har, ERVak ez dira XRVak sailkatzen diren generoetan barneratzen. Gainera, hasieran gizakien (*Homo sapiens*) ERVak (HERV, *human endogenous retrovirus*) sailatzeko erabilitako nomenklaturak lan hori oztopatu du. Gizakiaren ERVen taldeak familia moduan izendatzen ziren beren PBSaren (hasle-loturaren gunea) arabera. HERVak izendatzeko familia terminoa erabiltzeak nahasmena sortzen du, batetik, erretrobirusek Retroviridae familia osatzen dutelako, eta, bestetik, ikusi delako PBS berdina duten erretrobirus batzuek ahaidetasun filogenetikorik ez dutela. Hala ere, ERV taldeak izendatzeko familia terminoa erabili ohi da (Tristem, 2000; Griffiths, 2001).

Azken lanetan, gizakirako ezarri den irizpide berri bati jarraituz (Gifford et al., 2005), ERVak hiru taldetan sailkatzen dira XRVekin duten antzekotasunaren arabera: I klasea, XRVen *Gammaretrovirus* eta *Epsilonretrovirus* generoen parekoak; II klasea, *Alpharetrovirus*, *Betaretrovirus*, *Deltaretrovirus* eta *Lentivirus* generoen parekoak; eta III klasea, *Spumavirus* generoaren parekoak (Gifford et al., 2005). Familien eta klaseen izendapenaz gain, Blomberg et beste zenbaitek egindako lanean (2009), ERV indibidualak sailatzeko eta izendatzeko gomendioak egin dira. Hor proposatzen dute ERVak izendatzerakoan ERVen antzekotasuna, ezaugarri estrukturalak, funtzioak eta antzinako izendapenak kontutan hartu behar direla (Blomberg et al., 2009).

ERVen banaketa aztertzeko, Robert Gifford-ek eta Michael Tristem-ek 2003an argitaratutako berrikuspena erabiliko dugu oinarri gisa (Gifford & Tristem, 2003).

ERVen bilaketak ornodunengan nahiz ez-ornodunengan egin badira ere, ERVak ornodunengan bakarrik aurkitu dira (I-3. irudia). Oinarrizko ornodunengan izan ezik, Cephalaspidomorphi (lanproiak) eta Myxini klaseetan alegia, aztertutako ornodun klase guztieta agertzen dira ERVak. Guztira, ERVak sei klaseren barnean dauden 25 ordenetan agertzen dira, kartilagodun arrainetatik mamalioetara. Hala ere, mamalioak gehien ikertu diren espezieak dira eta, beraz, ERVen banaketari buruz dakiguna alboratuta egon daiteke. ERV antzeko elementuak *Drosophilan* eta landareetan aurkitu dira, baina analisi filogenetikoeik adierazten dute erretrotransposoietatik gertuago daudela (Herniou et al., 1998; Gifford & Tristem, 2003).



I-3. irudia: ERVen banaketa hainbat espezietan.

Letra loidiz XRVak; gainontzeakoak, ERVak. (Herniou et al., 1998)-tik moldatua.

I.2.1. I Klaseko ERVak

I klaseko ERVak ostalari-hein zabalena duten ERVak dira (Herniou et al., 1998).

Gammaretrovirus generoko XRVek egitura simplea dute eta, erretrobirus generoen artean, ostalari-banaketaren hein zabalena (Gifford & Tristem, 2003). Horiekin erlazionatutako ERVak anfibioetan, narrastietan, hegaztietan eta mamalioetan aurkitu dira. Arrainenetan eta beste oinarrizko kordatuetan, aldiz, ez dira aurkitu, nahiz eta bilaketak egin (Martin et al., 1999).

Epsilonretrovirus generoko XRVek egitura genomiko konplexua dute eta arrainenetan soilik aurkitu dira. Salbuespenak salbuespen, genero horretako XRVkin erlazionatutako ERVrik ez da topatu. Hala

ere, *Xenopus laevis* apo espeziean, XRV horiek erlazio urruna duen ERV bat aurkitu da (Gifford & Tristem, 2003).

I.2.2. II Klaseko ERVak

II klaseko ERVak hein murriztua azaltzen dute: hegaztietan eta mamalioetan bakarrik agertu dira (Gifford et al., 2005).

Alpharetrovirus generoko XRVak hegaztien *Gallus* generoan aurkitu dira batez ere. Egitura genomikoa simplea badute ere, batzuetan, genomaren zatiak galtzen dituzte onkogeneak eramateko. Salbuespen bakarra RSV (*Rous sarcoma virus*) birusa da, non onkogeneek ez duten ohiko generik ordezkatzen. Genero horrekin erlazionaturiko ERVak, hasieran, oiloan (*Gallus gallus*) bakarrik aurkitu ziren. ALVE familia ERV horietako talde bat da. Familia horren txertatzeak oiloaren aitzindari basatian aurkitu dira, baina ez beste Galliformes-eten, eta beraz, txertatzea orain dela gutxi gertatu dela esan nahi du. EAV-0 ERV familia ere *Gallus* generoan agertzen da barreiatuta. Familia horrek *Gallus* generoaren filogeniari estuki jarraitzen dio eta, hortaz, txertatzea antzinakoa dela ondorioztatu da. Hala ere, badaude hainbat ikerketa ERV banaketa *Gallus* generoan zabalagoa izan daiteekela aditzera ematen dutenak; adibidez, *Bonasa umbellus* lagopodo espeziean, TERV izendatutako ERVa aurkitu daiteke. Geroago egindako ikerketetan, *Alpharetrovirus* generoarekin erlazioa duten ERVak 15 hegazi ordenatan ere detektatu ziren (Gifford & Tristem, 2003; Gifford et al., 2005).

Betaretrovirus generoko XRVak mamaliotan besterik ez dira aurkitu (karraskarietan, hausnarkarietan, primateetan, eta abarretan) eta gehienek genoma simplea dute. Genero horretako hainbat erretrobirusek forma exogenoa eta endogenoa dute, adibidez, *Jaagsiekte sheep retrovirusak* (JSRV) ardieta (*Ovis aries*) eta *Mouse mammary tumor virusak* (MMTV) saguetan (*Mus musculus*). Era berean, forma exogenorik ez duten ERVak agertu dira. Genero horrekin ahaideztutako ERV horiek mamalioetara (primateetara, karraskarietara, eta abarretara) mugatuta daude. ERVek, mamalioetan, banaketa zabala eta, era berean, irregularra dute, aztertu ziren mamalioen 49 taxoietatik 25etan detektatu baitziren. Karraskarietan, ERV horietaz gain, ERVekin modu ahulean filogenetikoki multzokatzen diren IAP elementuak (*intracisternal A-type particle*) agertu dira (Herniou et al., 1998; Gifford & Tristem, 2003; Gifford et al., 2005).

Deltaretrovirus generoko XRVak primateetan eta behietan bakarrik aurkitu dira, egitura konplexua dute eta, batzuen egiturau, onkogeneak agertzen dira. Ez da horiek lotutako ERVrik aurkitu (Gifford & Tristem, 2003).

Lentivirus generoko XRVak primateetan, felidoetan eta hainbat ungulatutan (ahuntzan, ardi, behian eta zaldian) aurkitu dira. Genoma konplexua dute eta batzuek onkogeneak daramatzate (Gifford & Tristem, 2003). *Deltaretrovirus*etan bezala, erlazionaturiko ERVrik ez zegoela pentsatzen zen, baina ikerketa berriek *Lentivirusen* antzeko ERVak aurkitu dituzte untxian (*Oryctolagus cuniculus*) (Katzourakis et al., 2007b) eta *Microcebus murinus* lemure espeziean (Gifford et al., 2008).

I.2.3. III Klaseko ERVak

Spumavirus generoko XRVek genoma konplexua dute eta mamalioen (felidoetan, behietan, primateetan eta abarretan) artean, oso zabalduta daude. Ez da horiek erlazio esturik duen ERVrik aurkitu. Hala ere, erlazio ahul bat azaltzen duten ERVak aurkitu dira mamalioetan, hegaztietan, narrastietan eta anfibioetan. Egiturak konparatuz, ERV urrun horiek *spumavirus*ek dituzten bi gene gehigarri galdu dituzte (Benit et al., 1999; Gifford & Tristem, 2003).

Mamalioen artean, *Spumavirus* generoarekin erlazionatutako ERVek banaketa ezberdina dute. Southern-blot teknikaren bidez egindako ikerketan (Benit et al., 1999), tximinoetan eta saguetan seinale oso indartsua ikusi zen; aztertutako gainontzeko mamalioetan (katua, txakurra, untxia, behia, txerria, zaldia eta arratoia), berriz, seinaleak ahulak izan ziren. Ez zen seinalerik detektatu hegaztietan, arrainenetan eta ez-plazentadun mamalioetan. Aztertutako mamalio guztieta agertu denez, *Spumavirus*ekin erlazionatutako ERVak antzinako ERV batetik eratorri zirela ondorioztatu da.

Bestalde, tximinoetan eta saguetan ikusten den seinale indartsua ERVen kopuru emendioarekin erlazionatu da; primateen kasuan mundu zaharreko eta berriko tximinoak banatu zirenean gertatu zen eta, saguen kasuan, duela gutxi gertatu zen. ERV horien erlazio filogenetikoari dagokionez, tximinoen ERVek talde bat osatzen dute; saguenek beste bat eta, gainontzeo mamalioen ERVek ez dute taldekatze sendorik azaltzen (Benit et al., 1999).

I.2.4. Gainontzeo ERVak

ERV horietaz gain, zalantzazko kasu batzuk badaude. XRVekin erlaziorik gabeko ERV elementuak krokodiloetan (*Crocodylus* sp.) eta pitoi sugeetan (*Python molurus*) detektatu dira (Gifford et al., 2005). ERV horiek gainontzeo ERVekin antzekotasun-maila txikia badute ere analisi filogenetikoek ERVen lerro filogenetikoaren partaideak direla ondorioztatzen dute. Pitoi sugearen ERVaren kasua harrigarria da; II klasekoekin multzokatzen da, baina mamalio- edo hegazti-jatorria ez duen ERV bakarra da. Gainera, ERV hori ez da beste boa-sugeetan detektatu (Gifford & Tristem, 2003; Gifford et al., 2005).

I.3. ERVen *in silico* azterketa

Genomikaren, hots, genomen sekuentziazioaren aroan, erretrobirus endogenoekin (ERV) lan egiteko informazio ugari dugu eskuragarri. Genoma osoen sekuentziak ditugunez, errezagoa da genoma jakin bateko ERV sekuentzien bilaketa, banaketa, dibertsitatea eta dinamika ikertzea, eta, horri esker, hainbat genomatan gertatzen dena konpara daiteke (Gifford & Tristem, 2003). ERVen detekzioa eta karakterizazioa egiteko lanabes bioinformatikoak garrantzitsu bilakatu dira. Orain arte, ERVen bilaketa bioinformatiko sakonak primateen, karraskarien eta oiloen genometan soilik egin dira; geroago ikusiko ditugu horiek.

I.3.1. Bilaketa programak

Azken urteetan ERVak detektatzeko hainbat estrategia erabili dira, eta lan horretarako espresuki diseinatutako programak ere sortu.


Genomak sekuentziatzen direnean, elementu errepikakorrak detektatzeko, hala nola ERVak, RepeatMasker programa erabiltzen da Genoma Proiektu gehienetan. Programa horrek genometan elementu horien antzeko sekuentziak bilatzeko Repbase datu-basea erabiltzen du. Repbase genoma eukariotikoetan dauden elementu errepikakorren sekuentzia prototipikoak gordetzen dituen datu-basea da. ERVe dagokienez, Repbasek hainbat espezietan agertzen diren 2000 ERV *loci* gora biltzen ditu (Jurka, 2000; Smit et al., 2004; Blikstad et al., 2008).

ERVen antzeko sekuentziak bilatzeko BLAST algoritmoa askotan erabili da. BLAST algoritmoak bilaketa heuristikoak erabiltzen ditu sekuentzia jakin bat sekuentzia askoren artean (sekuentzia database bat, adibidez) aurkitzeko. Bilaketa horiek modu lokalean egiten ditu; hau da, sekuentzia osoa bilatu beharrean, sekuentziaren zati bat bilatzen du, antzekotasun gehiago topatzeko. Lehenengo amu-sekuentziaren azpisekuentzia zerrenda bat egiten du eta horiek bilatzen ditu. Geroago, aurkitutako azpisekuentziak erabilitako parametroen arabera, ahal duen guzta luzatzen ditu. Azkenik, azpisekuentzia horietan oinarrituz, lerroatze onena muntatzen du eta lerroatzeari buruzko kalkuluak egiten ditu. Ezagutzen diren erretrobirusen sekuentziak erabiliz (bai endogenoak, bai exogenoak), bilaketak egin dira genometan, batez ere *pol* geneko RT eskualdea erabiliz (Altschul et al., 1997; Madden, 2002; Gifford & Tristem, 2003; Sperber et al., 2007).

Azken urteetan LTRdun elementuak eta ERVak detektatzeko hainbat programa sortu dira. Hemen, LTR_STRUC (McCarthy & McDonald, 2003) eta RetroTector© (Sperber et al., 2007) programak aztertuko ditugu, mamalioen zenbait genomatan ERVak detektatzeko erabili direlako. Hala ere, Genome Parsing Suite (McClure et al., 2005) programa sortu da, besteak beste, “agente erretroideak” detektatzeko, eta LTRak bilatzeko egindako LTR_par (Kalyanaraman & Aluru, 2005) edota LTRharvest (Ellinghaus et al., 2008) programak.

I.3.1.1. LTR_STRUC

LTR_STRUC LTRdun egiturak espresuki bilatzen dituen programa da. Sekuentzia genomikoak aztertzean programa horrek distantzia hein jakin baten barnean dauden balizko LTRak bilatzen ditu (I-4. irudia). Balizko LTR horiek detektatu ondoren, aztertzen du ea LTR horien artean PBS, PPT eta LTRen alboetan ohikoak diren nukleotidoak badauden (McCarthy & McDonald, 2003).




I-4. irudia: LTRdun elementuak detektatzeko LTR_STRUC-ek bilatzen dituen egiturak (McCarthy & McDonald, 2003).

sekuentzia luzatu horietan, LTRen bukaera-puntuak zehazten ditu. LTRak definitu ondoren, haien arteko eskualdean lehen aipatutako ezaugarri erretrobiralak aztertzen ditu (McCarthy & McDonald, 2003).

I.3.1.2. RetroTector®

RetroTector® programa ERVak espezifikoki detektatzeko sortutako programa da. Programa horrek, hainbat pausotan zehar, ERVen bilaketa sakona egiten du. Lehenengo, genoman, balizko LTRak bilatzen ditu eta, gero, erretrobirusetan kontserbatuta dauden motibo guztiak (I-5. irudia). Geroago, balizko LTR eta motibo horietan, bilaketa sakonagoa egiten du eta, balizko egitura horiekin, ERV bat eraiki. Azkenik, ERV horretan gene erretrobiral garrantzitsuenak bilatzen ditu (Sperber et al., 2007).



I-5. irudia: ERVen bilaketa egiteko RetroTector®-ek erabiltzen dituen motiboak (Sperber et al., 2007).

detekzioa kontserbatutako motiboen, motiboen arteko distantzia-mugen eta aminoazidoen antzekotasun- matrizeen mendekoa da. Motibo bakoitza genero erretrobiral batekin lotzen du eta motiboen arteko distantziak erretrobirus ezagunetan oinarritzen dira; hala, segurtasun-tarte bat gehitzen dio. Distantzia horien barruan dauden motiboak modurik sinesgarrienean konbinatzen dira balizko ERVa prozedura heuristiko baten bidez definituz. Hala ere, distantzia horietatik kanpo gelditzen diren motiboak onar ditzake, txertatzeak eta ezabatzeak kontutan hartzeko. Balizko ERV hori genero bati egokitzen zaio eta puntuazio bat eman, generoaren, luzeraren eta motiboen egokitzapenaren arabera (Sperber et al., 2007).

Detekzioa aurrera eramateko hainba irizpide erabiltzen dira: 1) Bilaketa hierarkikoa da: erabilitako motiboak azpigeneetan multzokatzen dira (I-5. irudian ikus daitezkeenak), bakoitzean motiboen

Lehen pausoan, LTR erretrobirasetan ohikoak diren distantziatan oinarrituz, itxarotako distantzia-hein baten barruan dauden LTR bikoteak bilatzen ditu. LTR sekuentzia bat aurkitzen duenean, hein horren barruan antzekoa den beste LTR sekuentzia bat bilatzen du. Hori aurkitu eta gero, bi balizko LTR horiek lerrokatzentzira eta haien sekuentzia luzatuz doa gutxi gorabehera LTR sekuentzia osoa eduki arte. Azkenik,

LTR bilatzen ditu eta, gero, erretrobirusetan kontserbatuta dauden motibo guztiak (I-5. irudia). Geroago, balizko LTR eta motibo horietan, bilaketa sakonagoa egiten du eta, balizko egitura horiekin, ERV bat eraiki. Azkenik, ERV horretan gene erretrobiral garrantzitsuenak bilatzen ditu (Sperber et al., 2007).

RetroTector®-en

bilaketa eta balizko azpigeneak definituz; 2) azpigene sekuentzian, hutsune-luzera ezberdina ezartzen da; 3) motibo batzuk bilaketak fintzeko soilik erabiltzen dira; 4) sekuentzia luzeak zati txikiagotan banatzen dira prozesatu baino lehenago, baina ERVak galtzeko arriskurik gabe (Sperber et al., 2007).

Sekuentzien estatistikoak kalkulatzeko, ERVen bi ezaugarri erabiltzen ditu. Alde batetik, gene kodetzaileen (*gag*, *pro*, *pol* eta *env*) sekuentzian, hexamero jakin batzuek (sei nukleotidoko multzoak) ORF irakurtarauan beste irakurtarauetan baino proportzio handiagotan azaltzen dituztela. Bestetik, LTRtan, oktamero jakin batzuk ohikoagoak direla (Sperber et al., 2007).

Azkenik, lerrokatzeak programazio dinamikoaren bidez egiten ditu, procedura estandarrak erabiliz (Sperber et al., 2007).

Bestalde, RetroTector©-en sortzaileek RetroTector© online lanabesa eskuragarri jarri dute, 5 eta 10000 Kbp arteko sekuentziak analizatzeko gai den web bidezko lanabesa da (Sperber et al., 2009).

I.3.2. Genoma osoko ERVen bilaketak

Gorago aipatu bezala, bilaketa programa horiek, primateen, karraskarien eta oiloen genomak aztertzeko erabili dira ERVen karakterizazio sakona egiteko asmoz (I-1. taula).

I-1. taula: ERVen *in silico* bilaketak egindako genomak.

Atal honetan aipatu diren adibideetan oinarrituta.

Espeziea	Metodoa	Genomaren %	Familiak	Erreferentzia
Gizakia	Repeatmasker	%4,64		(Internation Human Genome Sequencing Consortium, 2001)
	BLAST (genomaren %7)	22 ERV talde	22	(Tristem, 2000)
	RepeatMasker	%2,7	39	(Paces et al., 2002)
	BLAST	%1,1 (7.836 ERV)		(Villesen et al., 2004)
Txinpartzea	LTR_STRUC+BLAST		42	(Polavarapu et al., 2006)
	RepeatMasker		8 espezifiko	(Han et al., 2007)
Makakoa	RepeatMasker			(Mouse Genome Sequencing Consortium, 2002)
	BLAST		II. klaseko 7	(Baillie et al., 2004)
	LTR_STRUC		21	(McCarthy & McDonald, 2004)
Arratoia	RepeatMasker	%5,05		(Rat Genome Sequencing Project Cons, 2004)
	BLAST		II. klaseko 7	(Baillie et al., 2004)
Oiloa	LTR_STRUC+BLAST	%2,9	14	(Huda et al., 2008)

I.3.2.1. Gizakia

Genoma osoko ERV bilaketa sakonena gizakiaren genomaren egin da. Gizakiaren ERVak bilatzeko eta aurretik zegoen informazio esperimentalarekin uztartzeko estrategia ezberdinak erabili dira. Gizakiaren genoma sekuentziaterakoan, Repeatmasker-ekin egindako azterketan, ERVek gizakiaren %4,64ko estaldura zutela ondorioztatu zen (I. klasekoek %2,89, II. klasekoek %0,31 eta III. klasekoek %1,44) (Internation Human Genome Sequencing Consortium, 2001); hala ere, kopuru hori %8ra hel daitekeela uste da (Gifford & Tristem, 2003).

Lehenengo genoma osoko hurbilketa gizakiaren genomaren %7arekin egin zen, garai hartan eskuragarri zegoen informazioa erabiliz (Tristem, 2000). Ezagunak ziren ERVen *pol* geneko RT eskualdea erabiliz BLAST bilaketak egin ziren gizakiaren genomaren estaldura horretan. Analisi filogenetikoek ERVak 22 familiatan sailkatu zituzten, gehienak I klasekoak, eta lehendik ezagutzen ez ziren beste 6 familia berri detektatu ziren.

Gizakiaren genoma osoarekin egindako lehen azterketan, RepeatMasker erabili zen (Paces et al., 2002). Programa horrekin elementu errepirakor guztiak detektatzen direnez, bigarren pausoan gizakiaren ERVak iragazi eta sailkatu ziren, eta HERVd datu-basea sortu zen (<http://herv.img.cas.cz/>). Guztira, 39 ERV familia deskribatuta daude datu-base horretan, eta gizakiaren genomaren %2,7 ordezkatzen dute.

Bestalde, gizakiaren genomaren, ERVen gene nagusiak (*gag*, *pro-pol* eta *env*) BLAST bidez bilatu ziren (Villesen et al., 2004). Hurbilketa horren bidez, gizakiaren genomaren, 7836 ERV identifikatu ziren. ERV horiek gizakiaren genomaren %1,1 ordezkatzen dute, eta ikusi zuten banaketa kromosomiko homogeneorik ez zutela. ERV hauek eta detektatu ziren ia 38000 geneak Retrosearch datu-basea elikatzeko erabili ziren (<http://www.retrosearch.dk/>).

I.3.2.2. Gainontzeko primateak

Txinpantzearren (*Pan troglodytes*) genoman ERVak detektatzeko, lehenengo, LTRdun egiturak bilatu ziren LTR_STRUC programa erabiliz eta, programa horren emaitzetan oinarrituta, *pol* genearen RT eskualdearen antzeko eskualdeak BLAST programa erabiliz bilatu ziren txinpantzearren genoman. Detektatutako ERVak 42 familiatan sailkatu ziren analisi filogenetikoen arabera eta familia gehienak I. klasean kokatu ziren. Detektatutako ERVak 7.000 eta 10.000 base-pare arteko tamainakoak ziren. Txertatze-denborari dagokionez, I. klasekoak orain dela 0,8-82,9 milioi urte artean txertatu ziren; II. klasekoak, 2-97 milioi urte artean; eta III. klasekoak, 30-145 milioi urte artean. CERV1/PTERV1 eta CERV2 delako taldeak izan ezik, beste talde guztiak talde homologo bat dute gizakiaren (Polavarapu et al., 2006).

Makakoaren (*Macaca mulatta*) kasuan, Mundu Zaharreko Tximinoen espezifikoak diren ERVak aztertu ziren. Gizakiaren eta txinpantzearren eskualde homologoetan agertzen ez ziren eta makakoan agertzen ziren elementu errepikakorrak bilatu zituzten. Horretarako, 3 bideko multi-Z lerrokatzea egin zen BLAT programa erabiliz, eta elementu errepikakorrak RepeatMasker erabiliz detektatu ziren. ERVe dagokionez, gehienak hominido eta mundu zaharreko tximinoak banatu baino lehenagotik finkatuta zeuden genoman. Banaketaren ostean, makakoaren genoman, 8 familia txertatu dira, 5 I. klasekoak eta 3 II. klasekoak. Oro har, ERV gehienak I klasekoak dira (Han et al., 2007).

I.3.2.3. Karraskariak

Saguaren genoma sekuentziatu zenean, Repeatmasker-ekin egindako azterketaren bidez ikusi zen, ERVek saguaren %4,4a ordezkatzen dutela (I. klasekoek %0,68, II. klasekoek %3,14 eta III. klasekoek %0,58) (Mouse Genome Sequencing Consortium, 2002). Bestalde, arratoiaren kasuan, ERVek genomaren %5,05 ordezkatzen dute (I. klasekoek %0,97, II. klasekoek %3,24 eta III. klasekoek %0,84) (Rat Genome Sequencing Project Cons, 2004). Karraskarien genomekin bi azterketa nagusi egin dituzte: bata saguaren eta arratoiaren genoman, II. klaseko ERVak bilatuz, eta bestea saguaren genoman, LTR-erretrotransposoiak bilatuz.


II. klaseko ERVak karraskarien genometan dauden ERVehiengoa dira. ERV mota horiek saguaren eta arratoiaren genometan aztertzeko, sekuentzia-antzekotasunean oinarritu ziren, hots, BLAST erabili zuten. Metodologia horren bidez, *pol* genearen RT eskualdea karraskari horien genometan bilatu zen. Detektatu ziren ERVehiengoa analisi filogenetikoek II. klaseko 7 familia zeudela adierazi zuten; genomaren jatorria berdin zion, bi espezie horietan agertzen diren familiekin jatorri bera baitzuten (Baillie et al., 2004).

LTR-erretrotransposoi dagokionez, LTRdun egiturak bilatzen dituen LTR_STRUC programa erabili zen detekzioa egiteko. Detekzio hori osatzeko, RT eskualdeen BLAST bidezko bilaketak egiten ziren. Analisi filogenetikoek ondorioztatzen dute ERVehiengoa 3 klaseak ordezkatzen dituzten 21 familia daudela eta ERV gehienak II. klasekoak direla. Oro har, detektatutako LTR-erretrotransposoiak 2.700 eta 7.200 bp bitarteko tamaina dute (McCarthy & McDonald, 2004).

I.3.2.4. Oiloa

ERVehiengoa osoko azterketetan, oiloarena izan da aztertutako lehen hegazti-genoma (Huda et al., 2008). ERVak detektatzeko, txinpantzearrekin erabilitako prozedurari jarraitu zitzaien: lehenengo, LTRdun elementuak bilatu ziren LTR_STRUC programa erabilita. Bigarren pausuan, bilaketa horretatik lortutako *pol* genearen RT eskualdeak oiloaren genoman BLAST bilaketak egiteko amusekuentziak bezala erabili ziren. Detektatutako ERVehiengoa genomaren %2,9a ordezkatzen dute. Hala detektatutako ERVehiengoa analisi filogenetikotik ondorioztatu zen guztira 14 ERV familia zeudela, zeinetatik 11 talde ezezagunak ziren. Taldeen txertaketari dagokionez, zenbatetsi zen familiarik gazteena orain dela 3-0 milioi urte artean txertatu zela eta zaharrena orain dela 136,5-143,9 milioi urte (Huda et al., 2008).

I.4. ERVen dinamika ebolutiboa



Erretrobirus endogenoak (ERV) genoma ostalarian finkantza hainbat faktorek baldintzatzen dute. Besteak beste, honako hauek aurki ditzakegu: zelula guztiek dituzten mugak gainditzea, hozi-lerroa heltzeko ugaltze-ehunak infektatzea, infektatutako hozi-lerroaren biziraupena baimentzea, ostalarriaren ondorengoak egokitzapena galdu gabe bizirautea eta finkatu eta gero ostalarriaren populazioaren itoguneak gainditza (Blikstad et al., 2008). ERVak ostalarrian txertatu eta gero, genomaren parte direnez, genomaren edozein sekuentziak jasaten dituen presio ebolutiboak jasaten dituzte, hala nola, mutazioa, hautespena, errekonbinazioa, eta abar. Hainbat ERVk aurkako hautespena jasan dezakete eta populazio ostalaritik desagertu. Bestalde, genoman txertatzeak ostalarrian eragin negatiboak sor ditzake, ostalaria kaltetu eta, ondorioz, ERVa ez da hurrengo belaunaldietara transmitituko. Hala ere ERVek populazio ostalarriaren genomak kolonizatzen dituzte, populazio ostalarriaren jito genetikoa eta arraste genetikoa direla-eta, alde batetik, eta ERVek erreplikatzeko gaitasuna mantentzen dezakelako beren kopurua genoma ostalarrian emendatuz, bestetik. Prozesu horien ondorioz, finkatutako eta ez-finkatutako elementuez osatutako ERV familia monofiletiko bat sortzen da (ikusi I-6. irudia). ERV familia gehienak populazio ostalarriaren genomatik desagertzeko joera dute, bai ostalarrian izan dezaketen eragin patogenikoengatik, bai ERVek jasan ditzaketen mutazioengatik. Hala ere, hainbat ERV familia ez dira desagertzen, alde batetik familia horiek funtzionaltasuna mantentzen dutelako eta, bestetik, familia horien adierazpen kontrolatuak indibiduoei abantailaren bat eman diezaikeelako (Gifford & Tristem, 2003; Jern & Coffin, 2008; Blikstad et al., 2008).

I.4.1. Genomen kolonizazioa

ERV familia bat sortzeko lehen pausoa XRV bat hozi-lerroko zelula bateko genoman txertatzea da, zelula ostalarriaren defentsak gainditu eta gero.

I.4.1.1. Txertaketa

Erretrobirusen txertaketa erretrobirusaren gainazaleko glikoproteinak zelularen hartzaleei lotzen zaizkienan hasten da. Lotuz gero, erretrobirusa zelularen mintzarekin fusionatzen da eta birioiaren muina zitoplasman askatzen da. RNA erretrobirala, alderantzizko transkripzioaren bidez, harizpi bikoitzeko DNA bilakatzen da. DNA erretrobirala hori birioiaren muinetik eratorritako proteinez osatutako egitura batekin batzen da eta txertaketa aurreko konplexua (PIC, *preintegration complex*) eratzen dute. Ondoren, DNA erretrobirala nukleora garraiatzen da eta ostalarriaren genoman txertatzen da birusak kodetzen duen integrasa proteinaren bidez (Jern & Coffin, 2008).

Erretrobirusak genometan txertatzea ez da guztiz zorizko gertaera. Hainbat XRVrekin egindako ikerketetan, genoman txertatzerakoan, XRV bakoitzak tropismo ezberdina azaltzen du: GIBa (giza immunoesiasiaren birusa, gizakien birusa), batez ere, gene aktiboetan txertatzen da eta MLVa (*murine leukemia virus*, saguen birusa) geneen 5' bukaeran; ASLVetan (*avian sarcoma leukemia virus*, oiloen birusa), berriz, ez da lehentasunik hauteman (Bushman et al., 2005).

I.4.1.2. Ostalarriaren defentsak

Ostalarriaren genoman ERVak finkatzea oztopatzen duten faktoreen artean (I-7. irudia), elementu


transposakorren eta azido nukleiko kanpotarren aurkako defentsak aurki ditzakegu, eta faktore horiexek dute eragin handiena ERVen eboluzioan. Besteak beste, zelularen hartzileen interferentzia, beste ERV batzuen interferentzia (5.2 atalean aztertuko dugu) edota murrizte-faktore erretrobiralak aurki ditzakegu (Blikstad et al., 2008).

Erretrobirus bat ez sartzeko ezaugarriak garrantzitsuena erretrobirusen hartzailleak egotea da. Horrelako hartzailerik egotekotan, hartzaillea blokea daitake erretrobirusa ez sartzeko lehen defentsa-hesi modura. Saguarengann, funtzio hori duen Fv4 genea deskribatu da. Gene horrek MuLV birusa sartzea ekiditen du, erretrobirus horren hartzaillea blokeatuz. Gainera, uste da Fv4 genea, berez, *gag* eta *pol* geneak galdu dituen ERV baten *env* gene akasduen batetik eratorri dela (Goff, 2004).

Erretrobirusak sintetizatutako DNA berriari erasotzea beste defentsa-hesi bat da. Hesi horretan zitidina deaminatzen duen APOBEC3G genea kokatzen da. Halaber, ikusi zen gene horrek gizakian *vif* gene gabeko GIB birusetan DNA (-) harizpian zitosinen %4a urazilora aldatzen dituela eta, horren ondorioz, (+) harizpian guaninak adenina bihurtzen direla. Aldaketa horien ondorioz, DNA erretrobirala ez-egonkorra bilakatzen da eta hainbat entzima bidez degrada daiteke, edo sekuentzia hain mutatuta gelditzen da, ezen birusak funtzionaltasuna galtzen duen. Gene hori beste tximino batzuetan ere aurkitu da antzeko ezaugarriekin. APOBEC proteina-familiako APOBEC3F eta ABOBEC3B proteinak ere antzeko funtzioa dute (Goff, 2004).

DNA erretrobiralaren sintesia eta zelula barruko zirkulazioa blokeatzea hurrengo defentsa-hesitzat har ditzakegu. Hor Fv1 eta TRIM5 α geneak koka daitezke. Saguetan, Fv1 geneak (ERV baten *gag* genetik eratortzen da), PICari (integratio aurreko konplexua) erasotzen dio edo harrapatu egiten du, eta ez dio nukleoan sartzen uzten. Gizakiengan, Ref1 geneak Fv1 genearen antzeko funtzioa du. Haien arteko ezberdintasun bakarra honako hau da: Ref1 genearen eragina alderantzizko transkripzioa baino lehenago gertatzen dela (Goff, 2004). Bi gene horien funtzioa bermatzeko, TRIM5 α genea beharrezkoa da. Gene hori erretrobirusen ostalari-heinaren faktorerik garrantzitsuena dela aditzera eman da eta, espezieen arteko transmisioan, hesi garrantzitsutzat har daitake (Goff, 2004).

Azken hesi gisa, erretrobirusaren adierazpena blokeatzen dituzten mekanismoak aurki ditzakegu. Hesi horretan kokatuta dagoen ZAP proteinari esker, nukleoan ekoitzitako RNA erretrobirala ez da zelularen zitoplasman agertzen. ERVen adierazpena DNA metilazioaren bidez mugatu daiteke ere, DNA metiltransferasa proteinen bidez. Mekanismo hau elementu transposakorren aurkako defentsa moduan sortu zela proposatu izan da (Yoder et al., 1997). ERVen adierazpena histonetan aldaketak eginez molda daiteke, batez ere histonen metilazioaren eta azetilazioaren bidez. Adibidez, ikusi da histona metiltransferasa proteinen bidez, H3 histonaren isatsaren trimetilazioa elementu errepikakorrak isilaraztean parte har dezakeela. Azkenik, RNA interferentziaren bidez ERVen adierazpena mugatu daiteke. siRNAs (*small interfering RNA*) eta piRNAs (*Piwi-interacting RNA*), transkripzioaren mailan eta transkripzio-ostekoan LTR-erretroelementuetatik defenda dezakete genoma (Goff, 2004; Maksakova et al., 2008).



I-7. irudia: Erretrobirusen aurkako defentsa-hesiak.
(Goff, 2004)-tik moldatua.

I.4.1.3. Finkatzea

Genomaren eskualde baten errekonbinazioaren tasa elementu transposakorren finkatzearekin erlazioa duela proposatzen duten ereduak plazaratu dira (Duret et al., 2000; Eickbush & Furano, 2002; Biemont & Vieira, 2006). Hala ere, gizakien ERVekin (HERV) egindako azterketa batean (Katzourakis et al., 2007a) ez zuten halako erlaziorik aurkitu. beren azterketan ikusi zuten eskualde bateko gene-dentsitatea HERV finkapenarekin erlazionatuta dagoela eta ez errekonbinazioarekin. Halaber, ikusi zuten gene-dentsitatearen eta ERVen finakatzearen arteko erlazioa korrelazio negatiboa zela.

HERVetan, ERV osoak eta solo-LTRen arteko proportzioak aztertuz, genomaren eskualde bateko errekonbinazio-tasaren eta proportzio horren arteko erlazio esangarria ikusi zen. Errekonbinazio-tasa handiagoa zuten eskualdeetan, solo-LTRen proportzioa handiagoa da, hots, eskualdearen errekonbinazio-tasak ERVen egituraren osotasuna mantentzea baldintzatzen du (Katzourakis et al., 2007a).

I.4.2. ERV kopia-kopuruaren emendioa

ERVen kopia-kopurua handitzeko, bi mekanismo nagusi daude: erretrotransposizioa eta berrinfekzioa. Erretrotransposizioan, ERVen kopuruaren emendioa hozi-lerroko zelulen barruan gertatzen da eta bi modutara gerta daiteke: *cis* eran edo *trans* erako osaketa. Berrinfekzioan, berriz, hozi-lerroko zeluletan edo zelula somatikoetan jatorria duen ERV batek hozi-lerroko zelulak infektatzen ditu. Mekanismo horietaz gain, ERV ez-funtzionalek adierazitako ERVekin, XRVekin edo genomaren beste leku batean dagoen ERV batekin errekonbina daitezke eta, batzuetan, prozesu horren ondorioz, funtzionaltasuna berreskura dezakete (Gifford & Tristem, 2003; Belshaw et al., 2004).

I.4.2.1. Erretrotransposizioa

Erretrotranspozioan, ERVak zelulatik ateratzen ez direnez, ez da beharrezkoa *env* genea funtzionala izatea. Erretrotransposizioaren *cis* eran, ERVek berek kodetutako proteinak erabiltzen dituzte ostalariaren genoman zehar mugitzeko, beraz, *gag* eta *pro-pol* geneek funtzionalak izan behar dute. (Belshaw et al., 2004). *trans* erako osaketa, berriz, errorobirus-lagunzaile batek (endogenoa zein exogenoa) emandako proteinak erabiltzen dituzte ERVek mugitzeko. Hortaz, ERVek gene funtzionalik edukitzea ez da beharrezkoa, eskualdeak mantentzea baizik: PBS, PPT, paketatze-seinalea eta LTRak esaterako (Gifford & Tristem, 2003; Belshaw et al., 2004).

I.4.2.2. Berrinfekzioa

Berrinfekzioari dagokionez, ERV batek bere burua kopiatzen du; zelulatik ateratzen da, eta hozi-lerroko beste zelula bateko genoman txertatzen da. Hortaz, ERVak guztiz funtzionala izan behar du; hau da, gene guztiak beren funtzioa mantendu behar dute, *env* genea barne. Beraz, *env* genea gakoa da, kopia-kopuruaren emendio-mekanismoak bereizteko, errorobirusari zelulatik irteteko eta zeluletan sartzeko gaitasuna ematen dion genea baita (Gifford & Tristem, 2003; Belshaw et al., 2004).

Berrinfekzio bidez, ERVak nola beren kopurua emendatzen duten ulertzeko, Katzourakis-ek eta beste hainbatek eboluzio-esparru bat proposatu zuten beren lanean (Katzourakis et al., 2005). Haien iritzitz, ERV familia bateko kide aktibo eta ez-aktiboak denboran zehar aldatzen dira eta kopuruaren emendioa lau prozesuren araberakoa da:

- berrinfekzio bidez erreplikatzen diren elementu aktiboen tasa.
- berrinfekzioan mutazio bidez inaktibo bihurtzen diren elementuen proportzioa.
- ostalariaren zelulen banaketan mutazio bidez inaktibo bihurtzen diren elementuen tasa.
- errekonbinazio deleterearen bidez ezabatzen diren elementuen tasa.

ERV familia baten kide-kopurua prozesu horien arteko elkarrekintzaren menpe dago, hau da, ERV berriak sortzearen (lehen bi prozesuak) eta ERVak galtzearen (azken biak) mende. Prozesu

horiek erabiliz, Kotzourakis eta besteek bi eredu eraiki zituzten ERVak beren kopurua nola emendatzen duten azaltzeko: eredu determinista eta eredu estokastikoa (Kotzourakis et al., 2005).

Eedu deterministak ERVen kopia-kopuruaren emendioa aurrestan dezake epe luzera. Eedu horren arabera, berrinfekzioen, inaktibo bihurtzeen eta ezabatzeen arabera, ERV familiek beren kopurua mugagabe emenda dezakete, eta ostalariaren genoma suntsitu edo taldea genomatik ezabatu. Kontrolik gabeko kopuruaren emendioan, ostalariak defentsa-sistema eraginkorrik izateko hautespen-presioa jasango luke. Familia ezabatzean, berriz, ERV aktiboak gero eta urriagoak dira eta kopuruaren emendioa gelditu egiten da. Hala ere, agertoki horretan, ERV familiek kide ugari izatera hel daitezke desagertu baino lehenago; hortaz, ERV familia handiak desagerpenera bideratuta dauden eboluzio-arrastoak izan daitezke (Kotzourakis et al., 2005).

Eedu estokastikoak ERV kopurua txikia denean du eragina. Eedu horretan aipatutako lau prozesuak adarkaduran gertatzen dira. Eedu horrek izar-itxura duen filogenia asimetrikoak aurreikusten ditu. Halako filogeniak hainbat ERV familiatan agertzen dira. Zuhaitz topologia horiek aditzera eman dezakete ERVen kopuruaren emendio-tasa denboraren puntu batean izugarri aldatu zela, adibidez, ostalariaren defentsa mekanismoen aldaketen ondorioz (Kotzourakis et al., 2005).

I.4.2.3. Gizakien ERV familien emendioa

ERVen kopuruaren emendioa, batez ere, gizakien ERVetan (HERV, *human endogenous retrovirus*) aztertu da (**1. taula**). Oro har, ikusi da HERV familia gehienek berrinfekzio bidez beren kopurua emendatu dutela (Belshaw et al., 2004; Belshaw et al., 2005). Ondorio hori HERV familia gehienetan *env* genearen dn/ds proportzioa (aldaketa ez-sinonimo eta sinonimo proportzioa) 1 baino txikiagoa izatean oinarritzen da, hau da, *env* genean hautespen purifikatzalea gertatzen dela, beraren funtzioa mantentzeko presioa dagoela. Gorago azaldu bezala, berrinfekzioa gertatzeko, behar-beharrezko da *env* geneak funtzionala izaten jarraitzea. Are gehiago, familia batzuetan proportzio hori XRVetan gertatzen den proportzioetara hel daiteke, HERV-T (I klasekoa) edo HERV-S (III klasekoa) familiatan gertatzen dena, esate baterako (Belshaw et al., 2004; Belshaw et al., 2005).

I-2. taula: HERV familien kopia-kopuruaren emendioaren mekanismo nagusiak.

Atal honetan azaldutako adibideetan oinarritua.

HERV familia	Berrinfekzioa	Erretrotransposizioa cis	Erretrotransposizioa trans
HERV-T	X		
HERV-S	X		
HERV-K(HML2)			
HERV-K(HML3)	X	X	
HERV-H			X
ERV9			X
HERV-W			X

II klaseko HERV-K(HML2) familiaren azterketa sakonagoak egin dira (Belshaw et al., 2004). Familia interesgarria da, gizakiengan orain dela gutxi arte aktibitatea eta kopuruaren emendioa izan dituen HERV familia baita. Ikusi da familia horretan *trans* erako osaketa ez dela ohikoa, gene errotxibiral nagusietan stop kodoiak, oro har, ez baitira mantendu. Hala ere, familia horretako kideren batean, jatorri ezberdina duten geneak aurkitu dira. dn/ds proportzioari dagokionez, *env* genean 1 baino txikiagoa izateaz gain gainontzeko geneetan, balio hori agertzen da. dn/ds proportzioa barne-adarretan kanpo-adarretan baino txikiagoa da, eta, hala, ERVek egitura mantendu izanaren ideia indartu egiten da eta, hori dela-eta, ondorioztatu da HERV-K(HML2) familiar berrinfekzioa kopuruaren emendio mekanismo nagusia izan dela (Costas, 2001; Belshaw et al., 2004).

Hala ere, ikusi da kopia-kopuru handienak dituzten familiek beren kopia-kopurua erretrotransposizioaren bidez emendatu dutela (Belshaw et al., 2005). Halaber, ikusi da HERV-H familiako klado batean eta ERV9 familiar emendioa *trans* erako osaketan gertatu dela, *pol* eta *env* geneen dn/ds proportzioa handia baita. HERV-K(HML3) familiar, berriz, ondorioztatzen da erretrotransposioa *cis* erara gertatu dela, *env* genearen dn/ds proportzioa handia delako baina *pol* genean, txikia. Azkenik, HERV-W familiaren kideen bi herenen LINE erretrotransposoien bidez emendatu dute beren kopurua (Belshaw et al., 2005).

I.4.3. ERVen biziraupena

I.4.3.1. Mutazioa

ERVek beren egitura (LTR-*gag-pro-pol-env*-LTR) mantentzen badute ere, oro har, mutazio-metaketaren ondorioz geneak ez-funtzional bilakatzen dira eta ez dute proteinarik kodetzen. LTRak, geneak ez bezala, aktibo mantendu daitezke edota genoman bakarrik agertu, solo-LTRak deitzen diren egitura gisa agertuz (Griffiths, 2001; Belshaw et al., 2005).

Oro har, erretrobirusen genomatik mutazioen eragin gutxien jasotzen duen eskualdea *pol* geneko alderantzizko transkriptasa (RT) eskualdea da. Eskualde hori ordezpen ez-sinonimoetatik nahiko babestuta dago; hainbat motatako erretrobirusek eskualde hori nahiko ondo kontserbatuta dute eta, hortaz, ERVak identifikatzeko erabiliena da. Eskualde horretan oinarritzen dira erretrobirusen filogenia ikertzen duten lan gehienak. Hala ere, badaude *env* geneko transminta (TM) eskualdean oinarritzen diren lanak, hainbat birusetan uste zen baino kontserbatuagoa baitago (Benit et al., 2001; Gifford & Tristem, 2003).

ERVak genoman txertatzerakoan LTRak berdinak dira. Denboraren poderioz, LTRak elkarrengandik ezberdintzen dira, DNA erreplikazioaren ondorioz jasotzen dituen ordezpen, txertatze eta ezabatzeen eraginez. LTR arteko dibergentzia baliagarria da ERVen txertaketa-denbora estimatzeko, hots, erloju molekular moduan erabil daiteke. HERVen LTRekin egindako analisian, LTRak independenteki eboluzionatu dutela eta berrantolaketa gertaerarik egon ez dela onartuz, ikusi zen hainbat HERVen LTRen ordezpen-tasa $2,3 - 5,0 \times 10^{-9}$ ordezpen/leku/urteko dela. Ordezpen-tasa hori kalibratzeko mundu zaharreko tximinoen eta tximinoen arteko banaketa erabili zen eta ordezpen-tasa hau mamalioen pseudogene eta geneen eskualde ez-kodetzaileen antzeko tasa da (Dangel et al., 1995; Johnson & Coffin, 1999).

I.4.3.2. Errekombinazioa

ERVetan, errekonbinazioa bi mailatan gerta daiteke: gene bakoitzaren barruan eta geneen artean.

Gene arteko errekonbinazioa

Gorago aipatu bezala, RT eskualdean eta TM eskualdean oinarritutako filogeniak egin dira eta horiek hainbat ezberdintasun dituzte. Gertaera hori azaltzeko proposatu da zati zentraleko geneen artean errekonbinazioa dagoela, hainbat elementutako RT eta TM eskualdeak jatorri ezberdina dutela ikusita. Halaber, lehen aipatu bezala, HERV-K(HML-2) familiako hainbat kidek egitura kimerikoa azaltzen dute; jatorri ezberdina duten LTRez edo geneez osatuta daude. Azkenik, eskualde zentrala eta LTR arteko errekonbinazioa ere detektatu da, jatorri ezberdina duten LTR eta eskualde zentralak ERV gutxi batzuetan batera agertzen baitira (Benit et al., 2001; Costas, 2001; Belshaw et al., 2004; Hughes & Coffin, 2005).

Gene barruko errekonbinazioa

Gizakiaren HERV-V familiaren *env* genea aztertzen zen lan batean (Kjeldbjerg et al., 2008) ikusi zen gene horretan gene-konbertsioa gertatu zela. Lan horretan bata bestearren atzean dauden HERV-Vko kideen *env* geneak hainbat tximinotan aztertu zituzten eta espezie guztietaan bi *env* gene horien arteko gene-konbertsioa detektatu zuten; hots, gene horien eskualde bat gene batetik bestera transferitu zela (Kjeldbjerg et al., 2008). Txerriaren ERVen *env* genean ere, *env* mota ezberdinaren artean, PERV-A eta PERV-B motak, alegia, errekonbinazio-gertaerak detektatu dira (Lee et al., 2008). Azkenik, ikusi da gizakiaren HERV-K(HML2) familiako ERVen LTRetan errekonbinazio edota gene-konbertsio gertaerak nahiko ohikoak direla, alde batetik, familia horretako hainbat kidek historia filogenetiko ezberdina zutelako eta, bestetik, familia horretako kide bat gene-konbertsioaren bidez ezabatu zelako (Hughes & Coffin, 2005).

I.4.3.3. Txertatze-norabidea

ERVen txertatze-norabidea aztertzean ikusi da gizakien geneen introietan agertzen diren ERVek kontrako norabidean txertatzeko joera dutela (Medstrand et al., 2002). Joera hori, elementu

transposakorretan ere detektatu da gizakiengan eta saguengan (van de Lagemaat et al., 2003) baita behien LTR erretrotransposoietan ere (Almeida et al., 2007). Joera hori introietan ERVen biziraupenarekin erlazionatu da (van de Lagemaat et al., 2006). Gertaera horren azalpen gisa proposatu da norabide bereko txertaketak, LTRen poliadenilazio-seinalea dela-eta, transkripzioa goiz bukatzea eragiten duela. Horrek norabide bereko txertaketak kontrako hautespena jasotzea eragingo luke (van de Lagemaat et al., 2006).

I.4.4. Genoma-inbasioen adibideak


ERV familia bat sortzeko prozesua - hau da, erretrobirus batek infekzio sortzen duen etik ERV batek populazio-ostalariaren genoma kolonizatu arte -, populazio basatietan aztertzea zaila suertatu bada ere, koalaren erretrobirusari (KoRV) esker, prozesu hori zuzenean aztertu ahal izan da (Tarlinton et al., 2006; Tarlinton et al., 2008).

Koala Australiako ekialdean bizi den marsupial bat da eta haren genoman finkatzen ari den ERV bat, KoRVa, hain zuzen ere, hauteman da. KoRV ERVak giboien GALV XRVarekin erlazio filogenetiko estua duela ikusi da, eta horiek *Gammaretrovirus* (I klasea) generoaren barruan kokatzen dira. Erlazio hori dela-eta uste da hirugarren espezie baten bidezko espezie arteko saltoz gertatu dela. Espezie bitartekari hori (edo horiek) Asiako karraskariak izan daitezkeela proposatu da, GALV XRVarekin erlazionatutako ERVak detektatu baitira espezie horietan (Tarlinton et al., 2008).

KoRVa koalen neoplasia hematopoietiko gaixotasunarekin erlazionatu da eta adierazpen-maila altua du. Ezaugarri horiek XRV batenak badira ere, argi dago KoRVa oraindik finkatu gabeko ERV bat dela, hozi-lerroko genoman txertatuak baitaude eta indibiduo artean kopia kopurua eta sekuentzia erretrobiralra aldakorrak baitira. Gainera, ikusi da txertatutako KoRV gehienak egituraren osotasuna mantentzen dutela, koala batzuetan kopia ez-funtzionalak aurkitu badira ere. Bestalde, badaude KoRV gabeko populazioak, gainontzeko



I-8. irudia: KoRVren agerpena koalaren hainbat populaziotan (Tarlinton et al., 2006).




I-9. irudia: enJSRVen eta ardiaren historia ebolutiboa. (Arnaud et al., 2008).

populazioetatik isolatuta dagoen populazioa bat, alegia, eta, beste batzuetan, agerpena aldakorra da. Aldakortasun horrek aditzera ematen du infekzioa populazioan sakabanatzan ari dela, Australiako iparraldetik hegoaldera (I-8. Irudia). Uste da une honetan oraindik gertatzen ari den prozesu hori orain dela 200 bat urte hasi zela (Tarlinton et al., 2006; Tarlinton et al., 2008).

Koalaren adibideaz gain, ardiaren genoman, enJSRV birusaren inbasioa dugu (I-9. irudia) (Arnaud et al., 2008). enJSRVa *Jaagsiekte sheep retrovirus* erretrobirus exogenoaren bertsio endogenoa da. Ardiaren genoma *Ovis* (ardiak) eta *Capra* (ahuntzak) generoak banandu zirenean (orain dela 5-7 milioi urte) inbaditzen hasi zela jo da. Inbasioa hasi zenetik, enJSRV-en kopiek eboluzionatzen eta inbaditzen jarraitu dute ardiengen genometan. Horren ondorioz, enJSRV kopia batzuk *Ovis* generoko hainbat espezietan daude eta beste batzuk, ardiengen soilik. Gainera, ardiengen kopiek batzuk polimorfikoak dira, hots, bakarrik ardiengen proportzio batean agertzen dira. Halaber, ondorioztatu da kopia horiek ardiaren espeziazioa gertatu baino beranduago (orain dela 10.000 urte) txertatu direla. Hortaz gain, jo da horietako kopia bat, LTR-en díbergentzian oinarrituta, orain dela 200 urte txertatu zela. Proposatu da gaur egun enJSRVk ardiaren genoma inbaditzen jarraitzen duela (Arnaud et al., 2008).

I.5. ERVen adierazpena eta ostalarian duten eragina

Erretrobirus endogenoak (ERV), elementu transposakorrak diren heinean (TE), TEek ostalarietan duten eraginak dituzte (10. irudia). TEek, geneetan, mutazioak eragin ditzakete; gene berriak sorkuntzen lagundu dezakete edota berrantolaketa kromosomikoetan bitartekaria izan daitezke (Biemont & Vieira, 2006). Berrikuntza-iturria izateaz gain, aldaketa epigenetikoen eraginen ondorioz, TEak adieraz daitezke eta geneen adierazpena erregulatu. Eragin horien ondorioz aldaketa fenotipikoak gerta daitezke, eta populazioari adaptazio-bide berriak eman (Biemont & Vieira, 2006).



I-10. irudia: Elementu transposakorrak eta genoma ingurune elkarrekintzak.
(Biemont & Vieira, 2006)-tik moldatua.

gizakiengana (Jordan et al., 2003). Lehenago aipatu bezala, ERVak TEen barruan sailkatzen dira eta, hortaz, ERVek ekarpenak egin diezazkiokete ostalarriaren genomari.

Aurreko atalean ERVek populazioetan izan ditzaketen eraginak aurkeztu ditugu eta, atal honetan, ostalarriarekin dituzten elkarrekintzak eta ERVen adierazpena ikusiko ditugu.

I.5.1. ERVen eta ostalarrien arteko elkarrekintza

ERVak ostalarriaren geneetik hurbil txertatzen badira, beren LTRek gene horien adierazpena alda dezakete. Adibidez, gizakiengana, HERV-E familiako kide bat txertatzeak listuan amilasa adieraztea eragin du (Samuelson et al., 1990). Halaber, jatorrizko transkripzioa areagotu dezakete, genetik distantzia-hein zabala batean txertatuz; eragina ERVtik 100kb-ra heldu daiteke (Jern & Coffin,

Ostalarriaren genoman TEek egindako ekarpena ezberdina da eskualdearen arabera. Oro har, TEek ekarpena txikia egin dute adierazten diren eskualdeetan; gizakiengana kodetzen diren proteinen %4ean, TEen sekuentziaren bat detektatu zen (Nekrutenko & Li, 2001); eta LTR erretrotransposoiek saguei egindako ekarpena %1,5 da (DeBarry et al., 2006), *Drosophilar* %1,9koa (Ganko et al., 2006) eta *C. Elegans* %0,6koa (Ganko et al., 2003). Hala ere, UTR eskualdeetan, TE ugari agertzen dira, %27 gizakiengana eta %18 sanguengana (van de Lagemaat et al., 2003), eta eskualde sustatzaileetan, %25

2008). Gainera, solo-LTR-ek ere sustatzaileetan eta areagotzaileetan eragin dezakete, eta ostalariaren geneetan eragin handia izan. ERVek geneen adierazpena aldatzeko beste modu bat gene-moztitsasketa alternatiboak sortzea da. Azkenik, ERVek genomaren antolaketan eragin dezakete antzeko ERV arteko errekonbinazioaren bidez (Jern & Coffin, 2008):

- LTR arteko errekonbinazioaren eraginez solo-LTR-ak gelditzea.
- Kromosoma eta norabide berean dauden bi ERV-en arteko errekonbinazioa gertatzea, eta birusak eta kromosoma zati bat galtzea.
- Kromatida ezberdinetan dauden ERV-en 5' eta 3' LTR-en arteko errekonbinazioa, eta kromatida batean ERVaren zati zentrala tandemenean geratzea eta bestean solo-LTR-a.
- Gene-konbertsioa gertatzea, eta ERV baten sekuentzia zati bat beste ERV-en kopiatzea.

Prozesu horiek direla-eta, sinesgarria izan daiteke ERV arteko errekonbinazio gertaerek eskualde genomikoen, exoien eta kontrol-eskualdeen nahasketan eragina izan dutela, eta, hala, horiek beste testuinguru batera eramango ditu, non, genomaren dinamikan eragin handia duten (Jern & Coffin, 2008).

I.5.1.1. Eraginak

ERVek, ostalarian, eragin ezberdinak izan ditzakete. ERV familiaren arabera, eragin horiek onuragarriak izan daitezke, adibidez, ostalariari funtzio erabilgarriak emanez, edo kaltegarriak, gaixotasunetan zerikusia izanda.

ERV-en eragin onuragarrik ikertuena gizakiaren sinzitina proteinak dira. Proteina horiek ERV ezberdinen *env* genearen produktuak dira eta, plazentaren garapenean, zeregin garrantzitsua dute. Sinzitina-1 deritzon proteina HERV-W familiako *env* genetik eratortzen da. Proteina hori plazentaren kanpoaldea eratzen duten tropoblastoetan adierazten da eta zelulen fusioan eta sinzintioaren eraketen hartzen du parte. Sinzitina-2 proteina ere hauteman da; horrek sinzitina-1 proteinaren ezaugarri berdinak ditu eta HERV-FRD familiaren *env* genea da (Jern & Coffin, 2008).

Antzeko funtzioa eta jatorri erretrobirala duten proteinak saguan detektatu dira, sinzitina-A eta sinzitina-B eta saguaren ERV-en *env* genearen produktuak dira. Ardiann JSRV birusaren forma endogenoaren *env* geneak ere antzeko ezaugarriak ditu. Gene horiek jatorri dituzten ERVek ez dute ahaidetasun filogenetikorik eta espezie bakoitza modu independentean lortu du; hau da, eboluzioan konbergentzia bat gertatu da (Jern & Coffin, 2008).

Beste eragin onuragarri bat saguetan gertatzen da. Saguetan MMTV birusaren forma endogenoek eta exogenoek superantigeno bat adierazten dute, zeinak mota ezberdinako birus exogenoak modu eraginkorrean blokeatzen dituen (Jern & Coffin, 2008).

ERV-en eta hainbat gaixotasunen arteko erlazioari buruzko eztaba dago; ERVak hainbat gaixotasun neurodegeneratibo eta minbiziren jatorria edo ondorio ote diren eztaba ditzakete, hain zuzen ere. Jern eta beste hainbaten (2008) ustez, ERVak gaixotasunekin lotzeko saiakerek oinarri genetiko nahikorik gabeko asoziazioak dira eta, ondorioz, gehiegi interpretatutako ondorioak lortzen dira. (Jern & Coffin, 2008). Hala ere, hainbat gaixotasunetan ERV-en funtzioa edo eragin-mekanismoa argi ez badago ere, ERV-en adierazpena hainbat gaixotasunetan detektatu da (Jern & Coffin, 2008). Adibiderik argienak saguetan aurkitu dira. MLVaren eta MMTVaren forma endogenoak eta IAP partikulak gaixotasun genetiko eta minbiziek erlazionatu dira. Gizakiengan, aldiz, ez da, oro har, ERV berrien adierazpen-erlazio argirik aurkitu. (Jern & Coffin, 2008). Hala ere, gizakiengan, ikusi da esklerosi multiplean HERV-W familiaren *env* genea adierazten dela eta gene horrek erantzun immunea abiarazten duela (Perron et al., 2009). Familia horren *env* genearen zergatik adierazten den guztiz argi ez badago ere, ikusi da Herpesvirusak egonez gero aktiba daitekeela, hots, aktibazioa ingurumenaren araberakoa izan daitekeela (Perron et al., 2009).

Hala ere, gizakiengan ikusi da ERV-en adierazpena aztertutako minbizidun ehunetan gainerregulatuta dagoela. Adibidez, lesio aitzindaridun eta haurdunaldi jatorridun kartzinometan

ikusi da testikuluko eta obarioko hozi-zelulako tumoreetan HERV-K familia adierazten dela. Gainera ikusi da familia horren *gag* eta *env* geneen adierazpenaren eta terapiaren porrotaren eta metastasiaren artean korrelazioa dagoela (Herbst et al., 1996). Halaber, ikusi da zelula hematopoietiko gaiztoetan ere HERV-E familiaren kide batzuen eta erlazionatutako ERVen *gag* genearen adierazten dela (Prusty et al., 2008) edota badagoela HERV-Kren *pol* geneko RT eskualdearen adierazpenaren eta bularreko minbizien pronostikoaren arteko erlazioa (Golan et al., 2008). Oraindik ere, gaixotasun horietan ERVek zerikusirik ote duten argitzeke dago; lehen aipatu bezala, jatorria edo ondorio diren zehaztu gabe dago (Jern & Coffin, 2008).

Gizakiengan ere ERVak esklerosi multiplearekin eta eskizofreniarekin erlazionatzen saiatu dira. Ikerketek aditzera eman dute HERV-W eta HERV-H familiak bi gaixotasun horietan gainadierazten direla, baina ez dago argi zer-nolako zerikusia duten (Jern & Coffin, 2008).

I.5.2. ERVen eta XRVen arteko elkarrekintza

Erretrobirus endogenoen eta exogenoen arteko ahaidetasuna dela-eta, proposatu da haien arteko elkarrekintza egon daitekeela, batez ere ostalaria defendatzearkin erlazionatuta. Hala ere, adibide gutxi batzuek elkarrekintza hori frogatu dute, besteak beste oiloan eta ardian.

ERVen eta XRVen arteko interferentziaren lehen adibide argia oiloetan aurkitu zen (Denesvre et al., 2003). ev/J 4.1 deritzon ERVaren *env* genea erabiliz, ALV-J XRVa zelulan ez sartzea lortu zen; *env* geneen arteko interferentzia zegoela ondorioztatu zuten.

Ardiaren JSRV birusa ERVen, XRVen eta ostalarien arteko koeboluzioaren adibidetzat jarri izan da (Arnaud et al., 2008). JSRV erretrobirusak forma endogena (enJSRV) eta exogena (JSRV) ditu. enJSRVak ardiaren *conceptusaren* eta placentaren morfogenesian hartzten du parte, prozesu horretan parte hartzten duten hainbat zelulatan adierazpenea ikusi baita, batez ere tropoblaston eta sinzitioan, eta horiek *conceptusa* elikatzeko erabiltzen diren placentomak ezartzeko eta eraketzeko beharrezkoak dira. Zelula horietan enJSRVaren *env* genea ez adieraztea lortzen bada, haurdunaldia eteten da. Halaber, ikusi da fetuan T-linfozitoen eraketan parte hartzten duten zeluletan ere enJSRVaren *env* genea adierazten dela, horrek ardiari *Betaretrovirusen* aurreko nolabaiteko tolerantzia ematen dio (Spencer et al., 2003; Arnaud et al., 2008).

Metodo bakoitzak detektatutako elementu kopuruaren, eta kromosoma-tamainaren, GC edukiaren, gene dentsitatearen eta pseudogene dentsitatearen arteko korrelazio-analisiak R lengoiairekin (R Development Core Team, 2008) burutu ziren.

III.2.4. Sailkapena

Detektatutako ERVen erlazioa *pol* geneko RT eskualdearen analisi filogenetikoaren bidez aztertu zen. Behintzat bi metodoz detektaturiko eta BLAST bilaketetan antzekotasun maila alta (500 nukleotidotik gorakoak) azaldu zuten 64 sekuentzia eta esperimentalki detektatutako zaldiaren 5 ERVak (Benit et al., 1999) erabili ziren analisi hauetan. Taldez-kanpoko moduan aurreko lanetan erabilitako beste erretrobirus batzuk erabili ziren, hala nola, BoEV (X99924), HERV-E (M10976), PERV (AJ293656), MPMV (NC_001550), IAPM (M17551), OMVV (NC_001511), FeFV (U78765), MuERV-L (Y12713), eta ZAM (AJ000387). Sekuentzia nukleotidikoak MAFFT 5.861 (Katoh et al., 2005) programa erabiliz (FFT-NS-1 aukera) lerrokatu ziren eta lerrokatzea Gblocks 0.91 (Castresana, 2000) programa erabiliz garbitu zen (programa honetan erabilitako aukerak: blokearen luzera minimoa: 5; baimendutako hutsuneak: erdiarekin; alboko posizioentzat sekuentzien kopuru minimoa: 58; ez-kontserbatutako aldameneko posizioen kopuru maximoa: 10). Hiru zuhaitz eraiki ziren: MEGA 3.1 (Kumar et al., 2004) programan implementatzen den Neighbor-Joining metodoa (aukerak: p-distantzia, bikote-ezabapena eta 1000 bootstrap), Phyml 2.4.4 (Guindon & Gascuel, 2003) programan implementatzen den sinesgarritasun maximoko metoda (aukerak: 1000 bootstrap, GTR+G eredu, $\alpha=1.98$, Modeltest 3.7 bidez estimatua (Posada & Crandall, 1998)) eta MrBayes 3.1 (Ronquist & Huelsenbeck, 2003) programan implementatzen den inferentzia Bayestar metoda (aukerak: 10^6 belaunaldi, eredu finkatu gabe) erabilita.

Zaldiaren ERVen familiak zuhaitz filogenetikoaren topologiarenean oinarrituta definitu

Zaldiaren erretrobirus endogenoen (ERV) detekzioa eta sailkapena

ziren. Duela gutxi ERVen izenak estandarizatzeko proposamena egin bada ere (Blomberg et al., 2009) familiak aurreko nomenklatura erabiliz izendatzea lehenetsi genuen. Hau da, beste espezieetan ingelesezko *human* (gizaki), *ovine* (ardi) eta *porcine* (txerri) erabili da ERVak izendatzeko. Beraz, *equine endogenous retrovirus* bezala izendatu ditugu lan honetan detektatutako ERVak eta EqERV akronimoa erabiltzea erabaki genuen.

Familietan sailkatu ziren ERVen insertzio-denbora estimatzeko, LTR_STRUC edota Retrotector[©] analisietatik lortutako LTRak erabili ziren. Estimazioa egiteko gizaki eta txinpantzeetan egindako analisietan oinarritutako LTRen dibergentzia erabili zen eta lan horretatik ondorioztatutako $2.3\text{--}5.0 \times 10^{-9}$ ordezkapen/leku/urte-ko tasa aplikatu zitzzion insertzio-denbora kalkulatzeko (Johnson & Coffin, 1999).

Familia bakoitzeko ordezkari gisa familiaren akordio-sekuentziatik gertuen zegoen ERVa aukeratu zen edo, akordioa-sekuentziarik egon ezean, stop kodoi gutxien zituen ERVa hartu zen ordezkartitzat. Familien akordioa-sekuentzia eraikitzeko familia bakoitzeko kideen sekuentzia aminoazidikoak ClustalW (Thompson et al., 1994) bidez lerrokatu ziren eta akordioa EMBOSS suitekoa den *cons* programaren bidez lortu zen (Rice et al., 2000). Hurbilen zegoen ERVa aukeratu ahal izateko, kide bakoitzaren sekuentziaren eta akordio-sekuentziaren arteko distantziak MEGA 3.1 erabiliz kalkulatu ziren (aukerak: No of differences eta pairwise deletion).


III.2.5. Interespezie-konparaketa

Zaldiaren ERVen familien eta beste espezieen ERVen familien arteko erlazioa aztertzeko zuhaitz filogenetiko bat eraiki zen. Gizakien ERVen 16 familien ordezkari (Tristem, 2000), txinpantzearen 38 (Polavarapu et al., 2006), saguaren 7 (Baillie et al., 2004) eta 17 (McCarthy & McDonald, 2004), arratoiaren 7 (Baillie et al., 2004), ardiaren 14 (Klymiuk et al., 2003), txerriaren 8 (Patience et al., 2001), behiaren 24 [II kapitulua] eta zaldiaren 15 (lan hau) erabili ziren. Sekuentziak MAFFT erabiliz (linsi aukera) lerrokatu ziren eta sekuentzien erdian baino gehiagotan hutsunea agertzen zuten posizioak baztertu ziren. Zuhaitza MrBayes 3.1an implementatzen den inferentzia Bayestarra erabiliz (10^6 belaunaldi, RtREV matrizea+G+I) eraiki zen.

III.3. Emaitzak

III.3.1. Detekzioa

Equus caballus-en genomaren EquCab2 bertsioan detektatutako balizko ERVen kopurua metodoz metodo desberdina izan zen (III-1. irudia): BLASTen oinarritutako bilaketan 378 ERV detektatu ziren (III-1. irudi gehigarria), LTR_STRUCen 291 LTRdun elementu (III-2. irudi gehigarria) eta



III-1. irudia: Aztertutako zaldiaren bi genoma-bertsioetan detektatutako elementu-kopurua (zirkuluen tamainarekiko) eta elementu komunak (gainjartzen den azalera) irudikatzen dituen Venn diagrama.

51 Aztertutako bi bertsioen zirkuluen tamaina proportzionala da, hortaz, bertsio biak erka daitezke.

Retrotector©-ek 1615 balizko ERV (III-3. irudi gehigarria). LTR_STRUC-en kasuan 5. eta 20. kromosoman programak arazoak eman zituen eta, hortaz, 5. kromosoman 2 megabase (47.442.909 eta 49.840.140 posizioen artean) eta 20. kromosoman 5 megabase (27.099.849 eta 32.083.080 posizioen artean) aztertu gabe gelditu ziren.

ERV gutxi batzuk hiru metodoen bitartez detektatuak izan ziren EquCab2 genomaren bertsioan (31 ERV). BLASTen oinarritutako bilaketan detektatutako ERV asko Retrotector©-en bidez ere detektatu ziren (257 ERV). LTR_STRUCek detektatutako LTRdun elementu gutxi batzuk beste metodoek detektatu zitzuten (BLAST-en oinarritutakoarekin batera 1, Retrotector©-ekin batera 51). Azkenik, Retrotector©-ek bakarrik detektatutako ERVak asko izan ziren (1276 elementu). EquCab1ekin konparatuz, oro har, detektatutako ERV kopurua txikiagoa izan bazen ere, antzeko proportzioak lortu ziren. (III-1 .irudia).

III-2. taula: Zaldiaren genoma-bertsio bakoitzean detektatutako elementu-kopuruen arteko ezberdintasuna.

Ezb: EquCab2 - EquCab1 arteko ezberdintasuna; %: (EquCab2 - EquCab1)*100/ EquCab1.

Kr	Analizatutako luzera Ezb (Mb)	BLAST %	LTR_STRUC Ezb	Retrotector© %
1	+6	(+3,33)	+3 (+9.37)	-1 (-5.88)
2	+15	(+14,15)	+1 (+8.33)	+7 (+100)
3	+9	(+8,18)	+3 (+27.27)	0
4	+11	(+11,22)	0	0
5	+27	(+36,99)	+10 (+142.85)	+8 (+72.72)
6	+3	(+3,66)	+1 (+8.33)	+5 (+100)
7	+13	(+15,12)	+9 (+60)	+2 (+20)
8	+7	(+8,05)	-1 (-5.55)	0
9	+8	(+10,53)	+4 (+25)	-1 (-11.11)
10	+5	(+6,33)	-1 (-3.70)	-2 (-18.18)
11	+3	(+5,17)	+3 (+30)	+3 (+30)
12	+14	(+73,68)	+2 (+40)	+2 (+100)
13	+26	(+152,94)	+3 (+42.85)	+5 (+500)
14	+2	(+2,17)	0	+2 (+15.8)
15	+4	(+4,55)	+1 (+8.33)	+1 (+11.11)
16	0		0	+2 (+28.57)
17	+2	(+2,53)	-1 (-10)	-1 (-25)
18	+19	(+29,69)	+4 (N/A)	+4 (+200)
19	+4	(+7,14)	-1 (-12.5)	+2 (+50)
20	+6	(+10,34)	+2 (+22.22)	+3 (+33.33)
21	+5	(+9,43)	+2 (+33.33)	+2 (+66.66)
22	0		-1 (-11.11)	+1 (+50)
23	+15	(+36,59)	0	-1 (-25)
24	0		-1 (-14.28)	+1 (+33.33)
25	+5	(+14,29)	+2 (+28.57)	-3 (-50)
26	+1	(+2,44)	-1 (-20)	+2 (+66.66)
27	+27	(+69,23)	+4 (+66.66)	+6 (+120)
28	-10	(-17,86)	+1 (N/A)	+1 (+20)
29	+2	(+6,25)	+1 (+33.33)	+1 (N/A)
30	+10	(+50)	-1 (-50)	+1 (+100)
31	0		0	-2 (-25)
X	+93	(+300)	+24 (+300)	+38 (+1900)
Guztira	+332	(+16,08)	+72 (+23.52)	+90 (+44.77)
				+425 (+35.71)

EquCab1 eta EquCab2 bertsioak erkatuz, EquCab2 genoma-bertsioan BLASTekin 72 (%23,52 gehiago), LTR_STRUCekin 90 (%44,77) eta Retrotector©-ekin 425 (%35,71) elementu gehiago detektatu ziren 332 Mb gehiagotan (EquCab1 bertsioaren konparatuz, %16,08 gehiago). Hala ere, kromosomaz-kromosoma ezberdintasunak egon ziren, kromosomaren arabera elementu gehiago edo gutxiago detektatu baitziren (III-2. taula)

III-3. taula: Metodo bakoitzak detektatutako elementuak EquCab2 genoma-bertsioan.

Kr.	Aztertutako luzera (Mb)	n	den	BLAST			LTR_STRUC			Retroector®		
				χ^2 test	G-test	p-balioa ^a	n	den	p-balioa ^a	G-test	p-balioa	G-test
1	186	35	0,19	0,2758	0,2891	0,1458	16	0,09	0,1262	0,6208	0,6185	
2	121	13	0,11	0,1531	0,1304	0,8447	14	0,12	0,8435	0,4583	0,4525	
3	119	14	0,12	0,2591	0,2382	0,4899	12	0,10	0,5023	0,6323	0,6294	
4	109	11	0,10	0,1265	0,1027	0,3580	10	0,09	0,3373	0,7598	0,7610	
5	100 ^b	17	0,17	0,7516	0,7545	0,0367*	19	0,19	0,0537	0,73	0,73	0,4840
6	85	13	0,15	0,9105	0,9100	0,9119	10	0,12	0,9115	0,58	0,2559	0,2542
7	99	24	0,24	0,0301*	0,0439*	0,9873	12	0,12	0,9873	0,0004***	0,0009***	
8	94	17	0,18	0,5641	0,5728	0,8671	12	0,13	0,8671	0,6691	0,6665	
9	84	20	0,24	0,0589	0,0784	0,4782	8	0,10	0,4614	0,0247*	0,0179*	
10	84	26	0,31	0,0004***	0,0016**	0,6960	9	0,11	0,6901	0,0015**	0,0028**	
11	61	13	0,21	0,2696	0,2942	0,0383*	13	0,21	0,0607	0,6243	0,6200	
12	33	7	0,21	0,4279	0,4513	0,9228	4	0,12	0,9928	0,0040*	0,0016*	
13	43	10	0,23	0,2422	0,2437	0,7360	6	0,14	0,7418	0,7037	0,7069	
14	94	10	0,11	0,2012	0,1752	0,2837	15	0,16	0,3055	0,63	0,5785	
15	92	13	0,14	0,6864	0,6812	0,7142	10	0,11	0,7093	0,64	0,6990	
16	87	11	0,13	0,4545	0,4390	0,6181	9	0,10	0,6091	0,45	0,0091*	
17	81	9	0,11	0,2828	0,2573	0,0262*	3	0,04	0,0094**	0,53	0,1110	
18	83	4	0,05	0,0106*	0,0028**	0,1886	6	0,07	0,1557	0,47	0,0213	
19	60	7	0,12	0,4176	0,3958	0,6247	6	0,10	0,6139	0,50	0,0968	
20	64 ^b	11	0,17	0,7722	0,7753	0,0888	12	0,19	0,0964	1,06	0,0001***	
21	58	8	0,14	0,7012	0,6951	0,4322	5	0,09	0,4075	0,60	0,5090	
22	50	8	0,16	0,9669	0,9670	0,2059	3	0,06	0,1612	0,52	0,1807	
23	56	5	0,09	0,1921	0,1559	0,1389	3	0,05	0,0965	0,50	0,1089	
24	47	6	0,13	0,6005	0,5882	0,4671	4	0,09	0,4422	0,38	0,0142*	
25	40	9	0,23	0,2797	0,3095	0,3927	3	0,08	0,3578	0,78	0,4315	
26	42	4	0,10	0,3038	0,2673	0,995	5	0,12	0,9594	0,40	0,0321*	
27	66	10	0,15	0,8980	0,8973	0,2890	11	0,17	0,3148	0,56	0,2161	
28	46	1	0,02	0,0190*	0,0033**	0,8648	6	0,13	0,8663	0,33	0,0037**	
29	34	4	0,12	0,5537	0,5352	0,1201	0,03	0,0624	24	0,71	0,8182	
30	30	1	0,03	0,0843	0,0361*	0,3842	2	0,07	0,3413	0,40	0,0660	
31	25	5	0,20	0,5924	0,6072	0,5475	2	0,08	0,5211	0,24	0,0079**	
X	124	32	0,26	0,0039**	0,0078**	0,0000***	40	0,32	0,0000***	179	1,44	0,0000***
Guz	2397	378	0,16	0,0001***	291	0,12	0,0001***			1615	0,67	0,0000***

Kr, kromosoma; n: kopuru; den: dentitatea (elementu/MB); a Kromosoma bat gainontzeko kromosomen aurka; * p<0,05, ** p<0,01, *** p<0,001

^b LTR_STRUC-en kasuan, 5. kromosoman 98Mb eta 20. kromosoman 59Mb

III-4. taula: Metodo bakoitzak detektatutako elementuen egitura EquCab2 genomaren bertsioan.

Egitura	Retrotector©	LTR_STRUC	BLAST	Guztira ^a
LTR - RT - LTR	865 (%53,56)	39 (%13,40)	-	877 (%45,04)
GAG - POL - ENV	1235 (%76,47)		54 (%14,29)	
GAG - POL	298 (%18,45)		76 (%20,11)	
GAG - ENV	26 (%1,61)		29 (%7,67)	
POL - ENV	38 (%2,35)		219 (%57,94)	
GAG	11 (%0,68)			
POL	4 (%0,25)			
ENV	2 (%0,12)			
Besteak	1 (%0,06)			
<i>pol</i> presentzia	1575 (%97,52)	39 (%13,40)	349 (%92,33)	
<i>pol</i> absentzia	40 (%2,48)	252 (%86,90)	29 (%7,67)	
Guztira	1615	291	378	1947

^a ERVs ez erredundanteak

Detectatutako ERVen banaketa zaldiaren EquCab2 genoma-bertsioan (hemendik aurrerako analisiak egingo erabiliko dena) ezberdina izan zen metodo bakoitzean (III-3. taula). BLASTen oinarritutako bilaketan 7., 10. eta X kromosomek banaketa homogeneo batean itxaron daitekeena baino ERV gehiago zituzten, 18., 28. eta 30. kromosomek, aldiz, gutxiago. LTR_STRUCen kasuan, 5. eta 11. eta X kromosomek itxaron zitezkeenak baino LTRdun elementu gehiago azaldu zituzten χ^2 froga estatistikoan; 17. kromosoman, aldiz, esangarriki elementu gutxiago egon ziren. Azkenik, Retrotector©-en emaitzetan 7., 10., 12., 20. eta X. kromosometan itxarotakoak baino gehiago zeuden eta 9., 16., 24., 26., 28., 30. eta 31. kromosometan gutxiago.


Lehen aipatutako LTR_STRUCen χ^2 bidez detectatutako 5. eta 11. kromosomak izan ezik, banaketa homogeneoa ez zuten gainontzeko kromosometan aldentze hau esangarria izan zen erabilitako bi test estatistikoetan, χ^2 eta G-test frogetan hain zuzen ere. Hiru metodoetan aurkitutako elementuen banaketa, G-test bidez testatua, ez zela esangarriki homogeneoa ondorioztatu zen.

Banaketa ez homogeneoaz gain, detectatutako ERVen kopuruek kromosomaren tamainarekin korrelazio sendoa azaldu zuten hiru metodoetan (BLASTen Spearman-en $\rho=0.8093$, $p<0.001$; LTR_STRUCen $\rho=0.8503$, $p<0.001$; eta Retrotector©-en $\rho=0.9068$, $p<0.001$). Bestalde, ERVen kopuruek ez zuten kromosomaren GC edukiarekin, kromosomaren gene dentsitatearekin eta pseudogene dentsitatearekin korrelazio esangarririk azaldu.

III.3.2. Zaldien ERVen sailkapena

Analisi honetan sartu ziren ERVak honakoak izan ziren: behintzat bi metodoz detectatua izan zirenak eta euren *pol* genea >500 nukleotidoko luzera izan zutenak. Hainbat erretrobirus endogeno eta exogeno eta ondo kontserbatutako elementuen *pol* geneko RT eskualdearekin egindako zuhaitz filogenetikoan oinarrituta detectatutako elementu gehienak I klasekoak zirela ondoriozta daiteke, II eta III klasekoak urriagoak izanda (III-2. Irudia).

EqERV (*Equine endogenous retrovirus*) bezala izendatutako zaldien ERVak, analisi filogenetikoan lortutako zuhaitzaren arabera familietaan sailkatu ziren. Metodo filogenetikoen sendotasunean oinarrituta I klaseko 9 familia, II klaseko 4 familia eta III klaseko 2 familia definitu ziren. Familia hauetatik bat ERV bakartiz osotua zegoen (EqERV10), beste ERVekin erlazio esangarririk gabeko elementua. Talderik handienak EqERV4 eta EqERV15 izan ziren, 14 eta 16 ERVekin bakoitzaz hurrenez hurren (III-5. Taula).



III-2. irudia: RT eskualdean oinarritutako EqERV-en zuhaitz filogenetikoa.

Topologia Neighbor-Joining metodoan oinarrituta dago (p-distance, 1000 bootstrap). *Drosophilaren ZAM* elementua erro gisa erabili zen. Nodoen gainean NJ eta ML bootstrap balioak erakusten dira eta azpian ondorengo probabilitate Bayestarra.

III.3.2.1. I klasearekin erlazionaturiko familiak. (EqERV1-EqERV9)

Familia hauen gehiengoa hainbat ERVz osotuta zegoen. EqERV1 eta EqERV4 familiak ERV gehien zitzuztenak izan ziren (9 eta 14 ERVz hurrenez hurren) (III-5. taula). EqERV4 eta EqERV5 familietan izan ezik, non ERVen dibergentzia aldakorra izan zen eta erlazio erradiala azaltzen zuten, talde bakoitzeko ERVen arteko erlazioa politomikoa izan zen eta dibergentzia handia azaldu zuten (2. irudia). Klase honetako familia gehienetan ordezkariek *pol* geneko RT eskualdeko LPQG motiboa mantentzen zuten, hainbat aldaarekin familia batzuen ordezkarien kasuan. EqERV8 eta EqERV9 familiek, aldiz, sekuentzia nahiko ezberdina azaldu zuten. Era berean, I klaseko familiek YVDD motiboa eta motibo honen aldaera ezberdinak azaldu zitzuten; EqERV8 familiaren kasuan, indel baten ondorioz, irakurtaraua aldatua zegoen eta, hortaz, gainontzeko familien ordezkariekin konparatuta, ezberdina izan zen. (III-4. irudi gehigarria). Luzerari dagokionez, I klaseko ERVen luzera-heina 8319 base eta 10837 artekoa izan zen, ERVerik luzeena EqERV3 familiakoa izan zen (11421 base) eta laburrena EqERV9-koa (6695 base). Txertaketa-datari dagokionez (III-5. taula), estimazioa egin ahal izan zen familietan, familia berriena EqERV7 izan zen, familiaren ERVerik zaharrena duela 52 eta 24 miloi urte artean txertatu baitzen. Familiarik zaharrena EqERV4 izan zen,

bere kiderik zaharrena orain dela 208 eta 96 miloi urte artean txertatu baitzen. Gainera, familia honek, hots EqERV4, I klasekoen artean txertatu den ERVrik gazteena azaldu zuen, orain dela 2 eta 1 milioi urte artean txertatutako.

III-5. taula: Detektatutako EqERV familiak.

Familiak behintzat bi metodok eta euren *pol* genea >500 nukleotido zuten EqERVekin definitu ziren. Kide bakarreko familien kasuan bakarrik luzeraren media adierazten da. Hainbat familieta txertaketa -data eta ordezkarriaren PBSa ezin izan ziren aurresan. Kr, kromosoma.

Familia	Detektatutako ERV kopurua	Luzera (base)			ERV ordezkarria ^a Kr:hasi-bukatu (harizpia)	Txertaketa-data (ODMU)	
		Media	Heina	PBS		Zaharrena	Gazteena
I Klasea							
EqERV1	9	10676	9922-11288	Tyr	X:53124020-53135308 (+)	71-32	46-21
EqERV2	2	8319	7006-9632	-	7:57912315-57919321 (-)	-	-
EqERV3	6	10837	10028-11421	Tyr	1:27393305-27404726 (+)	77-35	6-3
EqERV4	14	10153	8101-11173	Pri	2:11712828-11722965 (+)	208-96	2-1
EqERV5	7	9714	7525-10351	Ser	10:12944449-12951974 (+)	75-35	30-14
EqERV6	2	8604	7241-9966	-	23:17901636-17911602 (+)	-	-
EqERV7	4	9170	7222-9885	Ser	X:69210501-69217723 (+)	52-24	44-20
EqERV8	2	10007	9918-10095	-	8:3817901-3827996 (-)	97-44	38-18
EqERV9	7	9358	6695-10287	-	20:8848093-8857767 (+)	172-79	41-19
III Klasea							
EqERV10	1	9449	-	-	29:25492571-25502020 (+)	-	-
EqERV11	9	8990	7188-10983	-	24:27348691-27357972 (+)	179-82	50-23
II Klasea							
EqERV12	3	10577	9879-11956	Lys	5:16125272-16135151 (-)	4-2	1-0.399
EqERV13	2	8336	7503-9168	Lys	13:7964465-7973633 (+)	12-5	12-5
EqERV14	3	9635	9579-9664	Lys	3:25617539-25627203 (-)	40-18	2-1
EqERV15	16	9349	8772-11245	Tyr	1:29475995-29484899 (-)	180-83	10-4

^a Elementurik hurbilena familiaren kontsentsu sekuentziatik.

III.3.2.2. II klasearekin erlazionaturiko familiak. (EqERV12-EqERV15)

Klase honetan EqERV15 familia izan zen ERV kopuru handiena izan zuen taldea (III-5. taula). Klase honetako familien ERVen arteko erlazioa erradiala zen eta, oro har, dibergentzia ez zen oso handia izan (2. irudia). Klase honetako familien ordezkariek, oro har, LPQG motiboa mantendu zuten eta YVDD motiboaren lekuan, aldiz, YMDD motiboa azaldu zuten familia gehienek. (III-4. irudi gehigarria). II klasean, ERVen luzera-heina 8336 eta 10577 base artekoa izan zen. ERVrik luzeena EqERV12 familian aurkitu zen (11956 base) eta laburrenra EqERV13-n (7503 base). II klaseko familien artean, EqERV12 familia txertatzen berriena izan zen (III-5. taula), bere ERVrik zaharrenaren txertaketa orain dela 4 eta 2 miloi urte artean gertatu zela estimatu baikuenetan eta familiarik zaharrena EqERV15 familia izan zen, 180 eta 83 milioi urte arteko ERV bat familia honetako kiderik zaharrena baitzen. Klase honen barruan, EqERV12 familiak txertaketarik gazteena izan zuen, orain dela 1 eta 0.399 milioi urte artean txertatutako ERVa.

III.3.2.3. III klasearekin erlazionaturiko familiak. (EqERV10-EqERV11)


Klase honekin erlazioa zuten ERV gutxi detektatu ziren eta bi familiatan sailkatu ziren (III-5. taula). EqERV10 familia elementu bakartia izan zitekeen ERV batez osotua dago, hala ere, familia honek esperimentalki lortu ziren zaldiaren ERVekin (AJ233652 - AJ233656) erlazio urruna azaldu zuen. Familia horretako gainontzeko ERVen dibergentzia altua izan zen (III-2. irudia). EqERV10 familiako ordezkarriak LPQG motiboa kontserbatua zuen eta YMDD motiboaren YIDD aldaera. EqERV11 familiak, aldiz, LSQG eta YIND motiboak azaldu zituen (III-4. irudi gehigarria). III klaseko familien artean, ERVrik luzeenak (10983 base) eta laburrenak (7188 base) EqERV11 familiar detektatu ziren. III klasean EqERV11 familiaren txertaketa-data estimatzea posible izan zen bakarrik (III-5. taula), txertaketarik zaharrena orain dela 179 eta 82 miloi urte artean gertatu zen eta berriena orain dela 50 eta 23 miloi urte artean.

III.3.3. Espezie ezberdinaren arteko erlazio filogenetikoak

Espezie ezberdinako ERVen zuhaitz filogenetikoan, lan honetan definitutako EqERV familien ordezkariek beste espezietako ERVekin erlazioa azaldu zuten (III-3. irudia).

Zaldiaren erretrobirus endogenoen (ERV) detekzioa eta sailkapena

Espezie ezberdinako ERVak argi banatu ziren hiru klaseetan eta, orokorrean, ERVen erlazio filogenetikoa jatorrizko espeziearen erlazio filogenetikoa jarraitu zuten. EqERV5, 6, 7, 8, 9, 10, 11 familiak txinpantze eta gizakien ERVekin batera agertu ziren modu sendoan eta EqERV4 familia gizaki eta txinpantzeen ERVekin agertzen bada ere, topologiak ez zuen sendotasun estatistiko nahikorik izan. EqERV1, 2, 3, 12 familiak behiaren ERVekin batera agertu ziren modu sendoan eta EqERV13, 14, 15 familien kasuan, behiarekin azaldu zuten erlazioak ez ziren esangarriak izan.



III-3. irudia: Espezie ezberdinako ERVen RT eskualdean oinarritutako errota gabeko zuhaitz filogenetikoa.

Inferentzia bayestarra, 10^6 belaunaldi. Adarretan ondorengo probabilitate Bayestarra adierazten da.

III.3.4. Behiaren eta zaldiaren ERVen detekzioen konparaketa

Behian egindako detekzioarekin konparatuz (III-6. taula), zaldian erabilitako hiru metodoek ERV gutxiago detektatu zituzten, BLASTek 2,4 aldiz gutxiago, LTR_STRUCek 15,42 aldiz gutxiago eta Retrotector©-ek 6,01 aldiz gutxiago. Elementu hauek, antzeko proportzioetan, genoman duten presentzia txikiagoa izan zuten ere (BLASTen 2,25 aldiz gutxiago; LTR_STRUCen 14,75 aldiz gutxiago; Retrotector©-en 6,40 aldiz gutxiago).

ERVen klasiei dagokiela (III-6. taula), behian ez bezala, BLAST metodoaren bidez zaldian III klaseko ERVak detektatu ziren. Metodo honen bitartez, zaldian I klaseko ERV gutxiago detektatu ziren eta II klasekoak behian duten antzeko proportzioan. Bestalde, Retrotector©-en kasuan, zaldian eta behian detektatutako ERVak antzeko proportzioan klase ezberdinatan sailkatu ziren. Familiei dagokionez, behian baino familia gutxiago detektatu ziren, behian 24 familia detektatu baitziren eta zaldian 15.

ERVen banaketa genomikoa metodoz metodo aldatzen bada ere, banaketa homogeneotik aldendu ziren kromosoma-kopurua antzekoa izan zen. Behian gertatu zen bezala, banaketa orokorra ez zen homogeneoa izan (III-6. taula).

Genoma osoko ERVen bilaketak burutu diren gainontzeko espeziekin konparatuz (III-2. taula gehigarria), zaldian detektatutako ERV kopurua txikiagoa izan zen erabilitako metodo guztieta. Era berean, ERV hauen luzera genoma osoarekiko beste espezietan baino txikiagoa izan zen. Klasez klaseko banaketan, I klasekoak gailendu ziren, primateetan bezala eta III klasekoak beste espezietan baino gutxiago. Familia-kopurua ere beste espezietan baino txikiagoa izan zen. Azkenik, gizakian bezala, ERVen banaketa kromosomikoa ez zen homogeneoa izan (III-2. taula gehigarria).

III-6. taula: Behiaren eta zaldiaren ERVen detekzioaren konparazioa.

Espeziea	Behia ^d			Zaldia (EquCab2) ^e		
Familiak	24			15		
Metodoa	BLAST	LTR_STRUC	Retrotector©	BLAST	LTR_STRUC	Retrotector©
Kopurua	928	4487	9698	378	291	1615
Estaldura ^a	0.36	1.77	4.29	0.16	0.12	0.67
Klaseak (%)	81.78 II III Sailkatzeke	18.22 0	61.67 12.81 1.25 24.27	70.94 ^f 20.51 ^f 8.55 ^f		63.42 ^g 11.27 ^g 2.04 ^g 22.97 ^g
Banaketa kromosomikoa ^b	Gehiago Gutxiago	2, X 2	3 4	5, X 7	2, X 3	2, X 1
						4, X 7

- Daturik ez.

^a Portzentaia sekuentziatutako genomaren arabera kalkulatu zen.

^b Banaketa homogeneo batekin konparatuta, itxarotakoak baino gehiago edo gutxiago. Autosomiko kopurua adierazi da.

^c II kapitulua. ^d lan hau.

^f III-2. irudian identifikatutako elementuetan oinarritu da kalkulua

^g Retrotector©-en sailkapenean oinarritura. Sailkatzeke, bi edo hiru klasetan sailkatu ziren ERVen proportzioa.

III.4. Eztabaida

Lan honetan zaldiaren genoman erretrobirus endogenoen (ERV) detekzioa izan da lehenengo helburua. Hortaz lehen eztabaida puntu detekzioa bera da. Lan honetan behian burututako ERVen detekzioaren [II kapitulua] erkaketarako informazio baliagarría ematen digu.

Behiaren kasuan esan bezala [II kapitulua], lan honetan aurkezten diren emaitzak benetako ERVen kopuruaren azpiestima izan daitezke. Behiaren kasuan informazio kromosomikoa erabiltzeak azpiestima honen arrazoitzat hartu genuen, analizatu gabe gelditzen ziren *contigen* ondorioz. Analisi honetan bi genoma-bertsio analizatzeko aukeran oinarritura ideia honetan sakondu dezakegu. X kromosoma aipatutakoaren adibide argia da. EquCab1 bertsioan *contig* gutxi batzuk zeuden kokatuta eta EquCab2 bertsioan X kromosoma *contig* gehiagoren informazioarekin hornitu zen. Informazio-handitze hori detekzioan islatzen da eta, ondorioz, detektatutako ERV kopurua nabarmenki handitu zen, BLASTen oinarritatutako detekzioan ERVen kopurua %300an emendatuz, LTR_STRUCen %1900an eta Retrotector©-en %477.41an.

Honetaz gain, bilaketa-estrategiak (programak barne) hartu genituen detekzioaren beste mugatzat. Zaldiaren genoman behiaren genoman programa bakoitzak zuen errendimenduari buruzko orokortasun batzuk errepikatu ziren eta beste batzuk ez. Programa bakoitzak aurkitu zituen ERVen egituren antzeko emaitzak lortu ziren. Oro har, behian ikusitako orokortasunak zaldiaren bi genoma-bertsiotan errepikatu ziren: metodo bakoitzak detektatzen dituen “elementu oso”-en proportzioa antzekoa izan zen, LTR_STRUCek *pol* gabeko elementu gehiago detektatu zituen, gainontzeko metodoetan *pol*dun elementuak gailentzen ziren bitartean. Zaldian behian baino *pol*dun elementuen proportzioa handiagoa izan zen behiarekin konparatuta. Bestalde, Retrotector©-ek eta LTR_STRUCek detektatutako elementuen egituren proportzioak, bai behian zein zaldiaren bi bertsioetan antzekoak izan ziren.

Zaldiaren erretrobirus endogenoen (ERV) detekzioa eta sailkapena

Aipatutako antzekotasunez gain ezberdintasun batzuk nabarmendu ziren ere. Alde batetik zaldian BLASTen oinarritutako metodoaren bidez LTR_STRUC programarekin baino balizko ERV gehiago detektu ziren. Behian, aldiz, kontrakoa gertatu zen. Bestetik, BLASTen bidez detektatutako ERVen egitura zaldien genoma-bertsio ezberdinan antzeko proportzioa azaldu bazuten ere, behiarekin alderatuz proportzioak ezberdinak izan ziren.

Behian gertatu zen bezala, ERVen banaketa homogeneo batetik aldentzen ziren kromosomak ezberdinak izan ziren metodoz metodo. Are gehiago, informazio hau zaldiaren genomaren bertsio batetik bestera aldatu zen. Hortaz, ERVen banaketa homogeneoaren analisia zeharo detekzioaren menpekoa da, hots, erabilitako metodoa eta eskuragarri dagoen informazioaren menpekoa. Hala ere, gizakian (Villesen et al., 2004) eta behian [II kapitulua] gertatzen den bezala, zaldiaren X kromosomak banaketa homogeneo batean baino ERV gehiago edukitzea oso esangarria izan zen. Gertaera honen arrazoia argi ez badago ere, bi ikerketa kontutan hartu beharko genitzke. Alde batetik, gizakiaren X kromosomaren %29a L1 LINE familiaz osotuta dago (Ross et al., 2005) eta elementu errepiakor honen presentzia mamaliotan X kromosomaren inaktibazioarekin lotua izan da (Bailey et al., 2000; Ross et al., 2005). Bestetik, gizakiaren ERV familia bat, HERV-W deitutakoa hain zuzen ere, LINEen bidez ugaritu direla jakina da (Belshaw et al., 2005). Hortaz, bi behaketa hauek uztartuz, LINEen eraginez ERVak X kromosoman itxarotakoa baino kopuru altuagoan agertzea posible izan daiteke.

Metodo bakoitzak detektatutako elementu kopuruek kromosomen tamainarekin korrelazioa azaldu zuten baina ez euren GC eduki, gene-dentsitate eta pseudogene-dentsitatearekin. Behiaren analisiarekin alderatuz, behian detektatutako elementu-kopurua eta GC edukiaren arteko korrelazio negatiboaren [II kapitulua] detekzioa izan zen ezberdintasun bakarra.

Detektatutako ERVak hiru klase erretrobiraletan sailkatu ziren. Lehendik, esperimentalki II (Hecht et al., 1996) eta III (Benit et al., 1999) klaseko ERVak ezagunak ziren. I klaseko ERVak, ornodun gehienetan bezala, gehiengoa osotzen badute ere, hemen lehen aldiz aurkezten da euren detekzioa. RT eskualdea kontserbatuta zuten ERVak eta esperimentalki lortu ziren ERVak (Benit et al., 1999) ez zuten erlazio esturik izan. Hala ere, sekuentzia horiek EqERV10 familiarekin erlazioa zutela ikusi da eta, agian, familia horretan barneratu daitezke.

Espesie ezberdinako ERV ordezkarien zuhaitzean zaldiaren familien ordezkarriak bi eratan banatu ziren: gizaki/txinpantzeekin multzokatzen zirenak eta behiarekin multzokatzen zirenak. III klaseko ERVen kasuan behiarekin batera ez agertzea ez da harritzeko, alde batetik, sekuentzia gutxi eskuragarri zeudelako eta, bestetik, euren jatorria mamaliotan nahiko antzinakoa izan daitekeela aditzera eman delako (Herniou et al., 1998; Benit et al., 1999). I klaseko familien kasuan primate/zaldi erlazio honek jakin-mina sortzen du. Inferentzia bayestarrean erlazio hori guztiz sendoa da baina ML bidezko analisian talde hau ez da agertu. Datu hauekin ezin daiteke jakin taldekaren hau artefaktu bat den, antzeko ERV biren infekzio independente bat den edo transmisio horizontal bat den. Gainontzeko familien kasuan, behi eta zaldien arteko erlazioa itxarotekoa da, biak Laurasiatheria super ordeneko kideak baitira. Hots, espesie hauek ahaideak diren heinean, ERVen arteko erlazioa aitzinekoia izatea itxaron daiteke.

Zaldian egon daitezkeen ERVak beste espesieekin konparatzerakoan, zaldian ERV gutxi detektatu zirela argi dago; txakurra eta katuan bezain gutxi edo gutxiago. Talde filogenetiko bereko espesieak aztertzekoan gizaki/txinpantze, sagu/arratoi, txakur/katu euren artean ezberdintasun gutxi ikusi ziren. Hala ere, taldeen artean ezberdintasunak zeuden. Hots, talde filogenetiko bakoitzean gertatzen dena genoma bakoitzaren dinamikaren menpe egon daitekeela dirudi (Jern & Coffin, 2008; Stocking & Kozak, 2008).

Bestalde, espesie batek jaso dituen infekzio erretrobiralen historia eta horiei aurre egiteko gaitasuna euren genoman dute isla, ERVak erregistro “fosila” bilakatuz (Kaiser et al., 2007; Gifford et al., 2008). Adibidez, txinpantzean agertzen den PtERV1/CERV1 familia ez da gizakian agertzen.

ERV hori “berpiztuz”, hots, familia horren arbasoaren sekuentzia berreraikiz eta infektagarri bilakatuz, txinpantzearen zelulak infektatzeko gaitasuna azaldu zuen. Gizakian, aldiz, infektatzeko gaitasun oso murriztua izan zuen (Kaiser et al., 2007). Ezberdintasun hau ostalariaren defentsa-mekanismoarekin lotu zen, gizakiaren TRIM5 α proteinak ERV horren aurrean txinpantzearenak baino eraginkortasun handiagoa azaldu baitzuen (Kaiser et al., 2007). Hortaz, behar bada, zaldiak beste espeziek baino infekzio erretrobiralekiko esposizioa txikiagoa izan delako edota horien aurrean defentsa-erantzun hobea izan duelako, ERV gutxiago detektatzen dira.

Birusen infekzioen dinamikarekin eta animalien bizimoduarekin lotuta, goriletan ebola birusarekin egindako eredu simulatuetan (Nunn et al., 2008) hainbat parametrok infekzioaren garapenarekin lotura dutela aditzera eman zuten. Ebola transmisio zuzena duen patogeno birulentoa da eta eredu hau goriletan aztertu bazen ere, eta zaldiaren populazioak naturala ez badira ere, egitura sozial finkoa duen edozein populazio ostalarian aplikatu daitekeela iradokitzen dute egileek. Infekzio-hedapenaren eredu honetatik lortu zen ondorio interesgarri bat taldeen egitura sozialean zegoen. Simulazioak ar bat eta hainbat emeet osotutako gorila taldekin burutu ziren. Talde ezberdin arteko infekzioa emeen kopuruak baldintzatu zezakeela aditzera eman zen, batez ere taldea sei emez baino gehiagoz osotuta bazegoen. Kasu horietan, infekzioaren ondorioz arra hiltzen bazen, eme horiek beste talde batzuetara joaten ziren eta, ondorioz, infekzioa zabaltzeko probabilitatea handiagoa zegoen. Horrela, sei emez baino gehiagoz osotutako taldeek, infekzioen kasuetan, beste taldeetara infekzioa eramateko arrisku handiagoa zutela ondorioztatu zuten (Nunn et al., 2008). Zaldiek ere halako taldeak osatzen zituzten (Sorin, 2001) eta, honek, eraginaren bat izan dezake erretrobirusen hedapenarekin.

Behiaren eta zaldiaren genomen artean ikusten diren ezberdintasunak ulertzeko beste faktore gako bat etxekotze-prozesua izan daiteke. Bi espezieen etxekotze prozesua ezberdina izan da: behia orain dela 8.000-10.000 urte artean etxekotu zen, bi gertaera independentetan (Loftus et al., 1994) eta zaldia orain dela 2000-4500 urte artean, eta bere etxekotze prozesuan hainbat populazio ezberdinek parte hartu zuten (Jansen et al., 2002). Zaldiaren kasuan, detektatu ziren ERVen artean eta euren txertaketa-data estimatzea posible izan zirenen artean, guztiak etxekotzea gertatu baino lehenagokoak izan ziren, behian ez bezala, non etxekotze-prozesu ostean txertatu diren ERVak detektatu ziren. Hortaz, ezin daiteke baztertu etxekotze prozesu ezberdinek infekzioen dinamikan eragitea eta, ondorioz, ERVak genoma jakin batean txertatzeko probabilitatea. Gainera, etxekotu diren animalien taldeen tamaina kontutan hartu behar da: behiak talde handiagotan aurkitzen baitira eta zaldiak talde txikiagotan. Elementu transposakorren kopurua populazioaren tamainaren eta zorizko prozesuen menpekoa izan daitekeela proposatu denez (Biemont & Vieira, 2006) taldeen tamainen eragina ezin daiteke baztertu.

Laburbilduz, lan honetan zaldiaren genoman lehen ERVen bilaketa sistematikoa aurkeztu da. Antzoko moduan aztertutako genometan baino ERV gutxiago detektatu dira zaldian, honek, genoma bakoitzean edo, behintzat, talde taxonomiko ezberdinako genometan ERVen txertaketa ezberdina dela adieraz lezake. Hortaz, orain ikusten dugun ERVen kopurua talde taxonomiko bakoitzak jaso dituen infekzio erretrobiralen menpekoa izan daiteke.

III.5. Bibliografia

- Altschul, S., T. Madden, A. Schaffer, J. Zhang, Z. Zhang, W. Miller, and D. Lipman.** 1997. Gapped BLAST and PSI-BLAST: a new generation of protein database search programs. *Nucleic Acids Research* **25**:3389-3402.
- Bailey, J., L. Carrel, A. Chakravarti, and E. Eichler.** 2000. Molecular evidence for a relationship between LINE-1 elements and X chromosome inactivation: The Lyon repeat hypothesis. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America* **97**:6634-6639.
- Baillie, G., L. van de Lagemaat, C. Baust, and D. Mager.** 2004. Multiple groups of endogenous betaretroviruses in mice, rats, and other mammals. *Journal of Virology* **78**:5784-5798.
- Belshaw, R., A. Katzourakis, J. Paces, A. Burt, and M. Tristem.** 2005. High copy number in human endogenous retrovirus families is associated with copying mechanisms in addition to reinfection. *Mol Biol Evol* **22**:814-817.
- Benit, L., J. Lallemand, J. Casella, H. Philippe, and T. Heidmann.** 1999. ERV-L elements: a family of

Zaldiaren erretrobirus endogenoen (ERV) detekzioa eta sailkapena

- endogenous retrovirus-like elements active throughout the evolution of mammals. *Journal of Virology* **73**:3301-3308.
- Biemont, C. and C. Vieira.** 2006. Genetics: Junk DNA as an evolutionary force. *Nature* **443**:521-524.
- Boeke, J. and J. Stoye.** 1997. Retrotransposons, endogenous retroviruses, and the evolution of retroelements, p. 343-435. In J. Coffin, S. Hughes, and H. Varmus (eds.), *Retroviruses*. Cold Spring Harbor Laboratory Press, Cold Spring Harbor, NY.
- Castresana, J.** 2000. Selection of conserved blocks from multiple alignments for their use in phylogenetic analysis. *Mol Biol Evol* **17**:540-552.
- Gifford, R., P. Kabat, J. Martin, C. Lynch, and M. Tristem.** 2005. Evolution and distribution of class II-related endogenous retroviruses. *Journal of Virology* **79**:6478-6486.
- Gifford, R., A. Katzourakis, M. Tristem, O. Pybus, M. Winters, and R. Shafer.** 2008. A transitional endogenous lentivirus from the genome of a basal primate and implications for lentivirus evolution. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America* **105**:20362-20367.
- Griffiths, D. J.** 2001. Endogenous retroviruses in the human genome sequence. *Genome Biol* **2**:REVIEWS1017.
- Guindon, S. and O. Gascuel.** 2003. A simple, fast, and accurate algorithm to estimate large phylogenies by maximum likelihood. *Systematic Biology* **52**:696-704.
- Hecht, S., K. Stedman, J. Carlson, and J. DeMartini.** 1996. Distribution of endogenous type B and type D sheep retrovirus sequences in ungulates and other mammals. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America* **93**:3297-3302.
- Herniou, E., J. Martin, K. Miller, J. Cook, M. Wilkinson, and M. Tristem.** 1998. Retroviral diversity and distribution in vertebrates. *Journal of Virology* **72**:5955-5966.
- Huda, A., N. Polavarapu, I. Jordan, and J. McDonald.** 2008. Endogenous retroviruses of the chicken genome. *Biology Direct* **3**.
- Jansen, T., P. Forster, M. A. Levine, H. Oelke, M. Hurles, C. Renfrew, J. +. Weber, and K. Olek.** 2002. Mitochondrial DNA and the origins of the domestic horse. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America* **99**:10905-10910.
- Jern, P. and J. Coffin.** 2008. Effects of Retroviruses on Host Genome Function. *Annual Review of Genetics* **42**:709-732.
- Johnson, W. and J. Coffin.** 1999. Constructing primate phylogenies front ancient retrovirus sequences. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America* **96**:10254-10260.
- Kaiser, S. M., H. S. Malik, and M. Emerman.** 2007. Restriction of an Extinct Retrovirus by the Human TRIM5(Kaiser et al., 2007) Antiviral Protein. *Science* **316**:1756-1758.
- Katoh, K., K. Kuma, H. Toh, and T. Miyata.** 2005. MAFFT version 5: improvement in accuracy of multiple sequence alignment. *Nucleic Acids Research* **33**:511-518.
- Katzourakis, A., M. Tristem, O. Pybus, and R. Gifford.** 2007. Discovery and analysis of the first endogenous lentivirus. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America* **104**:6261-6265.
- Klymiuk, N., M. Muller, G. Brem, and B. Aigner.** 2003. Characterization of endogenous retroviruses in sheep. *Journal of Virology* **77**:11268-11273.
- Kumar, S., K. Tamura, and M. Nei.** 2004. MEGA3: Integrated software for molecular evolutionary genetics analysis and sequence alignment. *Briefings in Bioinformatics* **5**:150-163.
- Loftus, R. T., D. E. MacHugh, D. G. Bradley, P. M. Sharp, and P. Cunningham.** 1994. Evidence for two independent domestications of cattle. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America* **91**:2757-2761.
- McCarthy, E. and J. McDonald.** 2003. LTR_STRUC: a novel search and identification program for LTR retrotransposons. *Bioinformatics* **19**:362-367.
- McCarthy, E. and J. McDonald.** 2004. Long terminal repeat retrotransposons of *Mus musculus*. *Genome Biology* **5**.
- Nunn, C., P. Thrall, K. Stewart, and A. Harcourt.** 2008. Emerging infectious diseases and animal social systems. *Evolutionary Ecology* **22**:519-543.
- Patience, C., W. Switzer, Y. Takeuchi, D. Griffiths, M. Goward, W. Heneine, J. Stoye, and R. Weiss.** 2001. Multiple groups of novel retroviral genomes in pigs and related species. *Journal of Virology* **75**:2771-2775.
- Polavarapu, N., N. Bowen, and J. McDonald.** 2006. Identification, characterization and comparative genomics of chimpanzee endogenous retroviruses. *Genome Biology* **7**.
- Posada, D. and K. Crandall.** 1998. MODELTEST: testing the model of DNA substitution. *Bioinformatics* **14**:817-818.
- R Development Core Team.** 2008. R: A language and environment for statistical computing. R Foundation for Statistical Computing, Vienna, Austria.
- Rice, P., I. Longden, and A. Bleasby.** 2000. EMBOSS: The European molecular biology open software suite. *Trends in Genetics* **16**:276-277.
- Ronquist, F. and J. Huelsenbeck.** 2003. MrBayes 3: Bayesian phylogenetic inference under mixed models.

Bioinformatics 19:1572-1574.

- Ross, M., D. Grafham, A. Coffey, S. Scherer, K. McLay, D. Muzny, M. Platzer, G. Howell, C. Burrows, C. Bird, A. Frankish, F. Lovell, K. Howe, J. Ashurst, R. Fulton, R. Sudbrak, G. Wen, M. Jones, M. Hurles, T. Andrews, C. Scott, S. Searle, J. Ramser, A. Whittaker, R. Deadman, N. Carter, S. Hunt, R. Chen, A. Cree, P. Gunaratne, P. Havlak, A. Hodgson, M. Metzker, S. Richards, G. Scott, D. Steffen, E. Sodergren, D. Wheeler, K. Worley, R. Ainscough, K. Ambrose, M. Ansari-Lari, S. Aradhya, R. Ashwell, A. Babbage, C. Bagguley, A. Ballabio, R. Banerjee, G. Barker, K. Barlow, I. Barrett, K. Bates, D. Beare, H. Beasley, O. Beasley, A. Beck, G. Bethel, K. Blechschmidt, N. Brady, S. Bray-Allen, A. Bridgeman, A. Brown, M. Brown, D. Bonnin, E. Bruford, C. Buhay, P. Burch, D. Burford, J. Burgess, W. Burrill, J. Burton, J. Bye, C. Carder, L. Carrel, J. Chako, J. Chapman, D. Chavez, E. Chen, G. Chen, Y. Chen, Z. Chen, C. Chinault, A. Ciccodicola, S. Clark, G. Clarke, C. Clee, S. Clegg, K. Clerc-Blankenburg, K. Clifford, V. Cobley, C. Cole, J. Conquer, N. Corby, R. Connor, R. David, J. Davies, C. Davis, J. Davis, O. Delgado, D. DeShazo, P. Dhami, Y. Ding, H. Dinh, S. Dodsworth, H. Draper, S. Dugan-Rocha, A. Dunham, M. Dunn, K. Durbin, I. Dutta, T. Eades, M. Ellwood, A. Emery-Cohen, H. Errington, K. Evans, L. Faulkner, F. Francis, J. Frankland, A. Fraser, P. Galgoczy, J. Gilbert, R. Gill, G. Glockner, S. Gregory, S. Gribble, C. Griffiths, R. Grocock, Y. Gu, R. Gwilliam, C. Hamilton, E. Hart, A. Hawes, P. Heath, K. Heitmann, S. Hennig, J. Hernandez, B. Hinzmann, S. Ho, M. Hoff, P. Howden, E. Huckle, J. Hume, P. Hunt, A. Hunt, J. Isherwood, L. Jacob, D. Johnson, S. Jones, P. de Jong, S. Joseph, S. Keenan, S. Kelly, J. Kershaw, Z. Khan, P. Kioschis, S. Klages, A. Knights, A. Kosiura, C. Kovar-Smith, G. Laird, C. Langford, S. Lawlor, M. Leversha, L. Lewis, W. Liu, C. Lloyd, D. Lloyd, H. Lousegued, J. Loveland, J. Lovell, R. Lozano, J. Lu, R. Lyne, J. Ma, M. Maheshwari, L. Matthews, J. McDowall, S. McLaren, A. McMurray, P. Meidl, T. Meitinger, S. Milne, G. Miner, S. Mistry, M. Morgan, S. Morris, I. Muller, J. Mullikin, N. Nguyen, G. Nordsiek, G. Nyakatura, C. O'Dell, G. Okwuonu, S. Palmer, R. Pandian, D. Parker, J. Parrish, S. Pasternak, D. Patel, A. Pearce, D. Pearson, S. Pelan, L. Perez, K. Porter, Y. Ramsey, K. Reichwald, S. Rhodes, K. Ridler, D. Schlessinger, M. Schueler, H. Sehra, C. Shaw-Smith, H. Shen, E. Sheridan, R. Shownkeen, C. Skuce, M. Smith, E. Sotheran, H. Steingrubler, C. Steward, R. Storey, R. Swann, D. Swarbreck, P. Tabor, S. Taudien, T. Taylor, B. Teague, K. Thomas, A. Thorpe, K. Timms, A. Tracey, S. Trevanion, A. Tromans, M. d'Urso, D. Verduzco, D. Villasana, L. Waldron, M. Wall, Q. Wang, J. Warren, G. Warry, X. Wei, A. West, S. Whitehead, M. Whiteley, J. Wilkinson, D. Willey, G. Williams, L. Williams, A. Williamson, H. Williamson, L. Wilming, R. Woodmansey, P. Wray, and J. Yen. 2005. The DNA sequence of the human X chromosome. *Nature* 434:325-337.
- Smit, AFA, Hubley, R, and Green, P. RepeatMasker Open-3.0. 2004. Ref Type: Internet Communication
- Sorin, A. "Equus caballus" (On-line). Animal Diversity Web . 2001. Ref Type: Electronic Citation
- Sperber, G., T. Airola, P. Jern, and J. Blomberg.** 2007. Automated recognition of retroviral sequences in genomic data - RetroTector (c). *Nucleic Acids Research* 35:4964-4976.
- Stephens, R., J. Casey, and N. Rice.** 1986. Equine Infectious-Anemia Virus gag and pol genes - relatedness to Visna and AIDS virus. *Science* 231:589-594.
- Stocking, C. and C. Kozak.** 2008. Murine endogenous retroviruses. *Cellular and Molecular Life Sciences* 65:3383-3398.
- Thompson, J., D. Higgins, and T. Gibson.** 1994. Clustal-W - Improving the sensitivity of progressive multiple sequence alignment through sequence weighting, position-specific gap penalties and weight matrix choice. *Nucleic Acids Research* 22:4673-4680.
- Tobaly-Tapiero, J., P. Bittoun, M. Neves, M. C. Guillemin, C. H. Lecellier, F. Puvion-Dutilleul, B. Gicquel, S. Zientara, M. L. Giron, H. de The, and A. Saib.** 2000. Isolation and Characterization of an Equine Foamy Virus. *J. Virol.* 74:4064-4073.
- Tristem, M.** 2000. Identification and characterization of novel human endogenous retrovirus families by phylogenetic screening of the Human Genome Mapping Project database. *Journal of Virology* 74:3715-3730.
- Villesen, P., L. Aagaard, C. Wiuf, and F. S. Pedersen.** 2004. Identification of endogenous retroviral reading frames in the human genome. *Retrovirology* 1.
- Wade, C. M., E. Giulotto, S. Sigurdsson, M. Zoli, S. Gnerre, F. Imsland, T. L. Lear, D. L. Adelson, E. Bailey, R. R. Bellone, H. Blocker, O. Distl, R. C. Edgar, M. Garber, T. Leeb, E. Mauceli, J. N. MacLeod, M. C. T. Penedo, J. M. Raison, T. Sharpe, J. Vogel, L. Andersson, D. F. Antczak, T. Biagi, M. M. Binns, B. P. Chowdhary, S. J. Coleman, G. la Valle, S. Fryc, G. Guerin, T. Hasegawa, E. W. Hill, J. Jurka, A. Kialainen, G. Lindgren, J. Liu, E. Magnani, J. R. Mickelson, J. Murray, S. G. Nergadze, R. Onofrio, S. Pedroni, M. F. Piras, T. Raudsepp, M. Rocchi, K. H. Roed, O. A. Ryder, S. Searle, L. Skow, J. E. Swinburne, A. C. Syvanen, T. Tozaki, S. J. Valberg, M. Vaudin, J. R. White, M. C. Zody, Broad Institute, Broad Institute Whole Genome Assembly Team, E. S. Lander, and K. Lindblad-Toh. 2009. Genome Sequence, Comparative Analysis, and Population Genetics of the Domestic Horse. *Science* 326:865-867.

III.6. Eranskina

III-1. taula gehigarria: Metodo bakoitzak detektatutako elementuen egitura EquCab1 genomaren bertsioan.

Egitura	Retrotector®	LTR_STRUC	BLAST	Guztira ^a
LTR - RT - LTR	646 (%54,29)	29 (%14,43)	-	655 (45,45%)
GAG - POL - ENV	911 (%76,55)		41 (%13,40)	
GAG - POL	224 (%18,82)		57 (%18,63)	
GAG - ENV	16 (%1,35)		29 (%9,48)	
POL - ENV	31 (%2,61)		179 (%58,60)	
GAG	5 (%0,42)			
POL	2 (%0,17)			
Besteak	1 (%0,08)			
<i>pol</i> presentzia	1168 (%98,15)	29 (%14,43)	277 (%90,52)	
<i>pol</i> absentzia	22 (%1,85)	172 (%85,57)	29 (%9,48)	
Guztira	1190	201	306	1441

^a ERV ez erredundanteak.

III-2. taula gehigarria: Espezie ezberdinetako ERVen banaketa eta sailkapena


Kopurua ^a	Estaldura (%) ^a	Klaseak (%)			Families	Banaketa kromosomikoa ^b
		I	II	III		
Gizakia (Repeatmasker)	203000 ^c	4.64 ^c	62.28 ^c	6.68 ^c	31.03 ^c	Klase guztiak 350 ^d / 26 ^{ef}
Txinpantzea ^h (LTR_STRUC)	425 oso	-	-	-	-	Klase guztiak 42
Makakoa ⁱ (Repeatmasker)	919	-	-	-	-	Klase guztiak 8
Sagua (Repeatmasker / BLAST)	-	4.4 ^j	15.46 ^j	71.13 ^j	13.18 ^j	Klase guztiak 20 ^k / II klasea 7 ^l
Arratoia (Repeatmasker / BLAST)	-	5.05 ^m	19.21 ^m	64.16 ^m	16.63 ^m	II klasea 7 ^l
Txakurra (Repeatmasker) ⁿ	-	1.80	33.8	0	66.12	-
Katua (Repeatmasker) ^o	-	2.3	45.6	1.74	52.61	-

- Daturik ez.

^a Posible denean ERV kopurua azaltzen da, bestela genomaren estalduraren portzentzia erakusten da. Portzentzia sekuentziatutako genomaren arabera kalkulatu zen.


^b Banaketa homogeneo batekin konparatuta, itxarotakoak baino gehiago edo gutxiago. Autosomikoen kourua adierazi da.

^c International Human Genome Sequencing Consortium, 2001. ^d Paces et al., 2002. ^e Bénit et al., 2001. ^f Tristem, 2000. ^g Villesen et al., 2004. ^h Polavarapu et al., 2006. ⁱ Han et al., 2007. ^k McCarthy et al., 2004. ^l Baillie et al., 2004. ^m Rat Genome Sequencing Project Consortium, 2004. ⁿ Lindblad-Toh et al., 2005. ^o Pontius et al., 2007.




III-1. irudi gehigarria: BLAST bidez detektatutako ERVen kokapen kromosomikoa.
Kromosomen gainean (-) harizpia, azpian (+) harizpia.


Zaldiaren erretrobirus endogenoen (ERV) detekzioa eta sailkapena



III-2. irudi gehigarria: LTR_STRUC bidez detektatutako LTRdun elementuak. Kromosomen gainean (-) harizpia, azpian (+) harizpia. Gorriz RT eskualdea detektatu dien elementuak.



III-3. irudi gehigarria: Retrotector© bidez detektatutako ERVak. Kromosomen gainean (-) harizpia, azpian (+) harizpia. Koloreetan Retrotector©-ek ERV bakoitzari egokitutako klasea: gorria, I klasea; berdea, II klasea, urdina III klasea; horia klase I edo II; magenta, klase I edo III; zian klase II edo III; grisa, zahaztugabe.



III-4. irudi gehigarria: EqERV familien ordezkarien RT eskualdearen lerrokatze partziala.

IV. Mamalioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa

IV.I. Sarrera

Erretrobirus endogenoak (ERV, *endogenous retrovirus*) ostalariaren hozi-lerroan txertatu diren erretrobirus exogenoen fase probiralak dira eta belaunaldietan zehar genoma ostalarian txertatuta mantendu dira. ERVak mamilio guzietan eta ornodunen hein zabal batean detektatuak izan dira eta euren egitura tipikoa hiru gene nagusiak (*gag*, *pol* eta *env*) dituen zati zentral batez eta albo bakoitzekoLTRetaz (*Long terminal repeats*) osatuta dago. Erretrobirus exogenoen generoekin duten erlazio filogenetikoaren arabera ERVak, orokorrean, 3 klasetan sailkatzen dira: I klasea, *Gammaretrovirus* eta *Epsilonretrovirus* generoekin erlazioa dutenak; II klasea, *Alpharetrovirus*, *Betaretrovirus*, *Deltaretrovirus* eta *Lentivirus* generoekin erlazionatutakoak; eta III klasea, *Spumavirusekin* erlazioa dutenak (Boeke & Stoye, 1997; Gifford et al., 2005).

Euren antzekotasun filogenetikoaren arabera, genoma bateko ERVak familiatan multzokatzen dira, hau da, erretrobirus exogeno baten jatorrizko infekziotik eratorritako kopiak izango liratekeen ERV multzoak. Hortaz, ERV familia hauek ostalariaren genoman kopuru aldakorrean agertzen dira, familia batzuk besteak baino ugariagoak izanik. Behin ostalariaren genoman txertatu direla, ERVak euren kopurua handitzeko gai dira. ERVek bi mekanismo nagusi erabiltzen dituzte euren buruaren kopiak egiteko eta genoma ostalarian ugaritzeko: erretrotransposizioa eta berrinfekzioa (Gifford & Tristem, 2003; Belshaw et al., 2004; Katzourakis et al., 2005).

Erretrotransposizioa deritzon mekanismoan, ERV batek, hozi-lerroko zelulatik irten gabe, bere burua erreplikatzeko du eta zelula horren genoman txertatzen da berriro. Mekanismo hau bi modutara gerta daiteke: *cis* eran, zeinean ERVak berak kodetutako geneak erabiltzen dituen bere burua kopiatzeko eta txertatzeko; eta *trans* eran, zeinean ERVak beste erretrobirus baten proteinak erabiltzen dituen. Berrinfekzioari dagokionez, ostalari berdinean, ERV batek bere burua kopiatzen du eta hozi-lerroko zelula batetik edo zelula somatiko batetik ateratzen da. Ondoren, hozi-lerroko zelula bat infektatzen du eta zelula honen genoman txertatzen da (Gifford & Tristem, 2003; Belshaw et al., 2004; Katzourakis et al., 2005).

ERVak bere burua erreplikatzeko erabiltzen duen mekanismoa ERVaren kontserbazio mailaren menpekoa da. Erretrotransposizioan, ERVa zelulatik ateratzen ez denez, *env* geneak ez du funtzionala izan behar. (i) *cis* eraren kasuan, ERVak bere proteinak erabiltzen dituen heinean, *gag* eta *pol* funtzionalak izatea beharrezkoa du. (ii) *trans* eran, aldiz, gene nagusiek ez dute funtzionalak izan behar, ERVak beste elementu batzuetatik lortzen baititu. Soilik promotorea eta eskualde gutxi batzuk (polipurina traktua eta hasle-loturaren gunea, adibidez) funtzionalak mantendu behar ditu. Azkenik, (iii) berrinfekzioan, ERVa zelulatik atera behar denez eta beste zelula bat infektatzen duenez, hiru gene erretrobiral nagusiak, hots, *gag*, *pol* eta *env*, funtzional mantendu behar ditu (Gifford & Tristem, 2003; Belshaw et al., 2004; Belshaw et al., 2005; Katzourakis et al., 2005).

Hortaz, kopia-kopuruaren emendioa geneen funtzionaltasunaren arabera aztertzen den heinean, gene erretrobiral nagusien hautespena aztertzea beharrezkoa da. Behin ERVak genoma ostalarian txertatzen direla, gainontzeko material genomikoak jasaten dituen indar ebolutiboen menpe gelditzen dira (Jern & Coffin, 2008). Gainera, ERVen jatorri patogenikoa dela eta, mutazioak pilatzeko eta hautespena erlaxatzeko joera egon daitekela proposatu da (Gifford & Tristem, 2003). Hala ere, gorago aipatu bezala, hainbat ERVek erreplikatzeko gaitasuna mantentzeko gai dira, hots, euren geneek funtzionaltasuna mantentzeko hautespena dago. Mutazioen eragin txikiiena jasotzen duen gene erretrobirala *pol* da, eta honen barruan alderantzizko transkriptasa (RT) eskualdea, ERVen erreplikaziorako gakoa den entzima hain zuzen ere (Gifford & Tristem, 2003). Bestalde, *env* geneko TM eskualdeak ere kontserbazio-maila nahiko altua du erretrobirus ezberdinietan (Benit et al., 2001). Beraz, gene erretrobiralen bi eskualde hauek hautespen purifikatzalea jasan ohi dute.

Gizakiaren ERVetan egindako analisietai, gizakiaren genoman euren kopia-kopurua emendatzeko mekanismo nagusia berrinfekzioa izan dela aditzera eman da (Belshaw et al., 2004; Belshaw et al., 2005). Gainera, aztertu ziren ERVen zuhaitz filogenetikoa eraikitzerakoan, barneko adarrek

Mamalioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa

bukaerako adarrek baino hautespen maila altuagoa azaldu zuten, iraganean aktiboak ziren eta finkatuta ez zeuden ERVek jasandako hautespen presioarekin erlazionatu zena (Belshaw et al., 2004). Hala ere, kopia-kopuru handienak dituzten familiak transposizio bidez erreplikatu ziren, eta badirudi *trans* eraren bidez gertatu zela emendio hau (Belshaw et al., 2005). Gizakiaren ERVetaz gain, beste genoma batzuetan elementu hauen dinamika ez da oso ezaguna.

Erretrobirus exogenoetan, bai gene erretrobiral ezberdin arteko errekonbinazioa zein gene barruko errekonbinazioa detektatu da. Mekanismo hau aldakortasunaren iturri izan daitekeela eta funtzioko berreskuratzeko baliagarria izan daitekela proposatu da (Robertson et al., 1995; Vogt, 1997). Euren kide endogenoetan, ordea, mekanismo hau gutxi aztertu bada ere, hainbat adibide aurki ditzakegu. Adibidez, txerriaren ERVen *env* genearen kasuan (Lee et al., 2008), *env* genearen aldaerek euren artean naturalki errekonbinatzen dutela ikusi da, eta gizakiaren ERV familia baten (HERV-V familiar, alegia) *env* geneak konbertsio genikoa jasan duela ondorioztatu da (Kjeldbjerg et al., 2008). Espezie hauen ERV familia batzuetan ere *pol* genea aztertu da (Belshaw et al., 2004; Klymiuk et al., 2006). Lan hauetan ERV gutxi batzuen sekuentzia-errekonbinazioa detektatu zen edota hainbat ERVen sekuentzia errekonbinazioz sortu zirela ondorioztatu zen.

Behiaren [II kapitulua] eta zaldiaren [III kapitulua] genometan ERVak detektatu ditugula, egokia dirudi ERV hauen dinamika ebolutiboa aztertzea. Horretarako gene erretrobiral ezberdin errekonbinazio intergenikoa, errekonbinazio intragenikoa eta hautespna erabiliko dira ERVen kopia-kopuruaren emendioa eta kontserbazioa aztertzeko. Gainera, beste genoma batzuetan gertatzen dena ezagutzeko, ondo sekuentziatutako beste hainbat mamalioetan dauden ERVen dinamika ebolutiboa ere aztertuko da.

IV.2. Material eta metodoak

Behiaren eta zaldiaren genomez gain, sekuentzia-estaldura altua duten beste 5 mamalioen genomak aztertu ziren: gizakia, txinpantzea, sagua, arratoia eta txakurra (IV-1. taula).

IV-1. taula: Azertutako genomen laburpena.

Espeziea	Bertsioa	Estaldura	Helbidea
Gizakia (<i>Homo sapiens</i>)	NCBI 36	10X	ftp://ftp.ensembl.org/pub/current_fasta/homo_sapiens/dna/
Txinpantzea (<i>Pan troglodytes</i>)	Pan_troglodytes-2.1	6X	ftp://ftp.ensembl.org/pub/current_fasta/pan_troglodytes/dna/
Sagua (<i>Mus musculus</i>)	NCBI m37	7X	ftp://ftp.ensembl.org/pub/current_fasta/mus_musculus/dna/
Arratoia (<i>Rattus norvegicus</i>)	RGSC 3.4	5X	ftp://ftp.ensembl.org/pub/current_fasta/rattus_norvegicus/dna/
Txakurra (<i>Canis familiaris</i>)	CanFam 2.0	7,6X	ftp://ftp.ensembl.org/pub/current_fasta/canis_familiaris/dna/
Behia (<i>Bos taurus</i>)	Btau_3.1	7,2X	http://www.hgsc.bcm.tmc.edu/projects/bovine/index.html
Zaldia (<i>Equus caballus</i>)	EquCab2	6,8X	ftp://ftp.ensembl.org/pub/current_fasta/equus_caballus/dna/

IV.2.1. ERVen detekzioa eta aukeraketa

Aipatutako mamalioen genoma guztietatik erretrobirus endogenoak (ERV) lortzeko amu-sekuentzia gisa ondo karakterizatutako 12 erretrobirus exogenoen *gag* eta *env* geneetako sekuentzia aminoazidikoak erabili ziren (IV-2. taula). *pol* genearen kasuan erretrobirus klase bakoitzeko sekuentzia bat erabili zen, MLV (Murine Leukemia Virus), MPMV (Mason-Pfizer monkey virus) (Baillie et al., 2004) eta BFV (Bovine Foamy Virus) erretrobirusetatik hain zuzen ere. Erabilitako amu-sekuentziak, *pol* genearen kasuan RT (alderantzizko transkriptasa) eskualdearenak izan ziren eta *env* genearen kasuan TM (transmintza) eskualdearenak. Mamalioen genometan gene erretrobiralen sekuentziak NCBI-BLAST 2.2.14 programako (Altschul et al., 1997) tBLASTn metodoarekin bilatu ziren. Bilaketa hauen emaitzak PHPn idatzitako script-en bidez prozesatuak izan ziren.

ERV posibleak eraikitzeko gene bakoitzaren emaitzak lotu ziren. Bilaketarako erabilitako 12 erretrobirusetan oinarrituta amu-sekuentzien distantziak kalkulatu ziren. Distantzia horien mugen

barruan, gutxienez, bi gene erretrobiral agertzen baziren, eskualde hori ERV moduan definitu zen. Modu honetan detektatutako ERVetatik *gag*, *pol* eta *env* geneak zituzten elementuak aukeratu ziren analisiak egiteko, beti ere *pol* genea 500 nukleotido baino luzeagoa bazeen.

Hautatutako ERVetan LTRak detektatzeko saiakera egin zen. Horretarako sekuentziak 5000bp urgora eta urbehera luzatu ziren eta LTR_STRUC programa (McCarthy & McDonald, 2003) erabili zen sekuentzia horietan zehar LTRen bikoteak aurkitzeko.

IV-2. taula: Bilaketa genomikoa burutzeko erabilitako erretrobirusak, amu-sekuentzian posizioa eta sekuentzien arteko distantzia

Izena	Generoa	Ostalaria	Accession Number	Amu-sekuentziaren posizioa			Amu-sekuentzien arteko distantziak			
				<i>gag</i>	<i>pol</i>	<i>env</i>	hasiera- <i>gag</i>	<i>gag-pol</i>	<i>pol-env</i>	<i>env-</i> bukatu
I klasoa										
GALV	Gammaretrovirus	<i>Hylobates</i>	NC_001885	1255-1888		6998-7555	1255	846	3508	533
MLV	Gammaretrovirus	Muridae	NC_001501	1020-1653	2520-3276	6920-7457	1020	867	3644	875
FeLV	Gammaretrovirus	Felidae	NC_001940	1516-2149		7323-7860	1516	822	3593	588
II klasoa										
JSRV	Betaretrovirus	<i>Ovis aries</i>	NC_001494	1347-1667		6502-7111	1347	1444	2830	351
MMTV	Betaretrovirus	Muridae	NC_001503	1181-1774		6786-7362	1181	1194	3077	1443
BLV	Deltaretrovirus	<i>Bos taurus</i>	NC_001414	790-1362		5760-6158	790	572	2874	2261
HTLV	Deltaretrovirus	<i>Homo sapiens</i>	NC_001436	889-1455		5765-6269	889	780	2786	2238
EIAV	Lentivirus	<i>Equus caballus</i>	NC_001450	945-1562		7235-7867	945	807	4107	492
HIV	Lentivirus	<i>Homo sapiens</i>	NC_001802	1035-1401		7727-8261	1035	765	4805	920
Visna	Lentivirus	<i>Ovis aries</i>	NC_001452	973-1566		8176-8806	973	620	5237	396
III klasoa										
HSRV	Spumavirus	<i>Homo sapiens</i>	NC_001795	2111-2750		8788-9399	2111	868	4456	2555
BFV	Spumavirus	<i>Bos taurus</i>	NC_001831	2016-2652	3487-4204	8903-9515	2016	835	4699	2487
Bataz beste ± desbideratze estandar							1373±564	868±217	3851±799	1410±962

Espezie bakotzeko ERVak izendatzeko ondoko datuak erabili ziren: zein kromosometan detektatu zen eta kromosoman zuen ordena erabili ziren. Kokapenak IV-1. taula gehigarrian kontsulta daitezke.

IV.2.2. Analisien planteamendua

Aukeratutako ERVak aztertzeko, espeziez espezie eta gene bakotzean (hots, *gag*, *pol* eta *env*) aukeratutako sekuentziak eta, taldez-kanpoko bezala, *Drosophilaren* ZAM elementua (AJ000387) lerrokatu ziren MAFFT programaren (Katoh et al., 2005) (linsi aukera) bitartez eta Gblocks programa (Castresana, 2000) erabilita kontserbatutako posizioak lortu ziren (programa honetan erabilitako aukerak: blokearen luzera minimoa: 5; baimendutako hutsuneak: erdiarekin; alboko posiziontzat sekuentzien kopuru minimoa: datu-multzo bakotzaren erdia; ez-kontserbatutako aldameneko posizioen kopuru maximoa: 10). Gizakiaren, saguaren, txinpantzearen eta arratoiaren kasuan, lerroketa honetan %95ko identitatea baino handiago zuten ERVak ezabatu ziren eta datu multzoan oso antzekoak ziren ERVetatik bakarra utzi zen.

Hautatutako ERVen erlazio filogenetikoak aztertzeko 3 gene erretrobiral nagusiak (*gag+pol+env*) batera erabili ziren. Horretarako MrBayes 3.1 programa (Ronquist & Huelsenbeck, 2003) erabili zen (10^6 belaunaldi eta eredu ebolutiboa finkatu gabe izan ziren erabilitako aukerak).

Zuhaitz filogenetiko honetan oinarrituta ERVen familia ezberdinak bildu ziren errekonbinazio intrageniko eta hautespenaren analisiak sakontzeko asmoz. Familien multzo hauetako metafamilia deitu diegu. Metafamiliak eraikiz, alde batetik, espezie ezberdinak arteko erkaketa erraztu nahi da, espezie bakotzean familiak modu ezberdinean definitu baitira; bestetik, errekonbinazioa antzeko ERVen artean gertatzea posible delako (Gifford & Tristem, 2003) eta metafamiliak erlazio filogenetiko sendoa zuten ERVak multzokatu ziren, familia ezberdinekoak baziren ere.

IV.2.3. ERVen kopia-kopuruaren emendioaren analisia

ERVen kopia-kopuruaren emendioa aztertzeko errekonbinazio intergenikoa eta zuhaitzean zehar barneko eta kanpoko adarrek zuten hautespena erabili ziren. Errekonbinazio intergenikoari esker ERV baten gene guztiek jatorri berdina duten jakin daiteke eta zuhaitzean zeharreko hautespenak aitzinean ERVek jasandako hautespen-presioari buruzko informazioa eskaintzen du.

IV.2.3.1. Errekonbinazio intergenikoa

Errekonbinazioa intergenikoa gertatu den ikusteko gene erretrobiralen analisi filogenetikoa erabili zen. Gene bakoitzaz osotuta eta 3 geneak batera hartuta kontserbatutako posizioez osotutako sekuentziekin 4 zuhaitz filogenetiko eraiki ziren inferentzia bayestarraren bidez: *gag*, *pol*, *env* eta *gag+pol+env* zuhaitz filogenetikoak. Honetarako MrBayes 3.1 programa (Ronquist & Huelsenbeck, 2003) erabili zen (10^6 belaunaldi eta eredu ebolutiboa finkatu gabe izan ziren erabilitako aukerak).

Parte zentraleko geneen analisiez gain, LTRak detektagarriak zituzten ERVetan LTR bien analisi filogenetikoa burtu zen. Honetarako, MrBayes 3.1 programa erabilita (10^6 belaunaldi eta eredu ebolutiboa finkatu gabe), ERVen 5'-LTR eta 3'-LTR eskualdeen inferentzia bayestarrean oinarritutako zuhaitz filogenetikoa eraiki zen. Analisi hauetan taldez kanpoko moduan *Drosophilaren* ZAM elementuaren LTRak erabili ziren. Era berean LTRak detektagarriak zituzten ERVen parte zentralaren, hots, *gag+pol+env* geneen zuhaitz filogenetikoa eraiki zen.

Honetaz gain, detektatutako LTRak ERVen insertzio-denbora estimatzeko erabili ziren. Hau egiteko LTRen ezberdintasun kopurua erabili zen eta $2.3\text{--}5.0 \times 10^{-9}$ ordezpen/leku/urte-ko tasa aplikatu zen insertzio-denbora kalkulatzeko (Johnson & Coffin, 1999).

IV.2.3.2. Hautespna zuhaitz filogenetiko mailan

Hautespna analizatzeko sekuentzia nukleotidikoek irakurtaraua mantentzea beharrezkoa zen, hautatutako elementuen sekuentzietai insertzio/delezioen presentzia dela eta. Hautatutako elementuen BLAST bilaketaz identifikaturiko aminoazido-sekuentziak MAFFT (Katoh et al., 2005) programaren bidez (linsi aukera) lerrokatu ziren. Lerrokatzea honetan oinarrituz, elementu bakoitzaren nukleotidoak lerrokatu ziren, tripleteak zegokion aminoazidoaren posizioan kokatuz eta horrela irakurtaraua mantenduz.

Hautatutako elementuen sekuentzia hauetan PAML3.15 programarekin (Yang, 1997) analizatu ziren dn/ds proportzioa (ω) kalkulatzeko. ds-k ordezkapen sinonimo leku sinonimoko adierazten du eta dn-k ordezkapen ez-sinonimo leku ez-sinonimoko. PAML programak kalkulu hauetan egiteko Goldman eta Yang-en eredu simplifikatu bat erabiltzen du (Yang, 1997). Analisiak burutzeko PAML programari sekuentzia nukleotidikoekin eraikitako Maximum-Likelihood zuhaitzak eman zitzakion. Zuhaitz hauetan Phym programaren (Guindon & Gascuel, 2003) bidez eraiki zen zen eta ordezkapen-ereduak kalkulatzeko Modeltest (Posada & Crandall, 1998) programa erabili zen.

Programa honekin adar guztietai ω berdina onartzen duen eredu eta barneko eta kanpoko adarrek ω ezberdina dutela onartzen duen eredu kalkulatu ziren. Euren artean eredu probableena aukeratzeko egiantz-arrazoi testa (*likelihood ratio test*) burtu zen.

IV.2.4. ERVen sekuentzietai baimendutako aldaketen analisia

ERVen sekuentzietai baimendutako aldaketak aztertzeko errekonbinazio intragenikoa eta sekuentzian zeharreko hautespna erabili ziren. Lehenak ERV ezberdinen arteko sekuentzien elkartrukeari buruzko informazioa eskaintzen digu eta bigarrenak sekuentzian mutazioak baimenduta ote daudenari buruzkoa.

IV.2.4.1. Errekonbinazio intragenikoa

Errekonbinazio intergenikoaren analisian erabilitako kontserbatutako posizioez osotutako sekuentziak erabili ziren errekonbinazio intragenikoa aztertzeko. Analisi honetarako *Drosophila*-ren ZAM elementua ez zen kontutan hartu.

Errekonbinazio intragenikoa aztertzeko metodo ezberdinak erabiltzea gomendagarria da (Posada, 2002). Horretarako oinari ezberdina duten bost metodo erabili ziren: bi filogenetiko, RDP (Martin & Rybicki, 2000) eta PLATO (Grassly & Holmes, 1997); eta ordezkapeneko hiru, Maxchi (Smith, 1992), Chimaera (Posada & Crandall, 2001) eta Geneconv (Sawyer, 1999). RDP, Maxchi eta Chimaera RDP3 programaren (Martin et al., 2005) bidez erabili ziren eta beste biak Geneconv (Sawyer, 1999) eta PLATO (Grassly & Holmes, 1997) erabilita.

Azkenengo programa honek, hots PLATOk, behar duen Maximum-Likelihood zuhaitza eraikitzeko Phym programa (Guindon & Gascuel, 2003) erabili zen eta bai PLATOk zein Phym-k

behar duten ordezkpan-ereduak kalkulatzeko Modeltest (Posada & Crandall, 1998) programa erabili zen.

Bai RDPn, zein Maxchi-n, Chimaera-n edota PLATOn konparazio anitzetarako Bonferroni zuzenketa erabili zen, emaitzen esangarritasunean zoriaren eragina ekiditeko. Geneconv-en, aldiz, Bonferroni zuzenketa erabili ahal izateko, lehengo 10000 permutazio egin ziren eta, eskaintzen zituen emaitza guztiatik, “Barneko zati globalak” (*Global inner fragments*) emaitzak kontutan hartu ziren, hots, gene konbertsioa aztertzeko erabilitako lerrokatzean zeuden sekuentzien artean estimatzen zuen emaitza eta esangarritasuna Bonferroni zuzenketaren bidez zuzentzen zituen emaitza mota.

RDP, Geneconv, Maxchi eta Chimaera metodoen errekonbinazio-gertaera eta erabilitako sekuentzia-kopuruaren arteko korrelazioa azterzeko R lengoia erabili zen (R Development Core Team, 2008).

IV.2.4.2. Haustespena sekuentzia-mailan

Gorago aipatu den moduan sekuentziak lerrokatu ostean, PAML programa erabiliz lau eredu ezberdin kalkulatu ziren sekuentzian zeharreko hautespena detektatzeko: M0 eredua (edo proportzio bakarrekoa), zeinetan sekuentzia osoan zehar eta adar guztiak ω bakarra dagoela onartzen den; M1 eredua (edo ia neutrala), zeinetan sekuentzian zehar $\omega < 1$ eta $\omega = 1$ duten lekuak daudela onartzen den; M2 eredua (edo positiboa), zeinetan sekuentzian zehar $\omega < 1$, $\omega = 1$ eta $\omega > 1$ duten lekuak daudela onartzen den; eta M3 eredua (edo diskretoa), zeinetan sekuentzian zehar mugatu gabeko hiru ω ezberdin daudela onartzen den. Egiantz-arrazoi testen bidez M0 eta M3 artean eta M1 eta M2 ereduenean artean eredu probableena aukeratu zen ($p < 0,05$).

IV.3. Emaitzak

IV.3.1. ERVen detekzioa eta aukeraketa

Espezie bakoitzean hautatutako erretrobirus endogenoen (ERV) kopurua, hots, hiru gene erretrobiralak kontserbatuta zutenak eta, beraz, lan honetan burututako analisientzat egokiak direnak, espeziez espezie aldakorra izan zen. ERV hauek hainbat metafamilietan (Mf) sailkatu ziren espezie bakoitzeko ERVen *gag+pol+env* zuhaitz filogenetikoan oinarrituta (IV-3. taula).

Metafamiliek analisietan sakontzea ahalbidetu zuten. Aurretik definitutako ERVen familiak ahalik eta modurik barneratzailenean taldekatzea izan zen metafamilia hauek eraikitzeko irizpidea eta, ondorioz, metafamilia bakoitzak kide-kopuru ezberdina izan zuen (IV-3. taula). Analizatutako ERV gehienak I klasean barneratzen dira eta, gutxi batzuk, II klasean (IV-3. taula). ERV hauen antzinatasunari dagokionez (IV-3. taula), hein zabala azaldu zuten.

IV.3.2. ERVen kopia-kopuruaren emendioa

ERVen kopia-kopuruaren emendioa aztertzeko errekonbinazio intergenikoa eta ERVen zuhaitz filogenetikoetan barneko eta kanpoko adarrek zuten hautespena erabili ziren, gene erretrobiralek jatorri berdina zuten eta funtzionalak mantentzen ote ziren jakiteko.

IV.3.2.1. Errekombinazio intergenikoa

Errekombinazio intergenikoaren analisirako oinarrizko hiru gene erretrobiralen zuhaitz filogenetikoak eraiki ziren (IV-1. - IV-21. irudi gehigarriak), bai batera zein banatuta. Zuhaitz hauen arteko desadostasunak, hots, sekuentzien erlazio filogenetiko ezberdinak, errekonbinazio intergenikoko gertaeren adierazle gisa erabili ziren. Ahal izan zen kasuetan, LTRen eta geneen zuhaitzak eraiki ziren ERVen LTRek eta geneek jatorri berdina ote zuten jakiteko.

Gizakia

Gizakiek hautatutako ERVen zuhaitz filogenetikoetan metafamiliek sendotasun estatistikorik azaldu ez bazuten ere, gizakiaren ERV batzuen geneek jatorri ezberdina azaldu zuten. (IV-1. irudia).

Mf4 metafamiliako chr7_13 ERVaren *env* genea ez zen metafamilia honetako gainontzeko ERVen *env* geneekin multzokatu. Mf2-ko chr13_45 eta chr8_137 ERVen *gag* geneak eta Mf1-eko chrY_36

Mamalioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa


ERVen *gag* geneak batera multzokatu ziren, euren jatorrizko metafamiliatik aldenduz. Mf6-n, hainbat ERVen *pol* geneek jatorri ezberdina izan zuten, gainontzeko ERVen *pol* geneekin ez taldekatuz. Azkenik Mf3 eta Mf5-ko ERVen geneek ez zuten historia ebolutibo ezberdinik azaldu.

LTRen eta zati zentralaren historia ebolutiboa aztertzeraoan (IV-5. irudia), Mf4-ko hainbat ERVen bi LTRak eta Mf6-ko 19_4 ERVaren 3'LTR-ak ez ziren euren kideekin multzokatu. Bestalde, Mf1 eta Mf3-ko ERVen LTRak zuhaitzetan zehar sakabanatuak agertu ziren.

IV-3. taula: Aztertutako ERVen ezaugarriak espezie eta metafamilia bakoitzean.

Mf-z kanpo, metafamilia batean sailkatu ez diren ERVak. Erlazionaturiko familiariak ez bazegoen klasea adierazten da. Txertaketa-denbora orain dela milioi urtetan (ODMU) adierazi da. -, ezin izan da txertaketa-denbora estimatu.


Espeziea	Kopurua	Erlazionatutako familia (Klasea)	Txertaketa-denbora (ODMU)	
			Heina	Bataz-bestekoa
<i>Homo sapiens</i>	246			
Mf1	28	HERV-E/RRHERV-I (I)	8-33	19,37
Mf2	17	HERV-K (II)	15-33	24
Mf3	22	HERV-I/ADP (I)	19-41	30,75
Mf4	50	HERV-F/XA/H (I)	5-63	23,18
Mf5	3	(I)	-	-
Mf6	123	ERV9/HERV-W (I)	4-81	27,06
Mf- z kanpo	3	(I)	-	-
<i>Pan troglodytes</i>	157			
Mf1	6	CERV12 (I)	47-101	74
Mf2	5	(I)	-	-
Mf3	29	CERV6/7/8 (I)	1-53	17,1
Mf4	12	CERV30/32/36/37/39 (II)	14-55	31
Mf5	16	CERV20/22/23/24/25/26 (I)	-	-
Mf6	6	CERV29 (I)	-	-
Mf7	83	CERV17/18 (I)	1-35	13,5
<i>Mus musculus</i>	114			
Mf1	11	(I)	-	-
Mf2	5	(I)	-	-
Mf3	9	(I)	0-3	1,08
Mf4	8	(I)	0-14	3,56
Mf5	9	(I)	1-13	5,75
Mf6	24	Mmr3_MuRRS (I)	1-54	11,1
Mf7	16	(I)	0-43	15,78
Mf- z kanpo	32	(I)	-	-
<i>Rattus norvegicus</i>	59			
Mf1	7	(I)	-	-
Mf2	24	(I)	0.2-5	4,18
Mf3	6	Mmr3_MuRRS (I)	1-2	1
Mf4	6	(I)	0-13	6,6
Mf5	5	(I)	7-15	11
Mf- z kanpo	11	(I)	-	-
<i>Canis familiaris</i>	23			
Mf1	5	(I)	-	-
Mf2	9	(I)	11-25	18
Mf3	6	(I)	1-3	2
Mf- z kanpo	3	(I)	-	-
<i>Bos taurus</i>	93			
Mf1	8	BoERV19/23/24 (II)	23-50	36,5
Mf2	8	BoERV9/10 (I)	13-33	21
Mf3	8	BoERV7/12/14/15/16 (I)	13-57	31,25
Mf4	30	BoERV3 (I)	10-57	27,25
Mf5	39	BoERV1 (I)	0.2-40	7,59
<i>Equus caballus</i>	22			
Mf1	9	EqERV4 (I)	1-34	13,25
Mf2	7	EqERV1/2/3 (I)	14-30	22
Mf3	5	EqERV12/13/15 (II)	4-10	7
Mf- z kanpo	1	EqERV5 (I)	-	-



IV-1. irudia: Aukeratutako gizakiaren ERVen gag+pol+env geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.

Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredu finkatu gabe. Taldekapen hauek jarraitu ez duten ERVak adierazi dira eta alboan zein genetan kutxa barnean jarri dira.

Mamolioen erretrobirus endogeno (ERV) dinamika ebolutiboa



LTR gag pol env LTR


IV-2. irudia: LTRak detektatu zaien gizakien ERVen 5'LTR, parte zentrala eta 3'LTR zuhaitz filogenetikoak.

Ezkerrean 5'LTR, erdian parte zentrala (gag+pol+env) eta eskuman 3'LTR. Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredua finkatu gabea. Koloretan metafamilia bakoitzeko ERVak.



IV-3. irudia: Aukeratutako txinpartzearen ERVen gag+pol+env geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.


Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredua finkatu gabe. Taldekapen hauek jarraitu ez duten ERVak adierazi dira eta alboan zein genetan kutxa barnean jarri dira.



IV-4. irudia: Aukeratutako saguaren ERVen *gag+pol+env* geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.

Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredu finkatu gabe. Taldekapen hauek jarraitu ez duten ERVak adierazi dira eta alboan zein genetan kutxa barnean jarri dira.


Mamolioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa



LTR gag pol env LTR

IV-5. irudia: LTRak detektatu zaien saguen ERVen 5'LTR, parte zentrala eta 3'LTR zuhaitz filogenetikoak.

Ezkerrean 5'LTR, erdian parte zentrala (gag+pol+env) eta eskuman 3'LTR. Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredua finkatu gabea. Koloretan metafamilia bakoitzeko ERVak.



IV-6. irudia: Aukeratutako arratoiaren ERVen gag+pol+env geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.

Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredua finkatu gabe. Taldekapen hauek jarraitu ez duten ERVak adierazi dira eta alboan zein genetan kutxa barnean jarri dira.

Txinpartzea

Txinpartzean erabilitako ERVetan, hainbat genek historia ebolutibo ezberdina izan zutela ikusi zen (IV-3. Irudia).

Mf1, Mf2 eta Mf6 metafamilieta hainbat ERVeren *env* geneak euren artean erlazio estuagoa azaldu zuten euren artean zegokien metafamiliakoekin baino. Mf3-n, hainbat *gag* gene eta chr17_12ko *env* genea ez ziren euren metafamiliakoekin multzokatu. Mf4-n, chr6_9 ERVaren *pol* genea metafamilia horren barruan beste kokapen batean agertu zen eta *env* genea Mf7-ko ERV batzuekin multzokatu zen. Mf5-eko chr14_3 ERVaren hiru geneak, bere kabuz aztertzerakoan, ez ziren modu berean taldekatu, gene bakoitzak erlazio ezberdina eduki baitzuen. Metafamilia honetan ere chr7_13 eta chr11_10 ERVen *gag* geneak beste ERV batzuekin elkartu ziren eta chr1_4ren *env* genea metafamiliako gainontzeko *enretatik* banatuta agertu zen. Azkenik, Mf7-n ez zen desadostasunik aurkitu.

Espezie honetan hainbat ERVeren LTRak identifikatu baziren ere, LTRen zuhaitz filogenetikoak ez zuen sendotasunik izan eta ez da aurkeztu.

Sagua

Geneak

Saguaren genomatik aukeratutako ERVen zuhaitz filogenetikoek hainbat genek jatorri ezberdina zutela adierazi zuten (IV-4. Irudia).

Metafamilieta ez sailkatutako hainbat ERVen geneek ere beste mota batzuetako erlazioak azaldu zituzten, bai *gag* zein *env* geneetan. Bestalde, Mf1 metafamiliako chr17_83-ren *gag* geneak metafamilia batean sailkatu gabeko chr9_45rekin erlazio estuagoa zuela zirudien, Mf3-ko chr4_15 ERVaren *env* genea ez zen bere metafamiliakoekin taldekatu eta Mf6-ko chr10_107 ERVaren *gag* geneak Mf3-koekin erlazio estuagoa zuela zirudien. Honetaz gain, Mf6 eta Mf7 metafamilieta, hainbat ERVren *env* geneak ez ziren gene horren zuhaitzean batera agertu, zuhaitzetik barreiatuta baizik. Azkenik, Mf2, Mf4 eta Mf5-en, aldiz, gene erretrobiralek ez zuten desadostasunik azaldu.

LTRak eta geneak

Saguan detektatu ziren LTRak eta ERV berberaren zati zentrala erkatuz, ez zen ezberdintasun handirik aurkitu (IV-5. irudia). Salbuespen bakarrak 5'LTR zuhaitzean eman ziren, non metafamilia batean sailkatu gabeko chr13_37 eta chr13_44 ERVen LTRak banatu ziren eta Mf6-ko chr16_47 LTRa ez zen gainontzeko Mf6-ko LTRekin multzokatu.

Arratoia

Geneak


Arratoian analizatutako ERVen geneen artean, *gag* genearen filogeniak ezberdintasun gehien izan zituenen izan zen (IV-6. irudia).

Mf1 metafamiliako chr3_79-ren *gag* genea Mf2-koen *gag* geneekin multzokatu zen eta metafamilia honetako chr2_41-en eta chr20_10-en eta Mf3-ko chr3_109-ren *gag* geneak batera agertu ziren. Mf2-ren barruan, chrX_97 ERVaren *gag* geneak erlazio ezberdina azaldu zuen eta chr5_145 ERVak Mf5-ko chr7_21 ERVaren *gag* genearekin erlazio estua izan zuen, gainontzekoetatik aldenduz. Bestalde, Mf2-ko chr6_78-ren *gag* geneak eta metafamilia batean sailkatu ez zen chrX_112-ren *gag* geneak erlazio estua azaldu zuten. Mf3-ko chrX_84-ren eta chr3_97-ren *gag* geneak gainontzeko metafamiliako kideen *gag* geneetatik urrundu ziren. *gag* geneaz gain, Mf5-eko chr7_31 ERVaren *env* genea ez zen metafamilia honetako gainontzeko *env* geneekin multzokatu.

LTRak eta geneak

LTRen eta zati zentralaren erlazioei dagokienez (IV-7. irudia), ez zen ezberdintasun handirik aurkitu. Soilik Mf2 metafamiliako barne-antolakuntza, geneekin erkatuz, LTRetan ezberdina izan zen. Bestalde, zati zentralaren zuhaitzean Mf4 metafamilia bi taldestan banatu zen, LTRetan gertatu ez zena.

Mamolioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa



IV-7. irudia: LTRak detektatu zaien arratoien ERVen 5'LTR, parte zentrala eta 3'LTR zuhaitz filogenetikoak.

Ezkerrean 5'LTR, erdian parte zentrala (*gag+pol+env*) eta eskuman 3'LTR. Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredu finkatu gabea. Koloretan metafamilia bakoitzeko ERVak.

Txakurra

ERVen gene ezberdinaren zuhaitz filogenetikoek txakurraren hainbat ERVren geneak jatorri ezberdina zutela azaldu zuten (IV-8. Irudia).

Metafamilia batean sailkatu ez ziren ERVek, hots, chr8_3, chr10_1 eta chr20_4, *gag* genearen erlazio ezberdinak azaldu zituzten, lehenengoko bien *gag* geneak Mf2 metafamilian multzokatu ziren eta hirugarrenarena Mf3-ko chr1_10 eta chr35_4 ERVekin. Mf3-n, aipatutako elementuen *gag* genearen historia ezberdinaz gain, chr1_18 elementuaren *env* genea Mf3-ko ERVen *env* genearekin multzokatu beharrean, metafamilia batean sailkatu ez zen chr20_4 ERVen *env* genearekin batera agertu zen. Azkenik, Mf1 eta Mf2 metafamilien kasuan ez zen geneen historia ebolutibo ezberdinik detektatu.


ERV hauetatik soilik 2 ERVen LTRak identifikatu ahal izan ziren eta ez zen zuhaitzik eraiki.

Behia

Geneak


Analisi honetarako aukeratutako behiaren ERVen geneen zuhaitz filogenetikoek hainbat ERVren geneek historia filogenetiko ezberdina zutela azaldu zuten (IV-9. Irudia).

Mf1 metafamiliaren ERVen *env* genearen zuhaitz filogenetikoak erlazio esturik ez zuten bi multzo nagusi zeudela adierazi zuen eta chr15_8 ERVan *gag* genearen zuhaitz filogenetikotik gainontzeko ERVen *gag* geneetatik aldendu zela ondoriozta zitekeen. Mf2-n chr19_27 ERVaren *gag* genea ez zen metafamilia honetakoekin multzokatzen, baizik eta Mf5-ekoekin. Mf3-n chr19_19 eta chr25_8 ERVen *env* genea ez zen metafamilia honetako *env* geneekin ez gainontzeko metafamilien geneekin multzokatzen, are gehiago, chr19_19 ERVaren *env* genea gainontzeko ERVen *env* geneetatik aldendu zen. Mf4-n chr4_44 ERVaren *env* genea, gene honen zuhaitz filogenetikoa eraikitzerakoan, Mf3-ko *env* geneekin erlazioa zuela ikusi zen. Mf5-en, *gag* genearen zuhaitzean, chr11_31 ERVaren *gag* genea Mf3-tik gertuago zegoela metafamilia honetatik baino ikusi zen. chrX_7 eta chrX_25 ERVen *env* geneak ez ziren metafamilia bateko *env* geneekin multzokatzen gene honen zuhaitzean.



IV-8. irudia: Aukeratutako txakurraren ERVen *gag+pol+env* geneen gene-anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.

Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredu finkatu gabe. Taldekapen hauek jarraitu ez duten ERVak adierazi dira eta alboan zein genetan kutxa barnean jarri dira.




IV-9. irudia: Aukeratutako behiaren ERVen *gag+pol+env* geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.

Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredu finkatu gabe. Taldekapen hauek jarraitu ez duten ERVak adierazi dira eta alboan zein genetan kutxa barnean jarri dira.

Mamilioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa

LTRak eta geneak

LTRen eta zati zentralaren arteko erlazioari dagokionez (IV-10. irudia), Mf4 eta Mf5 metafamilietako LTR-ak bi taldean banatu ziren. Gainera, Mf5-en kasuan, LTRen bi taldeak ez ziren bat eterri zati zentralean ikusten ziren Mf5-eko bi azpitaldeekin. Baita ere, Mf5-eko chr15_3 ERVaren LTRak Mf3-ko 23_14 ERVaren LTRekin batera agertu ziren. Azkenik, Mf2-ko ERVen LTRak ez ziren esangarriki batera multzokatu.



LTR

gag pol env

LTR

IV-10. irudia: LTRak detektatu zaien behien ERVen 5'LTR, parte zentrala eta 3'LTR zuhaitz filogenetikoak.


Ezkerrean 5'LTR, erdian parte zentrala (gag+pol+env) eta eskuman 3'LTR. Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredu finkatu gabea. Koloretan metafamilia bakoitzeko ERVak.

Zaldia

Zaldian aztertutako ERVen gene ezberdinuen zuhaitz filogenetikoak oso argigarriak izan ez baziren ere, ERV batzuen geneek historia ezberdina azaldu zuten (IV-11. irudia).

Mf2 metafamiliaren multzokatu ziren chr5_15 eta chr7_18-ren pol geneak ez ziren gainontzeko Mf2-ko ERVen pol genearekin multzokatu gene horren zuhaitzean. chr7_18-ren kasuan, gauza bera gertatu zen env genearekin. Mf3-ko chr5_5 eta chrX_24 ERVe dagokionez, euren env geneak ez ziren metafamiliako gainontzeko ERVen env genearekin batera agertu env zuhaitzean.

Zaldian hautatutako ERVetan LTRak idenifikatzea 4 kasutan posible izan zen. Hala ere, lortutako LTRen zuhitzak ez ziren argigarriak izan eta ez dira erakusten.



IV-11. irudia: Aukeratutako zaldiaren ERVen gag+pol+env geneen gene anizkoitzeko zuhaitz filogenetikoa.

Inferentzia Bayestarra, 10^6 belaunaldi, eredu finkatu gabe. Taldekapen hauek jarraitu ez duten ERVak adierazi dira eta alboan zein genetan kutxa barnean jarri dira.

Laburpena

Espezie guztiak batera aztertuz, espeziez espezie jatorri komuna ez zuten ERVen gene-kopurua aldakorra izan zen (IV-4. Taula).

Oro har, *gag* eta *env* geneek *pol* baino errekonbinazio intergeniko gertaera gehiago azaldu zituzten, hots, osotzen zuten ERVaren gainontzeko geneen jatorri berbera ez zuten izan. *gag* genearen kasuan, oro har, 42 gertaera detektatu ziren, batez ere arratoian (13 gertaera, arratoian aztertutako ERVen %22,03a). *env* genean 49 gertaera detektatu ziren, batez ere saguan (20 gertaera, saguan aztertutako ERVen %14,54a) eta txinpantzean (16 gertaera, txinpantzean aztertutako ERVen %10,19a). *pol* genean, aldiz, 17 gertaera detektatu ziren soilik, gehienak gizakian (13 gertaera, gizakian aztertutako ERVen %5,28).

IV-4. taula: Errekonbinazio intergeniko gertaren laburpena, aztertutako filogenia ezberdinenean geneetan.

N, aztertutako ERV kopurua; -, gertaerarik ez da detektatu.

Especiea	N	Genea		
		<i>gag</i>	<i>pol</i>	<i>env</i>
Gizakia	246	4	13	1
Mf1	28	1	-	-
Mf2	17	2	-	-
Mf3	22	-	-	-
Mf4	50	-	-	1
Mf5	3	-	-	-
Mf6	123	1	10	-
Mf-z kanpo	3	-	3	-
Txinpartzea	157	10	2	16
Mf1	6	2	-	2
Mf2	5	-	-	3
Mf3	29	5	-	1
Mf4	12	-	1	1
Mf5	16	3	1	2
Mf6	6	-	-	6
Mf7	83	-	-	1
Sagua	114	7	-	20
Mf1	11	1	-	-
Mf2	5	-	-	-
Mf3	9	-	-	1
Mf4	8	-	-	-
Mf5	9	-	-	-
Mf6	24	1	-	7
Mf7	16	-	-	8

Especiea	N	Genea		
		<i>gag</i>	<i>pol</i>	<i>env</i>
Mf-z kanpo	32	5	-	4
Arratoia	59	13	-	2
Mf1	7	3	-	-
Mf2	24	3	-	-
Mf3	6	3	-	-
Mf4	6	-	-	-
Mf5	5	1	-	1
Mf-z kanpo	11	3	-	1
Txakurra	23	5	-	1
Mf1	5	-	-	-
Mf2	9	-	-	-
Mf3	6	2	-	1
Mf-z kanpo	3	3	-	-
Behia	93	3	-	6
Mf1	8	1	-	1
Mf2	8	1	-	-
Mf3	8	-	-	4
Mf4	30	-	-	1
Mf5	39	1	-	-
Zaldia	22	-	2	3
Mf1	9	-	-	-
Mf2	7	-	2	1
Mf3	5	-	-	2
Mf-z kanpo	1	-	-	-

IV.3.2.2. Zuhaitz filogenetikoaren zeharreko hautespena

Hautespeta detektatzeko dn/ds proportzioa (ω) erabili zen: $\omega > 1$ denean, hautespen positiboa dagoela esaten da; $\omega = 1$, hautespeta neutrala dela; eta $\omega < 1$, hautespeta purifikatzailea dela. Adar guztietan ω berdina dela onartzen duen eredu eta kanpoko eta barruko adarrek ω dutela onartzen duena kalkulatu ziren eta egiantz-arrazoi testa baten bitartez espezie eta metafamilia bakoitzean eredu probableena aukeratu zen (IV-5. taula) egiantz-arrazoi testa erabilita (2. taula gehigarrian emaitzak aztertu daitezke).

Gizakia

Gizakian hautatutako ERVen gene eta metafamilia gehienetan kanpoko eta barneko adarrek ω ezberdina izatea onartzen duen eredu zuhaitz osoan zehar berdina onartzen duen eredu baino probableagoa izan zen (IV-5. taula). Salbuespenak Mf2 metafamiliako ω *gag* eta Mf4-ko *env* genea. Kasu guztietan $\omega < 1$ izan zen, eta barruko adarrek kanpokoek baino ω txikiagoa azaldu zuten, Mf2-ko *env* genean izan ezik. Mf5-en, sekuentzia-kopurua dela eta, ez da analisi hau buru.

Mamalioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa

IV-5. taula: ERVen hautespenaren estimazioa aztertutako espezie, metafamilia eta geneetan. Adar guztietan ω berdina (M_0 eredu) izatea eta barneko eta kanpoko adarrek ω ezberdina izatearen artean eredu probableena aztertzen duen analisiaren laburpena.

Testutak bi eredu artean probableena azaltzen da: $\omega_i = \omega_t$ zutabea adar guztietan ω bakarra detektatu denean erabiltzen da; $\omega_i \neq \omega_t$ zutabea kanpoko eta barneko adarrek ω ezberdina dutenean. N: aztertutako sekuentzia-kopurua; ω , d_N/d_S balioa; ω_i , barneko adarren (inner branches) d_N/d_S balioa; ω_t , kanpoko adarren (terminal branches) d_N/d_S balioa.

Espeziea	N	Genea								
		gag			pol			env		
		$\omega_i = \omega_t$	$\omega_i \neq \omega_t$	ω_t	$\omega_i = \omega_t$	$\omega_i \neq \omega_t$	ω_t	$\omega_i = \omega_t$	$\omega_i \neq \omega_t$	ω_t
Gizakia	246	-	0,0824	0,3616	-	0,0789	0,3932	-	0,0852	0,2465
Mf1	28	-	0,0601	0,2703	-	0,0597	0,3108	-	0,0000	0,1673
Mf2	17	0,2355	-	-	-	0,0056	0,3577	-	0,3986	0,0883
Mf3	22	-	0,0410	0,2449	-	0,0335	0,3394	-	0,0439	0,1929
Mf4	50	-	0,1205	0,2754	-	0,0788	0,3314	0,2074	-	-
Mf5	3	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Mf6	123	-	0,1198	0,3996	-	0,1032	0,4236	-	0,0798	0,2749
Txinpantzea	157	-	0,0765	0,3673	-	0,0874	0,2983	-	0,0313	0,2384
Mf1	6	0,3079	-	-	0,3592	-	-	0,0241	-	-
Mf2	5	0,1865	-	-	0,0635	-	-	0,1652	-	-
Mf3	29	-	0,0369	0,1906	0,1475	-	-	-	0,0240	0,1864
Mf4	12	0,1503	-	-	0,1008	-	-	-	0,3139	0,0230
Mf5	16	-	0,0276	0,3714	-	0,0641	0,2762	-	0,0175	0,1487
Mf6	6	-	319,1000	0,0727	-	999,0000	0,0482	0,0489	-	-
Mf7	83	-	0,1170	0,4250	-	0,1044	0,3994	-	0,3609	0,1676
Sagua	114	-	0,0791	0,2911	-	0,0602	0,3201	-	0,0658	0,1426
Mf1	11	-	0,1328	0,4117	0,4312	-	-	-	0,1837	0,6531
Mf2	5	-	0,0112	0,3374	-	42,7889	0,1589	-	181,6337	0,1049
Mf3	9	0,0563	-	-	-	1,6159	0,0255	-	0,0001	0,1112
Mf4	8	0,2272	-	-	0,3723	-	-	0,3213	-	-
Mf5	9	-	0,0445	0,3145	-	0,0660	0,2982	-	0,0394	0,2619
Mf6	24	-	0,1709	0,3919	-	1,2012	0,1682	-	0,0193	0,0559
Mf7	16	-	0,0461	0,1871	-	0,0375	0,1708	0,0771	-	-
Arratoia	59	-	0,0811	0,2133	-	0,0529	0,1303	-	0,1297	0,0691
Mf1	7	1,3891	-	-	-	0,0461	0,3900	-	0,0000	0,2368
Mf2	24	1,1010	-	-	-	0,0456	0,0940	-	0,1230	0,0717
Mf3	6	1,0830	-	-	-	0,0205	0,0698	0,0053	-	-
Mf4	6	1,2696	-	-	0,0705	-	-	0,0575	-	-
Mf5	5	1,0780	-	-	0,0197	-	-	0,0421	-	-
Txakurra	23	0,3062	-	-	0,3055	-	-	0,2855	-	-
Mf1	5	0,3118	-	-	0,3862	-	-	0,0815	999,0000	-
Mf2	9	-	0,0004	0,4715	0,3066	-	-	0,2325	-	-
Mf3	6	0,0307	-	-	0,0905	-	-	0,0001	0,0339	-
Behia	93	-	0,0740	0,2915	-	0,0738	0,4612	-	0,0557	0,1767
Mf1	8	0,1531	-	-	-	0,0857	0,2652	-	0,0300	0,2898
Mf2	8	-	0,0022	0,3312	-	0,0400	0,7911	0,1348	-	-
Mf3	8	0,1007	-	-	-	0,0149	0,3305	-	16,9273	0,0230
Mf4	30	0,2688	-	-	-	0,1985	0,6402	0,2019	-	-
Mf5	39	-	0,1417	0,3060	0,2148	-	-	0,1075	-	-
Zaldia	22	-	0,0244	0,3157	-	0,2894	0,0100	-	0,4634	0,1144
Mf1	9	-	0,0130	0,1983	0,1505	-	-	0,1736	-	-
Mf2	7	-	0,0012	0,5135	0,1301	-	-	-	0,0004	0,3171
Mf3	5	-	999,0000	0,1544	0,2461	-	-	-	0,0076	0,3829

Txinpantzea

Txinpantzean aztertutako ERVek zuhaitz osoan zehar ω berdina zuten ala kanpoko eta barneko adarrek ω ezberdina azaltzen zuten aztertzeraikoan (IV-5. taula), genez gene eta metafamiliaz metafamilia emaitza ezberdinak lortu ziren. Salbuespenak salbuespen, $\omega < 1$ izan zen eta, kanpoko adarrek eta barnekoek ω ezberdina azaldu zutenean, barneko adarren ω txikiagoa izan zen. Orokortasun hauetatik kanpo Mf4 eta Mf7 metafamilietako *env* genea eta Mf6-ko *gag* eta *pol* gelditu ziren. Kasu hauetan barneko adarren ω handiagoa izan zen eta Mf6-ko *gag* eta *pol* geneetan kanpoko adarrek $\omega > 1$ azaldu zuten.

Sagua

Hautatutako saguaren ERVen geneek eta metafamiliek, oro har, kanpoko eta barneko adarren ω

ezberdina zutela azaldu zuten (IV-5. taula). Hala ere, adar guztiek ω bakarra zutela Mf1 mefamiliako *pol* geneek, Mf3-ko *gag*, Mf4-ko hiru geneek, eta Mf7-ko *env* azaldu zuten. Honetaz gain, kanpoko eta barneko ω ezberdinak izan zirenean, kasu gehienetan barneko adarrek ω txikiagoa azaldu zuten, Mf2, Mf3 eta Mf6-ko *pol* eta Mf2-ko *env* izan ezik. Gainera, kasu hauetan, barneko adarren ω kanpokoena baino handiagoa izateaz gain, beren balioa bat baino handiagoa izan zen.

Arratoia

Kanpoko eta barneko adarrek ω berdina ala ezberdina zuten aztertzerakoan aztertutako arratoiaren ERVen geneetan eta metafamilietan emaitzak aldakorrak izan ziren (IV-5. taula). *gag* genearen kasuan, sekuentzia guztiak aztertzeko orduan, barneko adarrek kanpokoek baino ω txikiagoa azaldu zuten eta biak ω<1 izan ziren. Metafamilietan, aldiz, *gag* geneak ω bakarra azaldu zuen eta hau bat baino handiagoa izan zen. *pol* genearen kasuan, Mf4 eta Mf5 metafamilietan izan ezik, barneko eta kanpoko adarrek ω ezberdina azaldu zuten eta, gainera, barneko adarrek ω txikiagoa azaldu zuten. Azkenik, *env* genean, aztertutako sekuentzia guztiak eta Mf1-ek barneko adarrek kanpokoek baino ω txikiagoa zutela azaldu zuten, Mf2-k, aldiz, kontrakoa eta Mf3, Mf4 eta Mf5-k zuhaitzean zehar ω bakarra.

Txakurra

Kanpoko eta barneko adarretan ω bakarra ala ezberdina al zen aztertzerakoan (IV-5. taula), hautatutako txakurraren ERVen gene eta metafamilia gehienetan ω bakarra onartzen duen eredua probableagoa izan zen. Salbuespenak Mf1 eta Mf3 metafamilietako *env* geneak eta Mf2-ko *gag* izan ziren. Kasu guztietan ω<1 izan zen, Mf1-ko *env* geneko zuhaitzaren kanpo adarrean izan ezik. Bestalde, kanpoko eta barneko adarretan ω ezberdina izan zenean, barneko adarrek ω txikiagoa azaldu zuten.

Behia

Behiaren ERVen sekuentzia guztiak edota metafamiliak aztertzerakoan, barneko eta kanpoko adarren ω-ei dagokionez (IV-5. taula), berdinak zirenean ω bat baino txikiagoa izan zen eta ezberdinak zirenean, barneko adarrek kanpokoek baino ω txikiagoa izan zuten. Salbuespen bakarra Mf3-ko *env* genea izan zen, zeinetan barneko ω 1 baino handiagoa izan zen eta kanpoko adarren ω baino handiagoa.

Zaldia

Barneko eta kanpoko adarren ω-ei dagokionez (5. taula), hautatutako zaldiaren ERVen sekuentzia guztiak aztertzerakoan, ω guztiak bat baino txikiagoak izan ziren. *gag* genearen kasuan barneko adarren ω kanpokoena baino txikiagoa izan zen eta *pol* eta *env* geneetan, aldiz, alderantziz. Metafamiliak dagokionez, oro har, barneko adarren ω kanpokoena baino txikiagoa izan zen. Hala ere salbuespenak egon ziren: Mf1 metafamiliako *env* genea, zeinetan kanpoko eta barneko adarrek ω berdina izatea probableagoa izan zen, eta Mf3 metafamiliako *gag*, zeinetan barnekoko adarrek kanpokoek baino ω handiagoa izan zuten.

Laburpena

Espezie guztiak batera hartuz, hainbat kasutan zuhaitz filogenetikoen adar guztietan zehar ω berdina izatea ezberdina izatea baino probableagoa izan zen (IV-5. taula). Barneko eta kanpoko adarrek ω ezberdina izatea probableagoa izan zen kasuetan, barneko adarrek kanpokoek baino ω txikiagoa azaldu zuten, salbuespenak salbuespen. Hortaz, analisi honetan oinarrituta eta Belshaw et al. (2008)-ren irizpidea jarraituta, espezie gehienetan ERVetan, kopia-kopuruaren emendioa berrinfekzioaren bidez gertatu dela ondorioztatu daiteke. Orokortasun hauetatik at arratoiaren metafamilietan sailkatzen ziren ERVen *gag* genea egon zen. Gene honetan kasu guztietan ω>1 izan zen eta, hortaz, arratoiaren ERVetan berrinfekzioa baztertu daiteke.

IV.3.3. ERVen sekuentzieta baimendutako aldaketak

ERVen sekuentzieta baimenduta dauden aldaketetan sakontzeko errekonbinazio intragenikoa eta sekuentzian zehar gertatzen den hautesprena aztertu ziren, sekuentziaren arteko informazio trukerik

zegoen eta mutazioak pairatzea baimenduta ote zegoen jakiteko.

IV.3.3.1. Errekombinazio intragenikoa

Errekombinazio intragenikoa detektatzeko bost metodo ezberdin erabili ziren (RDP, Maxchi, Chimaera, Geneconv eta PLATO) eta bakoitzetik informazio ezberdinak lortu ziren. Informazio guztia IV-6. taulan laburbiltzen da. Metodo bakoitzaren emaitza zehatzak 3. taula - 9. taula gehigarriean aztertu daitezke.

Gizakia

Erabilitako giza-ERV guztiekin analisiak egiterakoan, erabilitako metodo ezberdinek hiru geneen sekuentzietaan zehar errekonbinazio-gertaerak detektatu zituzten, baina ez adostasun-maila berarekin. *gag* genearen kasuan metodo gehienek sekuentzia osoan zehar detektatu zuten errekonbinazioa; *pol* genean, aldiz, hasierako eta bukaerako posizioak eskualde errekonbinanteak izan zitezkeela aditzera eman zuten; azkenik, *env* genean, 200. posizioaren inguruan izan ezik, errekonbinazioa sekuentzia osoan zehar detektatu zuten.

Metafamiliak aztertzerakoan, *gag* genean, Mg4 metafamilian 300. posiziotik bukaera arte errekonbinazio-gertaerak detektatu zituzten metodo ezberdinek. Mf3-n, aldiz, 400. posiziotik aurrera adostasuna murritzu zen. Mf2-ren kasuan lehengoko 100 posizioetan metodo gehienek errekonbinazioa detektatu zuten; Mf1-en heina 200. posiziorarte zabalduz eta azkenengo posizioetan eskualde errekonbinante bat detektatuz eta Mf6 metafamilian, 200. posiziotik bukaera arte. Azkenik, Mf5 metafamilian seinalea ahulagoa izan zen, 50.etik 200.era bitarteko posizioak nabarmenduz.

pol geneari dagokionez, Mf1, Mf3 eta Mf6 metafamilien kasuan azkenengo 150 posizioek eratzen duten eskualdean errekonbinazioa detektatu zen eta Mf2-n 400. posizioaren inguruan. Mf4-n, batez ere lehengoko 100 posizioetan eta 300. etik 600.era bitarteko posizioetan errekonbinazioa detektatu zuten. Azkenik Mf5-n, seinaleak ahulagoak izan ziren.

env genean, Mf1 metafamilian metodoen arteko adostasunak gutxi izan ziren. Mf2-n, ordea, 250. posiziotik aurrera seinalea sendoagoa izan zen eta Mf3-n 300. posiziotik aurrera. Mf4 eta Mf6-n ia sekuentzia osoan zehar errekonbinazioa gertatu zela bat etorri ziren metodo ezberdinak, Mg6-n 100. etik 200.era bitarteko posizioetan izan ezik. Azkenik, Mf5-n errekonbinazio-gertaera gutxi detektatu ziren, sendoena 200. etik 300.era bitarteko posizioetan dagoen eskualdean izan zen.

Txinpartzea

Aukeratutako txinpantzearen ERV guztiak aztertzerakoan, *gag* genean 200. posizioaren inguruan eta 450. posiziotik aurrera metodo gehienek errekonbinazioa detektatu zuten, *pol* genearen kasuan 500. posiziotik aurrera eta *env* 200. posiziotik aurrera.


Metafamiliak aztertuz, *gag* genean Mf1 metafamilian 400. etik 500. era bitarteko posizioetan, Mf2-n lehenengoko 100 posizioetan eta 300. posizioaren inguruan, Mf3-n 100. eta 300. posizioen inguruan, Mf4-n 50. etik 250. era bitarteko posizioetan eta 300. etik 400. era bitarteko posizioetan, Mf5-n 400. etik 500. era bitarteko posizioetan eta Mf7-n 1. etik 150. era eta 350. etik 500. era bitarteko eskualdean errekonbinazio gertaeren detekzioan bat etorri ziren metodo gehienak. Mf6-n, ordea, seinaleak ahulak izan ziren.

pol genearen kasuan, adoste nabarmenenak Mf1 metafamiliako 50. etik 150. era eta 300. etik 550. era bitarteko posizioetan, Mf2-ko lehengoko 150. posizioetan, Mf3 metafamiliako 1. etik 200. era bitarteko eskualdean eta 600. posizioaren inguruko eskualdean eta Mf7-ko 600. posizioaren inguruan eman ziren. Gainontzeko metafamilietaan adostasunak ez ziren horren argiak izan, metodoren batek errekonbinazio-gertaerak detektatzen bazituen ere.

env geneari dagokionez, metodoen arteko adostasunak aldakorrak izan ziren. Metodo gehienek bat egin zuten eskualdeak honakoak izan ziren: Mf1 metafamilian 50. etik 220. era bitarteko posizioetan, Mf2-n 50. etik 100. era bitartekoetan, Mf3-n hasierako eskualdean, Mf4-n hasierako eskualdean, 300. posizioaren inguruan eta azkenengo 100 posizioetan, Mf5-en hasierako posizioetan eta azkenengo 100 posizioetan, eta Mf7-n azkenengo 150 posizioetan. Mf6-n, aldiz, adosteak ez ziren horren argiak izan.

IV-6. taula: ERVen errekonbinazio intragenikoaren detekzioa aztertutako espezie, metafamilia eta geneetan.

Posizio jakinaren kolore beltzaren intentsitateak posizio horretan errekonbinazioa detektatu duten metodo kopurua adierazten du. Marratxo bakoitzak 100 posizio adierazten ditu eta eskalak ez dira espezie eta geneen artean proportzionalak.



Sagua

Hautatutako saguaren ERV guztietai errekonbinazioa aztertzeraoan, *gag* genean 400.etik 500.era bitarteko posizioetan errekonbinazio gertaeren presentziarekin bat etorri ziren metodo gehienak; *pol* dagokionez 500.etik 700.era bitartekotan, eta *env* 200.etik 250.era eta 300.etik 450.era bitartekotan.

Metafamiliaz metafamilia aztertuz, *gag* genean seinalerik sendoenak Mf1 metafamilian 300.etik 550.era bitarteko posizioetan, Mf2-n 400.etik 500.era bitartekoetan, Mf5-n eta Mf6-n 150.etik 550.era bitartekoetan eta Mf7-n 500. posizioaren inguruan eman ziren. Mf3 eta Mf4-n, ordea, seinaleak ahulak izan ziren.

pol genearen kasuan, Mf1 metafamilian 450.etik 700.era bitarteko posizioetan, Mf3-n 50.etik 600.era bitartekoetan, Mf4-n 1.etik 550.era bitartekoetan, Mf5-en 1.tik 250.era bitartekoetan, Mf6-n 650.etik 700.era bitartekoetan eta Mf7-n 400.etik 700.era bitartekoetan errekonbinazio-gertaerak eman zirela metodo ezberdinak bat etorri ziren. Mf2-n, aldiz, ez zen adostasun argirik eman.

Azkenik, *env* genean, metodo ezberdinek Mf5 (1.etik 250.era bitarteko posizioetan eta bukaerako eskualdean) eta Mf6 (50.etik 250.era bitartekoetan eta 400. posizioaren inguruan) metafamilietan errekonbinazioaren detekzioan bat egin zuten. Metodo ezberdinen adostea Mf2, Mf3 eta Mf7-n txikiagoa izan zen eta Mf1 eta Mf4-n ez zen ia errekonbinaziorik detektatu.

Arratoia

Arratoiaren ERVetan gertatutako errekonbinazio-gertaerak aztertuz, hiru geneen sekuentzian zehar metodo ezberdinek modu ezberdinean detektatu zuten errekonbinazioa. *gag* genean, batez ere errekonbinanteak hasierako eskualdeak ziruditen eta 100.etik 200.era bitarteko posizioak, *pol*en kasuan hasierako posizioak eta 150.etik 400.era bitartekoak, eta *env*en 100. posizioaren inguruan.

Metafamilia aztertzeraoan, *gag* geneari dagokionez, Mf1 metafamilian sekuentzia ia osoan zehar errekonbinazioa detektatu zen, batez ere hasierako 300 posizioetan eta 400. posiziotik gertu. Halaber, Mf2-ko hasierako posizioetan eta 600. posizioaren inguruan metodo gehienek errekonbinazioa detektatu zuten. Mf5-en 400.etik 600.era bitarteko eskualdean errekonbinazioa gertatu zela metodo gehienek bat egin zuten. Mf3-n aldiz, seinalea ahulagoa izan zen eta Mf4-n ez zen ia errekonbinaziorik detektatu.

pol genearen kasuan, Mf1 metafamilian eta Mf3-n errekonbinazio-gertaera gutxi detektatu ziren. Gainontzeko metafamilietan, ordea, errekonbinazio-gertaerak detektatu zituzten metodo gehienek: eMf2-n lehengoko 400 posizioetan eta azkenengo 100 posizioetan, Mf4-n 200.etik 350.era bitarteko eskualdean eta Mf5-en 400.etik 550.era bitartekoan.

Azkenik, *env* genean, Mf1 metafamilian 150. posiziotik bukaera arte errekonbinazio-gertaerak metodo gehienek detektatu zituzten, baita Mf2-n 100.etik 200.era bitarteko posizioen inguruan, 300. posiziotik gertu eta bukaerako posizioetan eta Mf5-en 100.etik 200.era bitarteko eskualdean. Mf3 eta Mf4-n, aldiz, ia ez zen errekonbinaziorik detektatu.

Txakurra

Txakurran hautatutako ERV guztiak kontutan hartuz, *gag* genean metodo gehienak bat dato 400 posiziotik aurrera errekonbinazio-gertaerak detektatzeraoan. *pol* genean, aldiz, ia sekuentzia osoan errekonbinazio-gertaerak metodo ezberdinek detektatu zituzten. Azkenik, *env* genean sekuentzian zehar programa ezberdinek modu aldakorrean errekonbinanteak detektatu bazituzten ere seinalea azkenengo 150 posizioetan argiagoa izan zen.

Metafamilia bakoitzaz aztertuz, Mf1 metafamilian seinalerik sendoena *gag* genearen azkenengo posizioetan eman zen eta gainontzeko geneetan metodo ezberdinak posizio gutxitan bat etorri ziren. Mf2-n, aldiz, gainontzeko metafamilietan baino eskualde errekonbinante gehiago detektatu zituzten metodo ezberdinek. Seinale hauek *pol* genean, 400.etik 500.era bitarteko posizioetan eta 700. posizioaren inguruan sendoagoak izan ziren eta *env* genean 150.etik 300.era bitarteko eskualdean. Azkenik, Mf3 metafamilian, eskualde errekonbinanteen seinalea oso ahula izan zen hiru geneetan, metodo ezberdinak ez baitziren bat etorri gertaerak detektatzeraoan.

Behia

Analizatutako behiaren ERV guztiak aztertzerakoan, metodo gehienak hiru gene erretrobiraletan errekonbinazio-gertaerak detektatu zituzten. *gag* genearen kasuan, batez ere lehengo 300 posizioetan metodo ezberdinek errekonbinazioa eman zela ondorioztatu zuten; *pol* genean 50.etik 250-era bitarteko posizioetan eta 300. posizioaren inguruan; eta *env* genean lehenengoko 200 posizioetan eta 300. posizioaren inguruan.

Metafamiliak aztertuz, errekonbinazioaren detekzioa aldakorra izan zen. *gag* geneari dagokionez, Mf1 metafamilian adoste gutxi egon ziren metodoen artean. Aipagarriena 450.etik 500-era bitarteko eskualdea izan zen, zeinetan metodo ezberdinek errekonbinazioa detektatu zuten. Mf2 eta Mf3-n ere adostasunek hein murriztua azaldu zuten: 1.etik 200-era bitartekoetan eta 50.etik 100-era bitartekoetan hurrenez hurren. Mf4-n, ordea, metodo gehienak 300.etik 700-era bitartekoetan errekonbinazio-gertaerak egon zirela detektatu zuten, batez ere 300.etik 400-era bitartekoetan. Azkenik, Mf5-n 300.etik 400-era bitarteko posizioetan eta 550tik bukaera arte, eskualde errekonbinanteak izatearekin bat etorri ziren metodo ezberdinak.

pol genearen errekonbinazio analisian, Mf1 metafamilian 1.etik 250-era bitarteko posizioetan eta 900. posizioaren inguruan errekonbinazioa gertatu izanarekin metodo gehienak bat etorri ziren, Mf3-n 50.etik 400-era bitartekoetan, Mf4-n 1000. posizioaren inguruan eta Mf5-en hasierako ia 100 posizioetan. Mf2-n, ordea, metodo bakarrak detektatu zuen errekonbinazioa.

Azkenik, *env* genean, Mf1 metafamilian metodo bakarrak detektatu zuen errekonbinazioa eta Mf3-n seinalea ahula izan zen, 100.etik 250-era bitarteko posizioak gehiago nabarmenduz. Mf2-n, aldi, metodo gehienek 150.etik 300-era bitartekoetan errekonbinazioa detektatu zuten eta Mf4-n 200.etik 400-era bitartekoetan, metodo ezberdinek sekuentzian zehar errekonbinazioa gertatu zela modu aldakorrean detektatu bazuten ere. Azkenik, Mf5-en metodo gehienek 400. posiziotik bukaera arte errekonbinazio-gertaerak detektatu zituzten.

Zaldia

Zaldian analizatutako ERV guztiak aztertuz, *gag* genean ez zen errekonbinaziorik detektatu. Beste bi geneetan, aldi, seinaleak sendoagoak izan ziren: *pol*en 1.etik 150-era bitarteko posizioetan eta *env*en 250.etik 250-era bitartekoetan.

Mf2 metafamiliaren *pol* genean 1.etik 150-era bitarteko posizioetan metodo gehienek errekonbinazioa detektatu zuten eta neurri txikiago batean *pol*en 300.etik 400-era bitartekoetan eta *env*en bukaerako eskualdean. Mf1 eta Mf3 metafamilietan, aldi, ez zen errekonbinaziorik detektatu, Mf3-ko *env* genearen azkenengo posizioetan izan ezik.

Laburpena

Errekonbinazio intragenikoa espezie eta metafamilia bakoitzean modu ezberdinean gertatu zela ikusi zen (IV-6. taula). Espezie eta metafamilia gehienetan, errekonbinazio seinale sendoak detektatu ziren eskualde batean edo sekuentzia osoan. Batez ere gizakiaren, txinpantzearen, saguaren, arratoiaren eta behiaren aztertutako ERV guztiekin egindako analisieta errekonbinazioa detektatu zen. Salbuespena aztertutako zaldiaren ERVak izan ziren, zeintzuetan gertaera gutxi detektatu ziren, bai sekuentzia guztiak erabilita zein metafamilietan.

Geneak aztertuz, *gag* genean, hainbat metafamilia (adibidez, saguaren Mf3 eta Mf4 eta arratoiaren Mf4) eta zaldia izan ezik, errekonbinazio-gertaera nahiko detektatu ziren. *pol* genean, aldi, espezie guztieta errekonbinazioa detektatu bazeen ere gainontzeko bi geneetan baino gertaera gutxiago detektatu ziren, salbuespenak salbuespen. Azkenik, *env* genean errekonbinazio-gertaera nahiko detektatu ziren eskualde luzeagotan, hainbat metafamilietan izan ezik, hala nola, arratoiaren Mf3-a eta Mf4-a edo Zaldiaren Mf1-a.

Bestalde, errekonbinazio intragenikoko gertaerak detektatzerakoan erabilitako sekuentzia-kopuruak zuen eragina aztertu zen. Horretarako, RDP, Geneconv, Maxchi eta Chimaera metodoetan erabilitako sekuentzia-kopurua eta detektatutako errekonbinazio-gertaeren arteko korrelazioa burutu zen. Analisi honetatik PLATO kanpo gelditu zen gertaerak beharrean eskualde errekonbinanteak

Mamalioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa

detektatzen baititu. RDP metodoan izan ezik ($r=0,2609$; $p=0,0028$) gainontzko metodoetan ez zen korrelazio esangarririk detektatu (Geneconv $p=04244$; Maxchi $p=0,0989$; Chimaera $p=0,9967$).

IV.3.3.2. Hautespena sekuentzian zehar

Hautespena detektatzeko dn/ds proportzioa (ω) erabili zen: $\omega>1$ denean, hautespen positiboa dagoela esaten da; $\omega=1$, hautespena neutrala dela; eta $\omega<1$, hautespena purifikatzailea dela. Sekuentzia zeharreko ω kalkulatzeko 4 eredu aztertu ziren: (i) sekuentzian zehar ω bakarra dagoela (M0); (ii) sekuentzian zehar bi ω daudela, bata $\omega<1$ eta bestea $\omega=1$ (hautespen ia neutrala, M1); (iii) sekuentzian zehar hiru ω daudela, $\omega<1$, $\omega=1$ eta $\omega>1$ (hautespen positiboa, M2); eta (iv) sekuentzian zehar hiru ω ezberdin daudela, aurretik balioa tarteak finkatu gabe (M3). Egiantz-arrazoi test baten bitartez (emaitzak 2. taula gehigarrian aztertu daitezke), espezie eta metafamilia bakoitzean ω bakarra eta 3 ω ereduaren artean probableena zein zen kalkulatu zen (IV-7. taula) eta hautespen ia neutrala eta hautespen positibo artean probableena zena kalkulatzeko (IV-8. taula).

Gizakia

Hautatutako gizakien ERVen gene eta metafamilia gehienetan sekuentzian zehar hiru ω egotea bakarra baino probableagoa izan zen (IV-7. taula). Salbuespen bakarrak Mf5 metafamiliako *gag* genea eta Mf2 eta Mf5-eko *env* izan ziren. Hala ere, kasu guztietan sekuentziaren kodoi gehienak hautespen purifikatzaileapean egon ziren. Bestalde, hautespen positiboa ere aztertutako sekuentzia guztien *gag* eta *env* geneetan, Mg1 metafamiliako hiru geneetan, Mf2 eta Mf3ko *gagen*, Mf1-eko *enven*, Mf5-ko *enven* eta Mf6-ko *gag* eta *polen* detektatu ziren, kodoien %1,954tik %26,314ra bitartean.

Hautespen ia-neutrala eta positiboa artean probableena zein izan zen kalkulatzeko orduan, genez gene eta metafamiliaz metafamilia emaitza aldakorra izan zen (IV-8. taula). Hala ere kodoi gehienak hautespen purifikatzaileapean egon ziren. *gag* genean, hautespen positibopean zeuden kodoiak aztertutako sekuentzia guztietan (kodoien %0,328), Mf2 (%0,828), Mf4 (%0,832) eta Mf6 (%6,264) metafamilieta detektatu ziren. *pol* genearen kasuan, hautespen positibopean aztertutako sekuentzia guztien kodoien %0,399 Mf4-ko kodoien %3,600a, Mf5-ko %26,314a eta Mf6-ko %1,657a egon ziren. *env* genean, aldiaraz, ez zen hautespen positibopean zeuden kodoirik detektatu aztertutako sekuentzia guztietan izan ezik (%1,051). Azkenik, hautespen neutralapean kodoien %5,671etik %29,435era bitartean egon ziren.

Txinpartzea

Aztertutako txinpantzearen ERVen gene eta metafamilia gehienetan sekuentzian zehar 3 ω ezberdin egotea bakarra baino probableagoa izan zen (IV-7. taula), Mf1 eta Mf2 metafamiliako *env* genean eta Mf6-ko *polen* izan ezik. Kasu guztietan, kodoi gehienek hautespen purifikatzailea azaldu zuten. Bestalde, aztertutako sekuentzia guztien, Mf1, Mf4 eta Mf7 metafamiliako *gag* genean, Mf1 eta Mf7-ko *polen* eta Mf4 eta Mf7-ko *enven* hautespen positibopean zeuden kodoiak detektatu ziren, kodoien %2,813tik %17,976ra bitartean.

Aztertutako txinpantzearen ERVen gene eta metafamilia gehienetan hautespen neutrala positiboa baino probableagoa izan zen (IV-8. taula). Salbuespenak aztertutako sekuentzia guztien *gag* (kodoien %0,232a) eta *pol* (%0,157), Mf1-eko *pol* (%6,468), Mf4-ko *gag* (%0,629) eta *env* (%0,979) eta Mg7-ko *gag* (%2,917) eta *pol* (%0,430) izan ziren. Honetaz gain, kodoi gehienak hautespen purifikatzaileapean egon ziren eta hautespen neutrala kodoien %5,097tik %34,892ra bitartean detektatu zen.

Sagua

Hautatutako saguaren ERVen gene eta metafamilia gehienetan sekuentzian zehar 3 ω egotea bakarra baino probableagoa izan zen (IV-7. taula), Mf2 metafamiliako *gag* genean eta Mf3-ko *enven* izan ezik. Sekuentziaren kodoi gehienetan hautespena purifikatzailea izan bazen ere, hautespen positibopean zeuden kodoiak ere detektatu ziren (Mf1 eta Mf4-ko hiru geneetan, Mf2-ko *polen* eta *enven*, Mf3-ko *polen* eta Mf5 eta Mf6-ko *gagen* eta *polen*). Hautespen positibopean zeuden kodoien proportzioa %2,806tik %33,502ra bitartekoia izan zen.

IV-7. taula: ERVen hautespenaren estimazioa aztertutako espezie, metafamilia eta geneetan. ω_b adierazten ez den kasuetan eredu probableena M0 da, ω_b adierazten denean M3 eredu probableena da. N: aztertutako sekuentzia-kopurua; ω_o : sekuentzia osoaren ω (d_N/d_S) balioa; ω_b : sekuentzian zehar dauden ω balio ezberdin banakatzea; p: ω_b bakoitzaren proportzioa sekuentzia osoarekiko.

ω_b adierazten ez den kasuetan eredu probableena M0 da, ω_b adierazten denean M3 eredu probableena da. N: aztertutako sekuentzia-kopurua; ω_o : sekuentzia osoaren ω (d_N/d_S) balioa; ω_b : sekuentzian zehar dauden ω balio ezberdin banakatzea; p: ω_b bakoitzaren proportzioa sekuentzia osoarekiko.

Especiea	N	Genea							
		gag			pol			env	
		ω_o	ω_b	p (%)	ω_o	ω_b	p (%)	ω_o	ω_b
Gizakia	246	0,2974	0,13829	43,171	0,3121	0,13171	28,748	0,3092	0,13578
		0,35517	53,580		0,29195	48,576		0,34305	28,801
		1,45959	3,249		0,58417	22,677		10,29723	1,119
Mf1	28	0,1784	0,01976	10,516	0,2540	0,07638	34,815	0,1875	0,03342
		0,11465	58,004		0,23817	45,223		0,15897	59,656
		0,34876	31,480		0,59955	19,962		1,37516	5,902
Mf2	17	0,3154	0,03038	22,331	0,2650	0,09856	64,871	0,1334	-
		0,28996	75,715		0,44445	25,465		-	-
		4,56183	1,954		0,90920	9,664		-	-
Mf3	22	0,2334	0,05791	43,013	0,2616	0,04820	26,703	0,1393	0,05039
		0,21395	49,356		0,16526	53,208		0,12504	50,110
		1,34795	7,632		0,56329	20,089		0,40134	14,668
Mf4	50	0,2969	0,11165	61,024	0,3769	0,12332	62,460	0,2491	0,09399
		0,46725	36,479		0,47584	32,949		0,26563	56,573
		2,33542	2,497		3,11650	4,592		1,06395	5,983
Mf5	3	0,0659	-	-	15,2497	0,65842	73,686	0,1679	-
		-	-		32,25556	26,314		-	-
Mf6	123	0,4140	0,14062	45,145	0,4426	0,14133	33,251	0,2571	0,09385
		0,44994	46,946		0,48310	60,366		0,26326	42,897
		1,76061	7,909		1,62864	6,383		1,25802	7,780
Txinpantzea	157	0,2784	0,13257	47,149	0,2555	0,10008	25,853	0,1861	0,05334
		0,34532	50,038		0,22494	46,127		0,13917	54,512
		1,53118	2,813		0,44929	28,020		0,31886	32,388
Mf1	6	0,6682	0,12933	67,996	1,0420	0,00000	34,758	0,0241	-
		1,81314	26,690		0,33179	47,267		-	-
		1,81316	8,314		4,92432	17,976		-	-
Mf2	5	0,2220	0,06344	45,882	0,2292	0,00000	14,596	0,1652	-
		0,35649	54,118		0,09214	61,691		-	-
		-	-		0,72588	23,740		-	-
Mf3	29	0,1513	0,01309	14,492	0,1701	0,02948	28,188	0,1585	0,04241
		0,10684	57,416		0,13781	50,085		0,15552	42,475
		0,31361	28,092		0,42695	21,727		0,73524	9,815
Mf4	12	0,4568	0,02246	40,855	0,1227	0,01268	18,431	0,3288	0,03637
		0,22949	56,843		0,08399	58,752		0,10678	57,485
		13,77975	2,301		0,22817	31,135		4,01653	6,331
Mf5	16	0,2264	0,03141	12,963	0,2037	0,02712	10,354	0,1283	0,01680
		0,11850	55,408		0,14638	68,159		0,10259	64,496
		0,49522	31,630		0,47046	21,487		0,63468	9,095
Mf6	6	0,1589	0,04127	79,102	0,1297	-	-	0,1873	0,00000
		0,60445	20,898		-	-		0,05774	71,920
		-	-		-	-		0,65743	22,177
Mf7	83	0,4367	0,16719	66,270	0,4254	0,11978	36,362	0,2665	0,09028
		0,66463	29,806		0,47541	55,053		0,29286	43,179
		3,25641	3,924		1,39875	8,585		1,44874	6,530
Sagua	114	0,1901	0,07219	26,180	0,2172	0,09574	41,540	0,1272	0,05004
		0,17582	61,880		0,22555	41,170		0,11211	48,127
		0,52238	11,940		0,48909	17,290		0,28899	19,781
Mf1	11	0,4680	0,16185	63,478	0,5505	0,15906	48,504	0,9226	0,00000
		1,00000	36,522		0,70588	41,733		0,48032	51,176
		-	-		1,83136	9,763		2,98467	22,675
Mf2	5	0,1052	-	-	1,5537	0,18498	73,107	0,7423	0,06375
		-	-		5,27437	26,893		2,08905	33,502
Mf3	9	0,0690	0,00029	81,193	0,2180	0,00140	84,256	0,0008	-
		0,03165	10,996		1,37708	15,744		-	-
		0,83559	7,810		-	-		-	-
Mf4	8	0,2900	0,01025	20,371	0,5144	0,00000	32,288	0,5559	0,00000
		0,23078	76,640		0,42487	61,595		0,47288	50,373
		3,71712	2,988		4,13076	6,117		8,56613	3,709
Mf5	9	0,2485	0,03481	42,724	0,2751	0,05894	57,915	0,1493	0,12921
		0,21713	43,577		0,46142	36,791		0,95206	97,559
		1,01449	13,699		1,34552	5,294		2,441	

Mamalioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa

Espeziea	N	Genea							
		gag			pol			env	
		ω_o	ω_b	p (%)	ω_o	ω_b	p (%)	ω_o	ω_b
Mf6	24	0,3825	0,00100	10,165	0,3677	0,00740	15,933	0,0544	0,01074
		0,25541	81,274			0,17465	64,166		0,04879
		2,04271	8,560			1,27884	19,901		30,516
Mf7	16	0,1251	0,01966	67,338	0,1028	0,04558	82,756	0,0857	0,26561
		0,20212	25,770			0,37762	17,244		12,561
		0,86736	6,892						0,05618
Arratoia	59	0,1474	0,04540	36,540	0,0873	0,03427	50,223	0,1114	0,03280
		0,15424	49,530			0,09998	39,980		43,890
		0,39061	13,930			0,30742	9,797		25,745
Mf1	7	7,4785	1,06663	53,029	1,6285	0,06077	31,696	0,0204	0,00688
		2,77075	38,788			0,35072	60,002		66,195
		71,34174	8,183			16,84829	8,302		0,04674
Mf2	24	1,4148	0,46353	35,369	0,1427	0,02610	84,233	0,1233	0,02987
		1,49874	60,312			0,35429	14,945		0,30957
		8,03274	4,319			8,24353	0,822		16,868
Mf3	6	10,6024	0,18616	7,806	0,0534	0,00000	54,709	0,0053	0,30958
		1,25939	90,714			0,11784	45,291		16,533
		638,06553	1,480			-	-		-
Mf4	6	3,9674	1,26959	97,833	0,0880	0,02320	87,668	0,0649	0,00000
		4,55882	1,222			0,54864	12,332		27,321
		279,82502	0,945			-	-		0,05391
Mf5	5	4,1518	0,47152	35,797	0,0197	-	-	0,0421	0,69982
		1,53384	61,047			-	-		3,984
		96,55570	3,155			-	-		-
Txakurra	23	0,3881	0,14791	55,074	0,3578	0,11096	19,890	7,5018	0,05215
		0,54552	39,053			0,32588	74,824		80,046
		1,59285	5,874			1,73960	5,283		178,99487
Mf1	5	3,8031	0,00000	37,827	0,4620	0,17481	65,899	0,5430	-
		0,45757	57,726			1,01703	34,101		-
		79,58673	4,447			-	-		-
Mf2	9	0,3787	0,00000	25,065	0,4491	0,00000	22,380	1,5251	0,02962
		0,43799	69,527			0,09305	45,694		65,422
		1,37097	5,409			1,27349	31,926		0,58345
Mf3	6	0,2886	0,00482	32,078	0,2827	0,00000	8,154	8,8392	32,623
		0,07509	46,365			0,09250	73,667		1,955
		1,17021	21,557			1,18016	18,179		156,73757
Behia	93	0,2917	0,1137	39,311	0,3283	0,19073	56,734	0,4167	53,789
		0,28238	60,177			0,50868	43,266		45,191
		15,23161	0,512			-	-		27,90434
Mf1	8	0,2022	0,02343	35,249	0,2319	0,00000	6,889	0,8926	1,013
		0,29954	64,751			0,10925	42,580		36,874
		-	-			0,36683	50,531		0,15201
Mf2	8	1,7398	0,06301	72,009	0,4387	0,0429	15,692	0,2768	61,280
		0,51154	21,408			0,38426	73,705		42,42326
		24,07668	6,583			1,40072	10,603		1,846
Mf3	8	1,0151	0,02449	38,886	0,1987	0,06508	58,378	0,0462	4,987
		0,13270	57,184			0,30215	33,787		0,00000
		23,65872	3,930			0,74863	7,834		83,408
Mf4	30	0,3719	0,15343	84,852	0,7004	0,43497	85,290	0,5479	11,605
		0,92866	14,620			1,71707	13,527		1,94844
		20,06788	0,528			8,21475	1,183		11,605
Mf5	39	0,3350	0,17074	83,531	0,2716	0,09123	78,617	0,1075	43,437
		0,76681	15,051			0,63345	19,659		0,02866
		5,42812	1,418			4,37246	1,724		40,896
Zaldia	22	0,1805	0,00534	3,582	0,1860	0,05726	37,862	0,2384	43,437
		0,09948	55,261			0,26446	62,138		80,889
		0,30441	41,158			-	-		9,749
Mf1	9	0,2752	0,04992	78,918	1,5229	0,00000	27,076	0,2403	1,03003
		1,11838	21,082			0,20941	72,020		75,046
		-	-			151,63813	0,905		21,605
Mf2	7	0,2461	0,02698	28,091	0,1734	0,00000	8,719	0,2222	1,26291
		0,33164	71,909			0,07086	51,565		3,349
		-	-			0,34470	39,716		71,967
Mf3	5	0,3721	0,00000	29,208	2,7353	0,05579	36,884	0,5914	1,13445
		0,08613	29,526			0,24118	52,514		10,910
		0,84007	41,266			24,41195	10,602		16,193
									2,74298
									19,896

IV-8. taula: ERVen hautespenaren estimazioa aztertutako espezie, metafamilia eta geneetan. Eredu ia neutralaren (M1 eredua) eta hautespen positiboaren (M2 eredua) artean eredu probableena estimatzen duen analisiaren laburpena.

Bi ω_b balio adierazten badira eredu probableena M1 da, hiru ω_b balio adierazten badira M2 eredu probableena da. N: aztertutako sekuentzia-kopurua; ω_o : sekuentzia osoaren ω (d_N/d_S) balioa; ω_b : sekuentzian zehar dauden ω balio ezberdinak banatzeko; p: ω_b bakoitzaren proportzioa sekuentzia osoarekiko.

Espeziea	N	Genea								
		gag			pol			env		
		ω_o	ω_b	p (%)	ω_o	ω_b	p (%)	ω_o	ω_b	
Gizakia	246	0,5026	0,23972 1,00000 47,67080	85,562 14,110 0,328	0,4360	0,26522 1,00000 18,91614	86,487 13,114 0,399	0,3760	0,17890 1,00000 12,67668	90,950 7,999 1,051
Mf1	28	0,1876	0,13873 1,00000	94,329 5,671	0,3336	0,18162 1,00000	81,432 18,568	0,1848	0,09447 1,00000	90,022 9,978
Mf2	17	0,6425	0,17734 1,00000	69,736 29,435 27,10018	0,3386	0,13711 1,00000	76,648 23,352	0,2357	0,09230 1,00000	84,196 15,804
Mf3	22	0,2254	0,11979 1,00000	88,005 11,995	0,2616	0,14868 1,00000	86,738 13,262	0,1874	0,10792 1,00000	91,088 8,912
Mf4	50	1,0638	0,16409 1,00000	76,228 22,940 85,25194	0,4450	0,17797 1,00000	79,937 16,462	0,2577	0,18345 1,00000	90,901 9,099
Mf5	3	0,1072	0,04748 1,00000	93,736 6,264	8,9730	0,65842 32,25556	73,686 26,314	0,2971	0,13639 1,00000	81,385 18,615
Mf6	123	0,8351	0,22810 1,00000	78,063 21,218 61,82101	0,4880	0,26456 1,00000	76,760 21,583	0,2726	0,15456 1,00000	88,182 10,782
Txinpantzea	157	0,5636	0,22170 1,00000 115,93634	90,319 9,449 0,232	0,5793	0,22176 1,00000 190,12040	92,206 7,637 0,157	0,1973	0,15418 1,00000	94,903 5,097
Mf1	6	0,4450	0,09861 1,00000	61,572 38,428	2,1351	0,04503 1,00000	58,640 34,892	0,2962	0,03983 1,00000	73,300 26,700
Mf2	5	0,3486	0,13758 1,00000	75,534 24,466	0,3921	0,06898 1,00000	65,299 34,701	0,3584	0,10947 1,00000	72,047 27,953
Mf3	29	0,2010	0,13249 1,00000	92,102 7,898	0,2338	0,12874 1,00000	87,941 12,059	0,2277	0,08253 1,00000	84,182 15,818
Mf4	12	1,6629	0,08732 1,00000	73,694 25,677 213,28862	0,1995	0,09815 1,00000	88,759 11,241	0,3791	0,06816 1,00000	90,232 8,790
Mf5	16	0,3010	0,13996 1,00000	81,270 18,730	0,2377	0,15788 1,00000	90,517 9,483	0,1578	0,07912 1,00000	91,455 8,545
Mf6	6	0,2202	0,05184 1,00000	82,240 17,760	0,2166	0,09416 1,00000	86,483 13,517	0,2647	0,05148 1,00000	77,522 22,478
Mf7	83	0,4996	0,20714 1,00000	75,266 21,817 4,30352	0,5347	0,22320 1,00000	69,258 30,311	0,2541	0,15495 1,00000	88,265 11,735
Sagua	114	0,3141	0,16723 1,00000 15,02905	91,976 7,454 0,571	0,5305	0,18883 1,00000 118,25396	86,959 12,840 0,201	0,4410	0,10789 1,00000	94,312 4,713 0,976
Mf1	11	0,4680	0,08771 0,58479 6,47606	42,121 55,076 2,803	0,5244	0,18682 1,00000	58,485 41,515	1,0583	0,08219 1,00000	43,681 39,381 3,71103
Mf2	5	0,0881	0,00756 1,00000	91,887 8,113	0,1691	0,00132 1,00000	83,204 16,796	0,4286	0,03717 1,00000	59,346 40,654
Mf3	9	0,0881	0,00756 1,00000	91,887 8,113	0,1691	0,00132 1,00000	83,204 16,796	0,0008	0,0008	100,0000
Mf4	8	0,2530	0,10677 1,00000	83,633 16,367	0,7388	0,12164 1,00000	69,847 28,363	0,6446	0,02914 1,00000	66,585 30,730
Mf5	9	0,2662	0,10961 1,00000	82,414 17,586	0,3347	0,09946 1,00000	83,879 26,121	0,1501	0,12952 1,00000	97,632 2,368
Mf6	24	1,0107	0,21647 1,00000	88,026 7,528 16,75497	0,4154	0,11924 1,00000	75,080 22,546	0,1153	0,03604 1,00000	91,774 8,226
Mf7	16	0,1558	0,05447 1,00000	89,279 10,721	0,1316	0,07074 1,00000	93,449 6,551	0,1210	0,06855 1,00000	94,363 5,637
Arratoia	59	0,1903	0,12348 1,00000	92,371 7,629	0,1308	0,07389 1,00000	93,853 6,147	0,1625	0,09946 1,00000	92,997 7,003
Mf1	7	1,9608	1,00000	67,472 3,95372	0,3669	0,16167 1,00000	75,518 24,482	0,1432	0,01402 1,00000	86,896 13,104

Mamalioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa

Especiea	N	Genea							
		gag			pol			env	
		ω_o	ω_b	p (%)	ω_o	ω_b	p (%)	ω_o	ω_b
Mf2	24	1,1688	0,27686	16,823	0,1584	0,04079	94,066	0,1341	0,08521
		1,00000	76,170		1,00000	5,154		1,00000	5,347
		5,14506	7,006		8,78791	0,780			
Mf3	6	10,5242	1,00000	98,422	0,0717	0,04142	96,844	0,0341	0,00463
		604,72935	1,578		1,00000	3,156		1,00000	2,957
Mf4	6	1,0000	1,0000	100,0000	0,0971	0,03536	93,600	0,0686	0,04015
Mf5	5	1,3384	0,31943	13,636	0,0354	0,00783	97,220	0,0420	0,0421
		1,00000	77,042		1,00000	6,400		1,00000	2,968
		5,62629	9,321		1,00000	2,780			100,0000
Txakurra	23	0,4393	0,19494	69,645	0,3846	0,25350	87,163	7,6080	0,19840
		1,00000	30,355		1,00000	12,018		1,00000	10,531
		5,30191	0,820		5,30191	0,820		183,62180	3,994
Mf1	5	0,4042	0,04910	62,654	0,4598	0,17196	65,233	0,6535	0,11932
		1,00000	37,346		1,00000	34,767		1,00000	60,658
Mf2	9	0,4293	0,18647	70,149	0,3934	0,04492	63,509	1,9336	0,05882
		1,00000	29,851		1,00000	36,491		1,00000	23,048
		84,17482	1,971						
Mf3	6	0,3678	0,03639	65,602	0,2941	0,07490	76,308	10,3921	0,16294
		1,00000	34,398		1,00000	23,692		1,00000	43,213
								204,21753	4,836
Behia	93	0,3143	0,19367	93,408	0,4195	0,28046	86,812	0,4075	0,11019
		1,00000	6,136		1,00000	12,815		1,00000	7,588
		15,79896	0,456		12,81025	0,374		28,68945	0,804
Mf1	8	0,5538	0,07400	48,190	0,2944	0,18094	86,150	0,1482	0,09645
		1,00000	51,810		1,00000	13,850		1,00000	5,725
Mf2	8	2,6808	0,07269	78,216	0,4487	0,25523	74,028	0,1906	0,05280
		1,00000	16,395		1,00000	25,972		1,00000	14,548
		45,64826	5,389						
Mf3	8	0,2113	0,07768	85,514	0,2907	0,12360	80,938	0,2446	0,02539
		1,00000	14,486		1,00000	19,062		1,00000	22,494
Mf4	30	0,3764	0,15974	86,255	0,6487	0,36962	72,090	0,6267	0,06556
		1,00000	13,219		1,00000	24,482		1,00000	41,425
		20,22384	0,526		4,00674	3,429		4,59422	3,844
Mf5	39	0,3420	0,18579	88,263	0,2946	0,11012	85,049	0,3717	0,06106
		1,00000	10,437		1,00000	13,955		1,00000	14,819
		5,68643	1,294		6,15938	0,996		34,12811	0,503
Zaldia	22	0,2437	0,13794	87,733	0,2857	0,14470	83,509	0,2481	0,14761
		1,00000	12,267		1,00000	16,491		1,00000	11,783
		1,00000	22,068		0,1640	0,12932	96,019	0,2690	0,05969
Mf1	9	0,2580	0,04784	77,932	1,00000	3,981		1,00000	22,262
		1,00000	22,068		0,2685	0,08150	79,640	0,2240	0,09710
Mf2	7	0,3366	0,17812	80,718	1,00000	20,360		1,00000	14,055
		1,00000	19,282		4,6829	0,07822	64,384	0,3976	0,01506
Mf3	5	0,4517	0,03234	56,662	1,00000	26,139		1,00000	61,161
		1,00000	43,338		46,13872	9,474		1,00000	38,839

Aztertutako saguaren ERVen gene eta metafamilia gehienetan hautespen ia-neutrala hautespen positiboa baino probableagoa izan zen (IV-8. taula). Hala ere, hautespen positibopean zeuden kodoiak aztertutako sekuentzia guztien hiru geneetan (*gag* kodoien %0,571ean, *pol* %0,201ean *env* %0,976an), Mf1-ko *enven* (%16,939), Mf4-ko *polen* (%1,790), Mf6-ko *gagen* (%4,446) eta *polen* (%2,374) eta *enven* (%2,685) detektatu ziren. Honetaz gain, kodoi gehienak hautespen purifikatzalepean egon ziren eta hautespen neutralpean pozioen %2,368tik %41,515era bitartean.

Arratoia

Aztertutako arratoiaren ERVen gene eta metafamilia gehienetan sekuentzian zehar 3 ω egotea bakarra baino probableagoa izan zen (IV-7. taula). Salbuespenak Mf3-ko *env* eta Mf5-eko *pol* eta *env* izan ziren. Mf1, Mf2, Mf3, Mf4 eta Mf5 metafamilietako *gag* genean izan ezik, kodoi gehienak hautespen purifikatzalepean egon ziren. Aipatutako metafamilietako *gag* geneetako kodoi gehienak, aldiiz, hautespen positibopean egon ziren. Adibide hauetzan gain, Mf1-eko eta Mf2-ko *pol* genean hautespen positibopean zeuden kodoiak detektatu ziren (kodoien %0,822 eta %8,302 hurrenez hurren).

Hautatutako arratoiaren ERVen gene eta metafamilia gehienetan hautespen ia-neutrala hautespen positiboa baino probableagoa izan zen (IV-8. taula). Mf1, Mf2, Mf3, Mf4 eta Mf5 metafamilietako *gag* genean izan ezik, kodoi gehienak hautespen purifikatzalepean egon ziren. Metafamilia hauetan kodoi gehienak hautespen neutralpean egon ziren eta hautespen positibopean zeuden kodoiak Mf1-en (%32,528), Mf2-n (%7,006), Mf3-n (%1,578) eta Mf5-n (%9,321) detektatu ziren *gag* genean. Adibide hauetaz gain, Mf2-ko *pol* genean ere hautespen positiboa kodoien %0,780 detektatu zen. Gainontzeko gene eta metafamilietan hautespen neutrala kodoien %2,957tik %24,482ra bitartean detektatu zen.

Txakurra

Aztertutako txakurraren ERVen gene eta metafamilia guztiak sekuentzian zehar 3 ω ezberdin onartzen duen eredua ω bakarra baino probableagoa izan zen (IV-7. taula), Mf1 metafamiliako *env* genean izan ezik. Bestalde, sekuentzian zehar kodoi gehienak hautespen purifikatzalepean egon ziren. Aipatutako Mf1-eko *env* izan ezik, aztertutako gainontzeko gene eta metafamiliek hautespen positibopean zeuden kodoiak azaldu zituzten (kodoien %1,955tik %31,926ra bitartean).

Hautespen ia-neutral eta positiboaren artean (IV-8. taula), aztertutako ERV gene eta metafamilia gehienetan hautespen ia-neutrala probableagoa izan zen. Hala ere, aztertutako sekuentzia guztien *pol* eta *env* geneetan eta Mf2 eta Mf3-ko *env* genean hautespen positibopean zeuden kodoiak detektatu ziren (kodoien %0,820tik %4,836era bitartean). Honetaz gain, kodoi gehienak hautespen purifikatzalepean egon ziren, Mf1-eko *env* genean izan ezik (kodoien %39,342). Hautespen neutralpean, aldiz, kodoien %10,531etik %60,658ra bitartean egon ziren.

Behia

Sekuentzia osoan zehar ω bakarra egoteko aukera edo 3 ω ezberdin egotearen artean (IV-7. taula), behiaren ERV gene eta metafamilia guztiak, 3 ω ezberdin onartzen dituen eredua probableagoa izan zen. Kasu guztiak sekuentziaren kodoi gehienak hautespen purifikatzalepean egon ziren. Hala ere, gene eta metafamilia gehienetan hautespen purifikatzalean zeuden kodoiak detektatu ziren. Salbuespenak sekuentzia guztien *pol* genea, Mf1 metafamiliako *gag* eta *env* geneak eta Mf3-ko *pol* eta *env* izan ziren, zeintzuetan bakarrik hautespen purifikatzalea detektatu zen. Hautespen positibopean zeuden kodoien proportzioa aldakorra izan zen, kasu batzuetan oso txikia izanik (adibidez, sekuentzia guztien *gag* genean kodoien %0,512) eta beste batzuetan oso handia (Mf4 metafamiliako *env* genean kodoien %44,702).

Hautespen ia-neutrala eta hautespen positiboaren artean eredu probableena aldakorra izan zen (IV-8. taula). Hala ere, sekuentziaren kodoi gehienetan hautespen purifikatzalea detektu zen, Mf1 metafamiliaren *gag* genean izan ezik (kodoien %48,190-k ω<1 izan zuten). Hautatutako behiaren ERV guztien sekuentziak analizatzerakoan, hiru geneen kodoiek hautespen positiboa (kodoien %0,374tik %0,804ra bitartean) azaldu zuten eta hautespen neutralpean kodoien %6,136tik %12,815era bitartean egon ziren. Metafamiliak aztertzerakoan, Mf4 eta Mf5 metafamilien hiru geneek eta Mf2-n *gag* genean hautespen positiboa azaldu zuten (kodoien %0,503tik %5,389ra bitartean). Kasu hauetan hautespen neutralpean kodoien %10,437tik %41,425era bitartean egon ziren; aztertutako gainontzeko kasuetan ω=1 kodoien %5,725etik %51,810era bitartekoia izan zen.

Zaldia

Aztertutako zaldiaren ERVen gene eta metafamilia guztiak sekuentzian zehar 3 ω ezberdin onartzen duen eredua probableena izan zen (IV-7. taula). Bai gene zein metafamilia guztiak kodoi gehienek ω<1 azaldu zuten. Gainera hainbat kasutan hautespen positibopean zeuden kodoiak detektatu ziren: Mf1 metafamiliaren *gag* (kodoien %21,082) eta *pol* (%0,905) geneetan, Mf3-ko *pol* (%10,602) eta *env* gene guztiak (sekuentzia guztiak kodoien %9,749, Mf1-en 3,349, Mf2-n %10,910 eta Mf3-n %19,896).

Hautatutako zaldiaren ERVen gene eta metafamilietan hautespen ia-neutrala hautespen positiboa baino probableagoa izan (IV-8. taula), Mf3 metafamiliako *pol* genean izan ezik. Kasu horretan kodoien %9,474ak ω>1 izan zuten eta ω=1 %26,139a. Gainontzeko kasuetan hautespen neutrala

Mamalioen erretrobirus endogenoen (ERV) dinamika ebolutiboa

kodoien %3,981tik %43,338ra bitartean egon zen. Hala ere, Mf3 metafamiliko *gag* eta *env* geneek gainontzeko metafamiliek baino kodoi gehiago azaldu zituzten hautespen neutralpean.

Laburpena

Oro har, aztertutako espezie eta metafamilia ia guztieta sekuentzien kodoi gehienetan hautespen purifikatzailea eman zen, $\omega < 1$ izan baitzen (IV-7. taula eta IV-8. taula). Emaitza honen arabera, badirudi gene erretrobiralek funtzioa mantentzeko presioa jasan dezaketela sekuentziaren proportzio handi batean.

Hala ere, espezie eta metafamilia gehienetan $\omega = 1$ edota $\omega > 1$ zuten kodoiak detektatu ziren, hau da, hautespenean ez zeuden eskualdeak edota eskualdeak zeintzuetan berrikuntza bultzatuta zegoen. Gainera, erabilitako bi analisiak, oro har, bat etorri ziren hautespen positibopean zeuden kodoien proportzioa detektatzerakoan.

Kasurik aipagarriena arratoiaren *gag* genea da, zeinetan metafamilia guztieta kodoi gehienetan $\omega = 1$ edo $\omega > 1$ izan baitzen, hots, hautespen purifikatzaileapean zeuden kodoiak nahiko gutxi izan ziren.

IV.4. Eztabaida

Lan honetan 7 mamalioen genometatik hautatutako erretrobirus endogenoen (ERV) errekonbinazio intergenikoaren, errekonbinazio intragenikoaren eta hautespenaren analisi sistematzikoa burtu zen ERV hauen kopia-kopuruaren emendioa eta sekuentzietan baimendutako aldaketak, hots, dinamika ebolutiboa, aztertzeko asmoarekin.

Lehenik eta behin esan beharra dago hemen aurkeztutako emaitzak ERVen azpitalde baten emaitzen isla direla. Zehazki, ERV hauet 3 gene erretrobiral nagusiak nahiko ondo mantendu zituztenak izan ziren. Ezaugarri hau zuten ERV gehienak I klasekoak izan ziren. Hortaz, emaitza hauet ondo kontserbatutako ERVetara alboratuta egon daitezke eta batez ere I klasera zuzenduak. Harrigarriki, ondo kontserbatutako ERV hauet txertaketa hein zabala izan zuten: ERV batzuk nahiko zaharrak izan ziren eta beste batzuk, aldiz, nahiko berriak. Adibidez, behiaren Mf5 metafamiliak 0.2 eta 40 miloi urte arteko txertaketa heina azaldu zuen eta txinpantzearen Mf3-k 1 eta 53 miloi urte artekoa. Hortaz, ERVen adinean ez zen alborapenik egon.

Baita ere, analisietan sakontzeko, ERVak metafamilia izeneko talde handitan taldekatu ziren eta metafamilia hauetako batzuetan ERV familia bat baino gehiagoko kideak taldekatu ziren. Horrela egitearen asmoa metafamiliak ahalik eta inklusiboenak egitea zen, lan honetan aztertu nahi ziren prozesu ebolutiboak, hotskopuru-emendioa eta sekuentzian baimendutako aldaketak, filogenetikoki gertu dauden ERVen artean gertatzea litekeena delako (Gifford & Tristem, 2003).

Bestalde, erabilitako metodologiek ere bere mugak izan zituzten. Errekonbinazio intergenikoa detektatzeko eraikitako zuhaitz filogenetikoek hainbat eragozpen izan zituzten. Alde batetik, hiru geneak batera egindako zuhaitzetan izan ezik, zuhaitz askok ez zuten nahi besteko bereizmenik eduki, adar batzuek ez baitzuten sendotasun estatistikorik izan. Gertakari honen jatorrian aztertutako nukleotido-luzeran eta ERVen dibergentzia-maila egon daitezke. Hortaz, historia ebolutibo ezberdina izan zuten ERVak eta euren geneak adierazterakoan soilik sendotasun estatistikoa izan zuten taldekapenak kontutan hartu ziren aztertutako espezietan, hots, gizaki, txinpantze, sagu, arratoi, txakur, behi eta zaldian.

Errekonbinazio intrageniko aztertzerakoan bost metodo ezberdin erabili ziren eta metodo ezberdinek batzuetan bat egin zuten eta besteetan ez. Mota honetako analisiak egiteko metodo bat baino gehiago erabiltzea gomendagarria da eta, gainera, erabilitako metodoak oinarri ezberdina edukitzea (Posada, 2002). Hortaz, bi metodo filogenetiko (RDP eta PLATO), eta ordezpeneko hiru metodo (Maxchi, Chimaera eta Geneconv, azken hau gene konbertsioa espresuki detektatzeko diseinatua dagoena) erabili ziren. Metodo bakoitzak errendimendu ezberdina du datuen arabera eta faltsu-positiboen eta faltsu-negatiboen tasa ezberdinak dituzte (Posada, 2002). Hori dela eta, alde batetik zuzenketarik zorrotzena erabili zen (Bonferroni zuzenketa) errekonbinazio seinaleak ahalik eta esangarrienak zirela ziurtatzeko eta, bestetik, metodo ezberdinen emaitzak uztartu ziren metodo

gehieneak bat egiten zuten eskualdeak kontutan hartzeko.

Azkenik, metodologiari dagokionez, adierazi beharra dago gizakien ERVetan hautespna kalkulatzeko metodo ezberdinak erabili direla ERVek aurkezten dituzten lerrokatzeako arazoak direla eta (Belshaw et al., 2004; Belshaw et al., 2005). Programa horiek gure datuak lerrokatzerakoan huts egin zuten, hots, ez ziren aproposak gure datuak lerrokatzeo. Hortaz, hautespna kalkulatzeko modua guk diseinatutako metodologia erabili genuen eta, agian, kontserbazioaren gainestima egon daitezke irakurtarauak mantendu nahian.

Lan honetan gizakian dauden ERVak ere aztertu ziren, lehendik ere azterketa sakona jaso bazuten ere (Belshaw et al., 2004; Belshaw et al., 2005). Orain arte aipatutako eragozpenen eragina “neurtzeko” gizakiaren ERVak analizatzea baliagarria izan zen, eragozpenek eragin zitzaketen alborapenen “kontrol” modura eta, horrela, eragozpen hauek maneiatzeko. Bestalde, zazpi genometan detekzioetarako analisietara metodologia berdina erabiltzeak, genoma ezberdinak balizko alborapen berdinekin konparatzea ahalbidetu zuen.

Behin analisi hauen mugak argitu eta finkatu direla, emaitzak aztertuz espezie ezberdinetan hautatutako ERVek, euren dinamika ebolutiboan, hainbat joera komun izan zituzten. LTR eta zati zentralaren arteko erlazioari dagokionez, karraskarietan, oro har, LTR eta geneek jatorri berdina azaldu zuten. Behian eta gizakian, ordea, jatorri ezberdina zuten hainbat kasu detektatu ziren, hala nola, behiaren Mf5 metafamiliako hainbat kide edo gizakiaren Mf4-ko hainbat kide. Bi espezie hauetako hainbat ERVen LTR eta zati zentralaren jatorria ez zen berdina izan, lehendik gizakien ERVetan ezaguna zen gertaera (Belshaw et al., 2004; Hughes & Coffin, 2005). Berriki egindako ikerketa batean (Benachenhou et al., 2009), I klaseko ERVetan *pol* genearen eta LTRen zuhaitzek, oro har, adarkadura berdina zutela ondorioztatu zuten, II klasekoetan, aldiz, ezberdintasunen bat azaltzen zuten *pol* genearen eta LTRen zuhaitza erkatzerakoan (Benachenhou et al., 2009). Gertaera hauek, barne-zatien arteko errekonbinazioekin baino, solo-LTR, genoman zehar zati zentralik gabe agertzen diren LTRak, eta ERV osoak baino askoz ere ohikoagoak diren egiturak, eta barne zatien arteko gene konbertsio edo errekonbinazioarekin erlazionatuta egon daitezkeela aditzera eman da (Belshaw et al., 2004).

Lan honetan, lehen aldiz, errekonbinazio intragenikoa detektatzeko diseinatutako programak erabiliz, ERVetan egindako errekonbinazio intragenikoari buruzko azterketa espezifikoa aurkezten da. Orain arte prozesu hau gizakien (Belshaw et al., 2004; Hughes & Coffin, 2005; Kjeldbjerg et al., 2008) eta txerrien (Lee et al., 2008) ERVetan aztertu da soilik. Kasu batzuetan errekonbinazio intragenikoa analisi filogenetikoen sendotasuna neurtzeko erabili izan da (Belshaw et al., 2004) edo ez ziren programa espezifikoak erabili (Hughes & Coffin, 2005; Lee et al., 2008). Salbuespna gizakiaren ERV-V familiaren *env* geneari buruzko lan batean dago (Kjeldbjerg et al., 2008), zeinean Geneconv programa erabili zen eta familia horren *env* gene konbertsioa detektatu zen. Bestalde, txerriaren *env* geneen artean ere errekonbinazioa detektatu zen (Lee et al., 2008), baina prozedura nahiko simple baten bidez egindako azterketaren bidez.

Oro har, errekonbinazio intragenikoa espezie eta metafamilia bakoitzean modu ezberdinean gertatu zela ikusi zen. Hala ere, kasu batzutan, hala nola, behiaren ERVen hiru geneetan edota saguaren ERVen genetan, seinale errekonbinante sendoa zuten eskualdeak egon ziren. Hortaz, modu aldakorrean bada ere, errekonbinazioa gertatu gertatzen dela ondorioztatu daiteke. Salbuespen bakarra zaldiaren ERVak izan ziren, oso gertaera gutxi detektatu baitziren. Erabilitako ERV kopurua (22 sekuentzia) mugatua izan bazen ere, txakurraren pareko kopurua (23 sekuentzia) izan zen eta espezie honetako ERVetan errekonbinazio-gertaerak detektatu egin dira. Gainera, Posadak errekonbinazioa detektatzeko erabilitako sekuentzia-kopuruak eraginik ez zuela iradoki zuen (Posada, 2002) eta lan honetan, RDP metodoan izan ezik, ez dugu detektatutako errekonbinazio-gertaera eta sekuentzia-kopuruaren artean korrelaziorik ikusi. Hortaz, erabilitako ERV kopuruaren eragina baztertu daiteke eta zaldiaren genoman ERVek dinamika ezberdina izan dezaketela ondoriozta liteke.

Errekombinazioa retrovirus exogenoetan nahiko ohikoa den prozesu bat da (Robertson et al.,

1995; Vogt, 1997), hortaz, euren kide endogenoek gaitasun hori mantentzea ez litzateke horren harrigarria izango. Gainera, ERVen arteko homologia maila altua kontutan hartuta, errekonbinazio-gertaerak ematea ezin daiteke baztertu (Kjeldbjerg et al., 2008). Homologian oinarritutako errekonbinazioaz gain, erretrobirus endogenoen arteko errekonbinazio ez-homologoak egon daitezkelo aditzera eman da (Jern & Coffin, 2008). Ildo honekin jarraituz, saguetan ERVekin erlazioa duten IAP (*Intracistinal A-type particle*) elementuen eta erretrobirala ez den RNA-birus exogeno baten arteko errekonbinazio ez-legitimoa deskribatu da (Geuking et al., 2009). Adibide guzti hauek hemen aurkeztutako ERVen errekonbinazio intragenikoaren gertaera indartzen dute.

Hautespenaren eta errekonbinazio intergenikoaren emaitzak uztartuz ERVen kopuru emendioari buruz hainbat ondorio lor daitezke. Honetarako *env* genearen hautesprena berrinfekzioa erretrotransposiziok ezberdintzeko gakoa da: dn/ds proportzioa (ω) 1 baino txikiagoa bada, funtzioa mantentzen duen heinean, berrinfekzioa gertatu dela ondoriozta daiteke. Bestalde, erretrotransposizioaren barnean *cis* era eta *trans* era ezberdintzeko *gag* eta *pol* geneen ω erabiltzen da: bietan 1 baino txikiagoa bada, funtzioa mantentzen dutenez, kopuru emendioa *cis* eran gertatu dela ondoriozta daiteke. Azkenik, hiru geneen ω ez bada 1 baino txikiagoa, kopuru emendioa *trans* eraren bidez gertatu dela ondorioztatu daiteke (Belshaw et al., 2004; Belshaw et al., 2005; Katzourakis et al., 2005). Gainera, errekonbinazio intergenikoak ERV baten geneen jatorriari buruz informazioa ematen duenez, jatorri ezberdina duten geneei buruz informazioa ematen digu.

Hortaz, behietan eta zaldietan, bi informazio hauek batuz, ERV gehienak berrinfekzio bidez ugaritu direla ondoriozta daiteke, gizakian, txipantzean, saguetan eta txakurran gertatzen den era berean. Alde batetik, oro har, hiru gene erretrobiral nagusietan hautesprena purifikatzaila izan zen, iadanik gizakiaren ERVen *pol* (Gifford & Tristem, 2003) eta *env* (Benit et al., 2001) geneetan ezaguna zena eta ERVen funtzioa mantentzearekin lotzen dena. Bestetik, oro har, ERV gutxiren geneek jatorri ezberdina izan zuten, hots, errekonbinazio intergenikorik gertatu ez zela eta, ondorioz, beste ERV batek utzitako generik ez zutela euren egituraren barneratu. Gainera, hautespenari dagokionez, purifikatzaila ez ezik, barneko adarrek kanpokoek baino ω txikiagoa azaldu zuten. Gertaera hau ERVen aitzindariak, hots ez finkatutako ERVak, hautespenean egotearekin erlazioa duela aditzera eman da eta, hau, *trans* erako eboluzioa oso ohikoa ez izanarekin lotu da (Belshaw et al., 2004). Adierazi beharra dago hautesprena purifikatzaila deigarria izan daitekeela DNA zabortzat jotzen diren elementu hauetan. Hala ere, gorago aipatu bezala, gene erretrobiraletan hautesprena purifikatzailaren deskribapena lehengokoa da (Benit et al., 2001; Gifford & Tristem, 2003) eta aurrerago ω balio hauen interpretazioaz arituko gara.

Hautesprena purifikatzailaren orokortasun honetatik hainbat gene eta metafamilia urrundu ziren. Hainbat analisitan barneko adarrek $\omega > 1$ azaldu zuten, adibidez, behiaren Mf3 metafamiliako *env* geneak, zaldiaren Mf3 metafamiliako *gag*ek, txinpantzearen Mf6-ko *gag* eta *pol*ek eta saguaren Mf2-ko *pol* eta *env* eta Mf3-eko *pol*. Salbuespen hauetan, behiaren, zaldiaren eta arratoiaren salbuespenen kasuan (arratoiaren Mf4 metafamilian izan ezik), gene horien metafamilia horietan errekonbinazio intergeniko kasuak ere detektatu ziren. Beraz, kasu hauetan, erretrotransposizioa gertatu izana ezin daiteke baztertu. Txinpantzearen Mf6 metafamiliaaren kasuan, ordea, *gag* eta *pol*en barneko adarrek $\omega > 1$ azaldu bazuten ere, historia ebolutibo ezberdina *env* geneak izan zuen. Bestalde, saguaren salbuespenen kasuan ez zen gene horien errekonbinazio intergenikorik detektatu. Salbuespen hauen ω ikusita, hots, gene bat behintzat hautesprena purifikatzailapean ez zegoenez, berrinfekzioa baztertu behar da (Belshaw et al., 2005). *gag* eta *pol* $\omega < 1$ mantentzen ziren kasuetan kopuru emendioa *cis* erako erretrotransposizio bidez gertatu zela inferitu daiteke (behiaren Mf3 metafamilia) eta bi gene hauetako batean $\omega > 1$ bazeen, *trans* erako erretrotransposizioaren bidez ugaritu zirela (zaldiaren Mf3 metafamilia, txinpantzearen Mf6, saguaren Mf2 eta Mf3). Analisi hauetan kasurik deigarriena arratoiaren metafamilia guztiako *gag* geneak izan ziren: 5 metafamilietan $\omega > 1$ izan zen adar guztieta eta metafamilia guztieta, Mf4 izan ezik, errekonbinazio intrageniko gertaerak detektatu ziren. Hortaz, emaitzek arratoian metafamilietan sailkatzen diren ERVen kopia-kopuruaren emendioa *trans*-erretrotransposizioan gertatu zela aditzera ematen dute.

Adierazi beharra dago hemen aurkezten diren emaitzak berrinfekzioaren gainestima bat izan daitezkela. Gorago aipatu bezala, gizakia kontrol moduan edukitzea emaitzak neurtzeko lagungarri izan daiteke. Gizakien ERVetan berrinfekzioa nagusi bada ere (Belshaw et al., 2004; Belshaw et al., 2005), familia batzuk transposizio bidez ugaritu dira (Belshaw et al., 2005): HERV-H familiaren klado bat *cis* eran ugaritu zen, HERV-W-ren heren bat LINE-en bidez eta ERV9 *trans* eran. HERV-H-ko ERVak lan honetako Mf4-ean barneratu ziren, ziur asko gehienak *cis* eran ugaritu ez diren kladokoak, *env* genea hautespenean zegoela detektatu baitzen, berrinfekzio bidez ugarituko kladoan gertatzen dena (Belshaw et al., 2005). HERV-W familiarekin antzeko gertaeraren aurrean egon gitezke: lan honetan Mf6 metafamilian barneratu zen eta ez zenez *env* genean hautespenaren erlaxaziorik ikusi, hemen analizatutako ERV gehienak familia horretako berrinfekzio bidez ugaritu diren ERVak izatea pentsa daiteke (Belshaw et al., 2005).

Gizakiaren ERV9 familiaren kasua korapilatsuagoa da. Familia hau ere Mf6 metafamilian barneratu zen eta metafamilia honetan ere *pol* jatorri ezberdina zuten ERVak multzo bat osatu zuten. Agian, hemen, hainbat seinale ezberdinak gurutzatu ziren. Alde batetik, lehenago aipatu bezala, ERV9 filialian *pol* eta *env* geneetan hautespenea erlaxatua zegoela aditzera eman da eta, hortaz, *trans* erako erretrotransposizioa ugaritze mekanismoa nagusi zela (Belshaw et al., 2005). Era berean, familia honetan egindako azterketa sakon batean (Costas & Naveira, 2000), familia honen eboluzioa paraleloan eboluzionatu duten azpifamiliatz osatuta zegoela eta aktibitateren bat manten zezakeela aditzera eman zen. Agian gure emaitzetan orain dela gutxi arte aktibo mantendu diren familia honen ERVak edota azpifamiliien gainerrepresentazioa egon zen eta ez *trans* eran ugaritu ziren ERV edo azpifamiliuenak.

Emendio-mekanismoei aritzerakoan aipatu bezala hautespena, oro har, purifikatzalea da. Hala ere, $\omega < 1$ horren azpian hautespen purifikatzaleapean dauden kodoietaz gain, metafamilia gehienetan hautespen neutraldun edota positibodun kodoiak proportzio ezberdinean detektatu ziren.

Lan honetan hautespna nolakoa den azterzko lau eredu testatu ziren (sekuentzia osoan zehar ω bakarra, sekuentzia osoan zehar 3 ω , hautespen ia-neutrala eta hautespen positiboa) eta binakako konparaketak egin ziren (ω bakarra vs 3 ω ; ia-neutrala vs positiboa) eredu probableena aukeratzeko. Oro har, hautespen positiboa detektatu zen kasuetan, sekuentzian zeharreko ω -etako bat bat baino handiagoa zen ere. Hala ere eredu probableena aukeratzeko erabilitako bi analisiak bat etorri ez ziren kasuak egon ziren. Ohiko kontraesan bat sekuentzian zeharreko hiru ω -etako bat, bat baino handiagoa izanik ere hautespen positiboa ia-neutrala baino probableagoa ez izatea izan zen. Kasu hauetan, askotan, $\omega > 1$ hori ez zen batetik asko aldendu. Eredu hau erabiltzerakoan ω batetik asko ez aldentzea emaitzak faltsu positibotzat hartzea gomendatzen da eta ia-neutrala vs hautespen positiboko analisiaren emaitzak lehenestea (Yang, 1997 – PAMLen gidaliburua). B

Honekin lotuta, hautespen positibopean zeuden proportzioak txikiak izan zirenko kasuetan, errekonbinazioaren eragina ezin daiteke baztertu. Dirudienez, errekonbinazio-gertaera asko daudenean, egiantz-arrazoi test bidezko analisien (lan honetan burututakoen) faltsu positiboen tasa handitzen da (Anisimova et al., 2003). Beraz, hautespen positiboa proportzio txikian detektatu direnean faltsu positiboa direla ezin daiteke baztertu.

Salbuespenak alde batera utzita, hautespen purifikatzaleapean, neutralpean eta positibopean dauden kodoiak detektatu ziren. Gorago aipatu bezala, gizakiaren ERVen geneak hautespen purifikatzaleapean daudela ezaguna bada ere (Benit et al., 2001; Gifford & Tristem, 2003; Belshaw et al., 2004; Belshaw et al., 2005), hautespen neutralaren eta positiboa eragina ez da horren ezaguna. Gizakien eta txinpantzen ERV-K filialian (lan honetan gizakiaren Mf2 eta txinpantzearen Mf4 metafamilietaen barneratzen direnak) hautespen neutrala eta positiboa detektatua izan da ere (Romano et al., 2006).

Alde batetik, hautespen neutrala DNA zaborran itxaron daiteken hautespna da. Adibidez, arratoiaren ERVen *gag* genean gertatzen dena. Hautespen-mota hau pseudogeneek nagusiki azaltzen duten hautespna den heinean (Torrents et al., 2003), ERVetan hautespen neutrala agertzeak pseudogeneek jasotzen duten prozesua jasotzen ari direla adieraz lezake. Gainera, sekuentzian zehar

$\omega < 1$ ezberdinak ematen dira, batzuk besteak baino altuagoak, hautespenaren erlaxazioarekin erlazionatuta egon daitezkenak. Hortaz, ezin daiteke baztertu, gene erretrobiralen inaktibazioa graduala izatea eta kodoi gehienek (baina ez guztiek) hautespen purifikatzalea mantentzen dutenez, sekuentzia osoaren $\omega < 1$ izatea.

Bestetik, hautespen positiboa detektatzea deigarriagoa da. Gorago azaldu bezala errekonbinazioak hautespen positiboaren gainestima eragiten du. Hala ere, badaude proportzio altutan hautespen positiboa azaldu duten adibideak: behiaren Mf2-ko *gagek* (kodoien %5.39), zaldiaren Mf3-ko *polek* (%9.47) edo saguaren Mf5-eko *gagek* (%5.63). XRVetan hauespen positiboa detektatu bada ere (Lemey et al., 2005), ERVetan hautespen-mota honen agerpena azaltza zailagoa litzateke. XRVen kasuan hautespen positiboa ostalariaren erantzun immunea saihesteko estrategia izan daitelkeela proposatu da (Lemey et al., 2005) baina ERVen kasuan azalpen hau ez litzateke guztiz argigarria izango, ostalariaren genomaren parte diren heinean. Esan bezala, hainbat kodoietan berrikuntza baimenduta egotea nahiko harrigarria da, batez ere DNA zabortzat hartu ohi diren elementuetan. Erretrobirus edo erretrobirusen pareko elementuetan halako emaitzak “domestikatu” diren gene erretrobiraletan, hots, ostalariak bere onerako erabiltzen dituen geneetan, ikusi da, hala nola, saguan *gag* gene batean jatorria duen Fv1 genean (Qi et al., 1998) eta *Drosophilan Iris* elementuan (Malik & Henikoff, 2005). Lan hauetan espezie ezberdinatik lortutako elementu homologoetan hautespenaren analisiak egin ziren eta sekuentziak edo zenbait kodoi hautespen positibopean zeudela ikusi zen. Elementu hauen kasuan, erretrobirusen aurreko defentsan lagundu dezaketenez, erretrobirus ezberdinak ezagutzeko presioa izatea eta, ondorioz, hautespen positiboa egotea proposatu da (Qi et al., 1998 ; Malik & Henikoff, 2005). Hala ere emaitza hauak mekanismoen analisi sakonagoa beharko lukete eta gertaera hau azaltzen dituen mekanismo ezberdinaren proposamena.

Laburbilduz, lan honetan hainbat espezieren ERVen azpimultzo baten dinamika ebolutiboa aztertu zen. Lortutako emaitzak anitzak izan baziren ere, espezie ezberdinetan hainbat orokortasun ikusi ziren. ERVen kopuruaren ugaritzeari zegokiola, espezie gehienetan berrinfekzioaren bidez gertatu zen. Salbuespena arratoien ERVak izan ziren, zeintzuek *gag* gene ez-funtzionala azaldu zuten hautespenaren analisia eta, hortaz, ugaritzeko *trans*-erretrotransposizioa erabili izana ezin daiteke baztertu. Sekuentziaren osotasunaren mantenzeari zegokiola, errekonbinazio intragenikoaren gertaerak ohikoak izan ziren, zaldiaren ERVetan izan ezik. Gainera sekuentzian zehar hautespen-patroi anitza azaldu zuten, sekuentziaren zati gehiena hautespen purifikatzalean baitzeuden, baina hautespen positiboa zuten zatiak ere detektatu ziren. Guzti honek ERV hauen dinamika ebolutibo konplexu eta bizi bat azaldu digu, ERVak mutazioak pairatzen dituen eta inaktiboak diren DNA-zaborraren sekuentzia-iruditik urrunduz.

IV.5. Bibliografia

- Altschul, S., T. Madden, A. Schaffer, J. Zhang, Z. Zhang, W. Miller, and D. Lipman. 1997. Gapped BLAST and PSI-BLAST: a new generation of protein database search programs. Nucleic Acids Research **25**:3389-3402.
- Anisimova, M., R. Nielsen, and Z. Yang. 2003. Effect of recombination on the accuracy of the likelihood method for detecting positive selection at amino acid sites. Genetics **164**:1229-1236.
- Baillie, G., L. van de Lagemaat, C. Baust, and D. Mager. 2004. Multiple groups of endogenous betaretroviruses in mice, rats, and other mammals. Journal of Virology **78**:5784-5798.
- Belshaw, R., A. Katzourakis, J. Paces, A. Burt, and M. Tristem. 2005. High copy number in human endogenous retrovirus families is associated with copying mechanisms in addition to reinfection. Mol Biol Evol **22**:814-817.
- Belshaw, R., V. Pereira, A. Katzourakis, G. Talbot, J. Paces, A. Burt, and M. Tristem. 2004. Long-term reinfection of the human genome by endogenous retroviruses. Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America **101**:4894-4899.
- Benachenhou, F., V. Blikstad, and J. Blomberg. 2009. The phylogeny of orthoretroviral long terminal repeats (LTRs). Gene **448**:134-138.
- Benit, L., P. Dessen, and T. Heidmann. 2001. Identification, phylogeny, and evolution of retroviral elements based on their envelope genes. Journal of Virology **75**:11709-11719.
- Boeke, J. and J. Stoye. 1997. Retrotransposons, endogenous retroviruses, and the evolution of retroelements, p. 343-435. In J. Coffin, S. Hughes, and H. Varmus (eds.), Retroviruses. Cold Spring Harbor Laboratory Press, Cold Spring Harbor, NY.

- Castresana, J.** 2000. Selection of conserved blocks from multiple alignments for their use in phylogenetic analysis. *Mol Biol Evol* **17**:540-552.
- Costas, J. and H. Naveira.** 2000. Evolutionary History of the Human Endogenous Retrovirus Family ERV9. *Mol Biol Evol* **17**:320-330.
- Geuking, M. B., J. Weber, M. Dewannieux, E. Gorelik, T. Heidmann, H. Hengartner, R. M. Zinkernagel, and L. Hengartner.** 2009. Recombination of Retrotransposon and Exogenous RNA Virus Results in Nonretroviral cDNA Integration. *Science* **323**:393-396.
- Gifford, R., P. Kabat, J. Martin, C. Lynch, and M. Tristem.** 2005. Evolution and distribution of class II-related endogenous retroviruses. *Journal of Virology* **79**:6478-6486.
- Gifford, R. and M. Tristem.** 2003. The evolution, distribution and diversity of endogenous retroviruses. *Virus Genes* **26**:291-316.
- Grassly, N. and E. Holmes.** 1997. A likelihood method for the detection of selection and recombination using nucleotide sequences. *Mol Biol Evol* **14**:239-247.
- Guindon, S. and O. Gascuel.** 2003. A simple, fast, and accurate algorithm to estimate large phylogenies by maximum likelihood. *Systematic Biology* **52**:696-704.
- Hughes, J. and J. Coffin.** 2005. Human endogenous retroviral elements as indicators of ectopic recombination events in the primate genome. *Genetics* **171**:1183-1194.
Biological process - level 3 (16.19% - 15.3%)	response to biotic stimulus (GO:0009607)	79.6%-20.4%	0.00327771
Biological process - level 4 (15.56% - 14.61%)	response to other organism (GO:0051707)	82.5%-17.5%	0.0150532
Biological process - level 5 (14.43% - 13.5%)	response to virus (GO:0009615)	90.8%-9.2%	0.00555589
100kb upstream (1501 genes)			
Biological process - level 3 (17.65% - 15.3%)	defense response (GO:0006952)	72.92%-27.08%	0.00441543
Biological process - level 3 (17.65% - 15.3%)	response to biotic stimulus (GO:0009607)	71.69%-28.31%	0.0386125
Biological process - level 5 (15.99% - 13.5%)	response to virus (GO:0009615)	85.87%-14.13%	0.0211188
Biological process - level 5 (15.99% - 13.5%)	chromosome organization and biogenesis (GO:0051276)	72.88%-27.12%	0.0420535
Biological process - level 6 (13.46% - 12%)	DNA packaging (GO:0006323)	75.86%-24.14%	0.0193006
Biological process - level 6 (13.46% - 12%)	chromosome organization and biogenesis (sensu Eukaryota) (GO:0007001)	74.55%-25.45%	0.0193006
Biological process - level 7 (9.19% - 8.28%)	establishment and/or maintenance of chromatin architecture (GO:0006325)	76.05%-23.95%	0.0241623
Biological process - level 7 (9.19% - 8.28%)	macromolecule complex assembly (GO:0065003)	72.51%-27.49%	0.0396039
Biological process - level 8 (7.46% - 6.84%)	chromatin assembly or disassembly (GO:0006333)	79.14%-20.86%	0.00141176
Biological process - level 8 (7.46% - 6.84%)	protein-DNA complex assembly (GO:0065004)	79.62%-20.38%	0.00141176
Biological process - level 9 (4.13% - 2.63%)	chromatin assembly (GO:0031497)	75.53%-24.47%	0.0164131
5kb downstream (84 genes)			
-			
50kb downstream (773 genes)			
Biological process - level 5 (14.62% - 13.5%)	response to virus (GO:0009615)	89.59%-10.41%	0.0410523
100kb downstream (1429 genes)			
Biological process - level 3 (17.28% - 15.3%)	response to biotic stimulus (GO:0009607)	74.27%-25.73%	0.0136013
Biological process - level 3 (17.28% - 15.3%)	defense response (GO:0006952)	70.27%-29.73%	0.025116
Biological process - level 3 (17.28% - 15.3%)	chromosome segregation (GO:0007059)	89.67%-10.33%	0.025116
Biological process - level 4 (16.38% - 14.61%)	mitotic cell cycle (GO:0000278)	82.4%-17.6%	0.0127038
Biological process - level 4 (16.38% - 14.61%)	response to other organism (GO:0051707)	76.46%-23.54%	0.0340293
Biological process - level 7 (9.52% - 8.28%)	M phase of mitotic cell cycle (GO:0000087)	82.03%-17.97%	0.0346265
Biological process - level 8 (7.56% - 6.84%)	mitosis (GO:0007067)	82.6%-17.4%	0.0232046

Supplementary table V-4: Summary of Gene Ontology analysis by Babelomics in dataset IV.
Detailed information of table V-4.

GO ontology and level (% of annotated genes in gene set - genome)	GO Term	Dataset vs genome	Adjusted p-value
<u>Included - ERV in gene (4 genes)</u>			
-			
<u>Included - Intron (24 genes)</u>			
-			
<u>5kb upstream (5 genes)</u>			
-			
50kb upstream (87 genes)			
Biological process - level 3 (21.84% - 15.3%)	cellular developmental process (GO:0048869)	83.59%-16.41%	0.0047307
Biological process - level 4 (21.84% - 14.61%)	organelle organization and biogenesis (GO:0006996)	87.33%-12.67%	0.00587869
Biological process - level 4 (21.84% - 14.61%)	cell differentiation (GO:0030154)	82.94%-17.06%	0.00797354
Biological process - level 5 (20.69% - 13.5%)	chromosome organization and biogenesis (GO:0051276)	93.3%-6.7%	0.000103417
Biological process - level 5 (20.69% - 13.5%)	DNA metabolic process (GO:0006259)	87.62%-12.38%	0.00262703
Biological process - level 5 (20.69% - 13.5%)	cell development (GO:0048468)	85.72%-14.28%	0.00262703
Biological process - level 6 (19.54% - 12%)	DNA packaging (GO:0006323)	93.89%-6.11%	6.62942e-05
Biological process - level 6 (19.54% - 12%)	chromosome organization and biogenesis (sensu Eukaryota) (GO:0007001)	93.12%-6.88%	7.52495e-05
Biological process - level 6 (19.54% - 12%)	cellular component assembly (GO:0022607)	91.55%-8.45%	0.000210856
Biological process - level 7 (17.24% - 8.28%)	establishment and/or maintenance of chromatin architecture (GO:0006325)	92.33%-7.67%	0.00031431
Biological process - level 7 (17.24% - 8.28%)	macromolecule complex assembly (GO:0065003)	89.94%-10.06%	0.00104753
Biological process - level 8 (14.94% - 6.84%)	chromatin assembly or disassembly (GO:0006333)	93.09%-6.91%	5.86038e-05
Biological process - level 8 (14.94% - 6.84%)	protein-DNA complex assembly (GO:0065004)	93.27%-6.73%	5.86038e-05
Biological process - level 9 (10.34% - 2.63%)	chromatin assembly (GO:0031497)	89.75%-10.25%	0.00050396
100kb upstream (169 genes)			
Biological process - level 3 (24.26% - 15.3%)	cellular developmental process (GO:0048869)	83.38%-16.62%	7.25491e-07
Biological process - level 3 (24.26% - 15.3%)	cellular component organization and biogenesis (GO:0016043)	77.67%-22.33%	0.000148593
Biological process - level 4 (22.49% - 14.61%)	organelle organization and biogenesis (GO:0006996)	88.07%-11.93%	9.43135e-08
Biological process - level 4 (22.49% - 14.61%)	cell differentiation (GO:0030154)	83.78%-16.22%	4.33358e-07
Biological process - level 4 (22.49% - 14.61%)	nucleobase, nucleoside, nucleotide and nucleic acid metabolic process (GO:0006139)	69.88%-30.12%	0.00557195
Biological process - level 4 (22.49% - 14.61%)	biopolymer metabolic process (GO:0043283)	65.44%-34.56%	0.0272935
Biological process - level 5 (21.89% - 13.5%)	chromosome organization and biogenesis (GO:0051276)	93.56%-6.44%	1.84977e-11
Biological process - level 5 (21.89% - 13.5%)	DNA metabolic process (GO:0006259)	88.73%-11.27%	6.45347e-09
Biological process - level 5 (21.89% - 13.5%)	cell development (GO:0048468)	86.12%-13.88%	2.96171e-08
Biological process - level 6 (20.71% - 12%)	DNA packaging (GO:0006323)	94.12%-5.88%	5.79799e-12
Biological process - level 6 (20.71% - 12%)	chromosome organization and biogenesis (sensu Eukaryota) (GO:0007001)	93.37%-6.63%	1.55866e-11
Biological process - level 6 (20.71% - 12%)	cellular component assembly (GO:0022607)	91.85%-8.15%	2.01256e-10
Biological process - level 7 (16.57% - 8.28%)	establishment and/or maintenance of chromatin architecture (GO:0006325)	93.25%-6.75%	1.9764e-11
Biological process - level 7 (16.57% - 8.28%)	macromolecule complex assembly (GO:0065003)	91.12%-8.88%	5.0854e-10
Biological process - level 8 (15.38% - 6.84%)	chromatin assembly or disassembly (GO:0006333)	93.52%-6.48%	4.25568e-12
Biological process - level 8 (15.38% - 6.84%)	protein-DNA complex assembly (GO:0065004)	93.69%-6.31%	4.25568e-12
Biological process - level 9 (10.65% - 2.63%)	chromatin assembly (GO:0031497)	90.36%-9.64%	1.38585e-10
5kb downstream (8 genes)			
50kb downstream (74 genes)			
100kb downstream (137 genes)			
-			

Genes around bovine endogenous retroviruses (BoERVs) are related to host defense and histone functions

V-5. Supplementary Table: Genes which appeared in two datasets or more in a GO term and range.

In *italics* genes which appeared in three datasets, in **bold** in four. The definitions can be consulted in Entrez Gene (<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/gene>)

	Gene in BoERV	50kb upstream	100kb upstream	5kb downstream	50kb downstream	100kb downstream	
response to virus	LOC513706 <i>LOC617135</i> <i>LOC618859</i> <i>LOC618974</i> <i>LOC619113</i> <i>LOC783912</i>	BECN1 <i>IFN-tau-c1</i> LOC515549 LOC523509 LOC540442 LOC616977	IFN-tau-c1 LOC517556 LOC618801 LOC618974 LOC619113 LOC781424 LOC782273 TP-1	IFNW1 LOC513706 LOC523509 LOC538589 LOC540442 LOC616272 LOC616977 LOC617112 LOC61712 LOC617556 LOC618801 LOC618943 LOC618974 LOC619092 LOC619113 LOC781424 LOC782273 LOC783912 TP-1	BNIP3L IFNG IFNW1 LOC513706 LOC523509 LOC538589 LOC540442 LOC616272 LOC616977 LOC617112 LOC618801 LOC618859 LOC618943 LOC618985 LOC619113 LOC61985 LOC781732 LOC781778 LOC782273 LOC781732 LOC781778 LOC781815 LOC782273 LOC783912 TP-1	H2AFX H3F3A LOC404073 LOC509275 LOC512612 LOC518961 LOC519069 LOC517481 LOC521580 LOC519069 LOC520120 LOC521580 LOC521581 LOC523214 LOC527388 LOC529646 LOC529647 LOC540148 LOC613926 LOC618824 LOC787528	H2AFX H3F3A LOC404073 LOC509275 LOC512612 LOC518961 LOC519069 LOC519861 LOC521580 LOC523214 LOC527388 LOC529646 LOC529647 LOC540148 LOC613926 LOC618824 LOC787528
chromatin assembly	LOC521580 LOC521581 <i>LOC527388</i> <i>LOC529646</i> <i>LOC529647</i> <i>LOC540148</i> <i>LOC618824</i>	H2AFZ LOC505183 <i>LOC509275</i> <i>LOC518961</i> <i>LOC521580</i> <i>LOC521581</i> <i>LOC523214</i> <i>LOC524808</i> <i>LOC527388</i> <i>LOC529646</i> <i>LOC529647</i> <i>LOC540148</i> <i>LOC613926</i> <i>LOC618824</i> <i>LOC787528</i>	H3F3A LOC404073 <i>LOC509275</i> <i>LOC512612</i> <i>LOC518961</i> <i>LOC519069</i> <i>LOC521580</i> <i>LOC521581</i> <i>LOC523214</i> <i>LOC527388</i> <i>LOC529646</i> <i>LOC529647</i> <i>LOC540148</i> <i>LOC613926</i> <i>LOC618824</i> <i>LOC787528</i>	H2AFX H3F3A LOC404073 LOC509275 LOC512612 LOC518961 LOC519069 LOC519861 LOC520120 LOC521580 LOC521581 LOC523214 LOC527388 LOC529646 LOC529647 LOC540148 LOC613926 LOC618824 LOC787528	H2AFX H3F3A LOC404073 LOC509275 LOC512612 LOC518961 LOC519069 LOC519861 LOC520120 LOC521580 LOC521581 LOC523214 LOC527388 LOC529646 LOC529647 LOC540148 LOC613926 LOC618824 LOC787528	H2AFX H3F3A LOC404073 LOC509275 LOC512612 LOC518961 LOC519069 LOC519861 LOC520120 LOC521580 LOC521581 LOC523214 LOC527388 LOC529646 LOC529647 LOC540148 LOC613926 LOC618824 LOC787528	

**VI. Behiaren erretrobirus
endogenoen (BoERV)
adierazpena behiaren (*Bos taurus*)
EST-etan**

VI. I. Sarrera

Erretrobirus endogenoak (ERV, *endogenous retrovirus*) ostalariaren hozi-lerroan txertatu diren erretrobirus exogenoen fase probiralak dira eta belaunaldietan zehar genoma ostalarian txertatuta mantendu dira (Boeve & Stoye, 1997).

ERVak ornodunetan detektatuak izan dira eta euren egitura hiru gene nagusi aurkitzen dira: *gag*, erretrobirusaren egitura proteinak kodetzen dituen genea; *pol*, erretrobirusaren erreplikaziorako eta insertziorako beharrezkoa den makinaria entzimatikoa kodetzen duen genea; eta *env*, erretrobirusaren estalkiaren glikoproteinak kodetzen dituen genea. Gene hauek osotzen duten zati zentralaren alboetan LTRak (*long terminal repeats*) aurkitzen dira, zeinetan kontrol eskualdeak kokatzen diren, hala nola, promotoreak eta areagotzaileak (Griffiths, 2001; Gifford & Tristem, 2003).

ERVak, oro har, 3 klasetan sailkatzen dira, erretrobirus exogenoen generoekin duten erlazio filogenetikoaren arabera: I klasea, *Gammaretrovirus* eta *Epsilonretrovirus* generoekin erlazioa dutenak; II klasea, *Alpharetrovirus*, *Betaretrovirus*, *Deltaretrovirus* eta *Lentivirus* generoekin erlazionatutakoak; eta III klasea, *Spumavirusekin* erlazioa dutenak. Erretrobirus exogenoen ezaugarri patogenikoak direla eta, euren kide endogenoak ostalaritik ezabatzeko joera dago edota ERVek euren funtzionaltasuna galtzeko (Gifford & Tristem, 2003; Gifford et al., 2005).

Hala ere, animali espezie ezberdinetan ERVen adierazpena gertatzen dela ikusi da (Jern & Coffin, 2008). Adibidez, gizakian mikromatrize, *Northern blot* eta ESTen bilaketan bidez (Stauffer et al., 2004; Okahara et al., 2004; Seifarth et al., 2005), ardian *in situ* hibridazioen bidez (Spencer et al., 2003) edo txerrian RT-PCRen bidez (Klymiuk et al., 2006). Bestalde, ERVen adierazpen hau ehun eta garapen-fase ezberdinetan aldakorra dela ikusi da (Okahara et al., 2004). Honetaz gain, elementu transposakorren (TE, *transposable elements*) adierazpena, ERVak barne, *Drosophilan* ere ikertua izan da. ERVetan ikusi zen bezala, TEen adierazpena ehun eta garapen faseraren araberakoa da eta TE familia askoren adierazpena gertatzen da (Deloger et al., 2009).

ERVen adierazpena ostalariarentzat onuragarria izan daitekeela aditzera eman da, ostalariari funtzioberrak eman baititzaiok, beti ere ERVen adierazpena kontrolpean gertatzen bada (Gifford & Tristem, 2003; Jern & Coffin, 2008). Onuragarriak diren funtzioberrak hauen artean, embrioaren garapena eta babesak aurki dezakegu, ERVen *env* genearen gaitasun inmunosupresoreak direla eta (Spencer et al., 2003; Okahara et al., 2004; Gimenez et al., 2009). Honetaz gain, ERVen adierazpena euren kide exogenoen aurreko defentsan lagundu dezaketela aditzera eman da, gene erretrobiralen interferentziaren bidez, hala nola, oiloetan (Denesvre et al., 2003) eta ardietan (Spencer et al., 2003; Arnaud et al., 2008). Azkenik, ERVen LTRak kontrol eskualdeak diren heinean, ERV txertaketek geneen adierazpena kontrolatzen lagun dezakete, promotore, areagotzaile eta motzitsasketa alternatiborako gune berriak eman baititzakete (Jern & Coffin, 2008).

Eragin onuragarrietaz gain, erretrobirus exogenoen izaera patogenikoa dela eta, ERVen adierazpena eragin kaltegarriezin ere lotu da, hala nola, minbizia-rekin eta gaixotasun autoimmuneezin (Gifford & Tristem, 2003; Jern & Coffin, 2008). Nolanahi ere, kasu hauetan, ERVen adierazpena gaixotasunaren jatorria edo ondorio den ez dago argi (Jern & Coffin, 2008). Bestalde, ERVak ehun osasuntsuetan adierazten direnez, ERVen adierazpen-aldaketak dira aztertu direnak (Stauffer et al., 2004). Gizakietan, minbizian (Stauffer et al., 2004; Frank et al., 2008), eskizofrenian eta desoreka bipolarretan (Frank et al., 2005) ERVen familia batzuek adierazpen-patroi aldatuaz azaldu dute edo ERVen adierazpena minbizia-rekin aurreko tratamenduaren arrakastarekin lotu da (Golan et al., 2008). Baita ere gaixotasun autoimmuneezin erlazionatuta egon daitezkeela proposatu da, adibiderik argienak esklerosi multiplean aurkituz (Perron et al., 2009). Gaixotasun honetan HERV-W familiako sekuentziak adierazten direla behatu da, esklerosi multiplearen garapenean parte hartuz, gizakiaren ERV honen *env* genearen adierazpenaren aurrean sortzen den erantzun immunearen ondorioz. (Perron et al., 2009). Bestalde, HERV-K ERVaren aktibazioak melanomaren garapenean eragina

Behiaren erretrobirus endogenoen (BoERV) adierazpena behiaren (*Bos taurus*) EST-eten

duela ondorioztatu da (Serafino et al., 2009), ERV honen presentzian melanoma-jatorria duten zelulak egoera eranskorretik egoera ez-eranskorrera aldatzen baitira.

Gizakian ERVen adierazpena modu masiboan aztertzeko hiru metodo erabili dira bereziki: hibridazio-probak (Okahara et al., 2004), mikromatrizeak (Seifarth et al., 2005) eta EST (*expressed sequence tags*) datubaseetan bilaketak (Stauffer et al., 2004). Azken honek, ehun eta momentu jakin batean adierazten diren geneen irudia ematen duen heinean, ERVen adierazpenari buruzko informazio asko eman lezake. ESTetan bilaketak egiteko BLASTen oinarritutako metodoak erabili dira (Stauffer et al., 2004; Flockerzi et al., 2008) eta metodo konplexuagoak ere, hots, Markov-en ezkutuko ereduak erabiltzea proposatu da (Oja et al., 2007).

Behia (*Bos taurus*) animalia interesgarria da, alde batetik hausnarkarien artean sekuentziatzen lehena izan delako eta, bestetik, dituen implikazio ekonomikoengatik (Elsik et al., 2009). Bestalde, orain dela gutxi, hainbat ERV detektatu dira guk egindako aurreko lan batean [II kapitulua]. Azkenik, behiaren EST datu-basea nahiko ondo hornituta dago, animalien artean, EST kopuruaren arabera, 4. kokatzen baita (http://www.ncbi.nlm.nih.gov/dbEST/dbEST_summary.html).

Hortaz, lan honen helburua behiaren ehunetan ERVen adierazpena EST datu-basearen bidez detektatzea da, ERVen eta ostalariaren arteko elkarrekintzari buruzko jakintza hobetu nahian.

VI.2. Materialak eta metodoak

Lan honetan, behiaren ERVen (BoERV) adierazpena aztertzeko, behiaren genoman burututako BLAST bidezko ERV bilaketan 3 gene erretrobiral nagusiak (*gag*, *pol* eta *env*) detektatu zitzaiak BoERVak aukeratu ziren [II kapitulua]. Irizpide hau 93 BoERVeek bete zuten, gehienak I klaseko BoERV1 eta BoERV3 familietakoak (VI-1. taula gehigarria).

VI.2.1. EST bilaketak

2008/08/28an eskuragarri zeuden behiaren EST sekuentzieta (1517053 EST) aukeratutako BoERVen *gag*, *pol* eta *env* geneen bilaketak egin ziren. Honetarako BLAST bilaketak NCBI-ko zerbitzaria erabiliz burutu ziren (<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/genome/seq/BlastGen/BlastGen.cgi?taxid=9913>). Bilaketaren emaitzak XML formatuan eskuratu ziren eta PHPn idatzitako script-en bidez emaitzak ustiati eta sailkatu ziren. Analisiak egiteko bit-score > 200 zuten emaitzak kontutan hartu ziren, hortaz, antzekotasun-maila altuko emaitzak aztertu ziren; eta soilik ehuna edo organoa identifikatuta zeukaten ESTak eskuratu ziren, hots, elkartua (*pooled*) bezala identifikatuta zeuden ESTak baztertu ziren. BoERVen geneak detektatu zitzaiak ESTak ehun edo organoaren arabera sailkatu ziren eta, ahal zenean, garapen-fasearen arabera. Baita ere EST bakoitza adierazten zen BoERVarekin eta BoERV genearekin lotu zen ere. EST sekuentzia zati batekin BoERV batek baino gehiagok erlazioa bazuen, BLAST emaitzetan oinarrituz, bat egiten zuen sekuentziarik luzeena zuen BoERVari egokitutako EST sekuentzia horren jatorria. Kontrol moduan GAPDH (glizeraldehido-3-fosfato dehidrogenasa) genearen bilaketak egin ziren azaldutako prozedura erabilita. Ehun/organoen arteko konparazioa errazteko, ehun bakoitzaren EST kopuruek sortu ditzaketen alborapenak saihesten baitira, Stauffer et al-ek (Stauffer et al., 2004) erabilitako proportzioa erabili zen, lan honetan EST-P laburduraz adieraziko dena:

$$\frac{\text{positiboak diren EST kopurua}}{\text{EST kopuru totala}} * 10^5$$

VI.2.1.1. ERV familien erlazio intraespezifika

Adierazten diren ERV familien zuhaitz filogenetikoa egiteko, lan honetan aztertutako 93 BoERVen *pol* genearen RT eskualdearen sekuentziak, gizakien ERVen adierazpena aztertutako lanetatik (Okahara et al., 2004; Seifarth et al., 2005; Prusty et al., 2008) lortutako eskualde horren 20 sekuentzia eta txerrien (Klymiuk et al., 2006) ERVen RT eskualdeko 10 sekuentzia erabili ziren. Sekuentzia nukleotidikoak MAFFT 5.861 (Katoh et al., 2005) programa erabiliz (FFT-NS-i aukera)

lerrokatu ziren eta MEGA 3.1 (Kumar et al., 2004) programa erabiliz Neighbor-Joining zuhaitz bat eraiki zen (aukerak: 1000 bootstrap, p-distatzia, bikote-ezabapena).

VI.2.2. Testuinguru genomikoaren analisia adierazten diren ERVetan

Txertaketa-preferentziak ezagutu nahian, adierazten ziren BoERVetatik gertu zeuden geneak analizatu ziren. Horretarako, posizio eta hein ezberdinetara egon zitezkeen geneak bilatu ziren: i) gene barnean zeuden BoERVak; ii) BoERV barnean zeuden geneak, hots, BoERVen sekuentziak alde batera eta bestera zituzten geneak; iii) BoERVetatik 5, 50 eta 100 kilobasetara urgora zeuden geneak; eta iv) BoERVetatik 5, 50 eta 100 kilobasetara urbehera zeuden geneak.


Adierazten ziren eta geneetatik gertu zeuden BoERVek txertaketa norabidean lehentasunik zuten aztertzeko χ^2 test bat burutu zen (Almeida et al., 2007) zorizko banaketa batekin alderatuta.

Adierazten ziren BoERVetatik gertu zeuden geneak Gene Ontology-ko termino gainerrepresentatuak bilatzeko erabili ziren. Horretarako Babelomics-eko (Al-Shahrour et al., 2006) FatiGO Compare lanabesa erabili zen (aukerak: gene zerrenda gainontzeko genomarena aurka; GO prozesu biologikoak databasea aukera lehenetsiekin; Fisherren test zehatza). Soilik doitutako p-balioak $< 0,05$ zirenak kontutan hartu ziren. Doitutako p-balioak FatiGO-k FDR (*false discovery rate*, aurkikuntza faltsuen tasa) prozedura erabiliz kalkulatzen ditu (Al-Shahrour et al., 2006).

Gainerrepresentatutako terminoekin erlazionatutako balizko geneen inguruan zeuden BoERVen insertzio-denbora estimatzeko LTRen arteko dibergentzia erabili zen, hots, LTR arteko dibergentziari $2.3\text{--}5.0 \times 10^{-9}$ ordezpen/leku/urte-ko tasa aplikatu zitzzion (Johnson & Coffin, 1999) eta, horrela, insertzio-denbora estimatu zen.

VI.3. Emaitzak

Aukeratutako behiaren erretrobirus endogenoen (BoERV) hiru genetatik bat gutxienez behiaren 16 ehun/organotatik eta 4 garapen-fasetatik lortutako ESTren baten detektatu zen (VI-1. irudia).



VI-1. irudia: gag, pol eta env ERV-en geneen eta GAPDH genearen adierazpen erlatiboa aurkitutako ESTak ehun/organoka sailkatuta.

Adierazpen erlatiboa ((ESTak/ehunaren EST kopuru totala)*10⁵). GAPDH kontrol modura erabili da.

Behiaren erretrobirus endogenoen (BoERV) adierazpen behiaren (*Bos taurus*) EST-eten


ESTen jatorrizko sailkapenak 16 ehun/organotan laburbildu ziren (VI-2. taula gehigarrian kontsultatu daitezkeenak) eta ehun/organo arteko konparazioa errazteko Stauffer et al-ek (Stauffer et al., 2004) erabilitako proportzioa erabili zen.

VI.3.1. Ehunetan adierazpena


Oro har, aztertutako BoERVen adierazpen-mailarik altuena guruin endokrino eta enbrioieta detektatu zen eta baxuena urdailean (VI-1. irudia). Gainera, maila altuan adierazi ziren bi ehun horietan gene erretrobiralak GAPDH (glizeraldehido-3-fosfato dehidrogenasa), kontrol modura erabilitako genea, baino EST gehiagotan detektatu ziren. Adierazpen-maila ere gene erretrobiralaren araberakoa izan zen, *env* genea ehun gehiagotan adierazi baitzen. Izan ere, *env* genea 16 ehun/organo eta 4 garapen-faseetan detektatu zen. Guruin endokrinoak, enbrioiak eta morulak adierazpen mailarik altuenak azaldu zuten eta urdail, fetu eta testikuluetan, aldiz, baxuenak. *pol* genearen kasuan, ordea, presentzia murriztuagoa azaldu zuen, 13 ehun/organotatik eta 2 garapen-faseetatik eratorritako ESTetan detektatu baitzen. *pol* genearen adierazpen mailarik altuena enbrioian detektatu zen eta baxuena giltzurrunetan. Bi gene hauen arteko adierazpena *gag* geneak izan zuen, 15 ehun/organotako eta 3 garapen-faseetako ESTetan aurkitu zena. *gag* sekuentzia gehien detektatu zen ehun/organoa guruin endokrinoa izan zen eta gutxien urdaila.

VI.3.2. BoERVen adierazpena familiaka


BoERV familia bakoitzaren kideen ekarprena ezberdina izan zen ehun, garapen-fase eta gene erretrobiralen adierazpenaren ezberdintasunean. *gag* genearen kasuan (VI-2. irudia), BoERV1, BoERV3, BoERV10 eta BoERV12 familien kideak (I klasea) dira adierazpenaren jatorria. Euren adierazpena batez ere enbrioieta gertatzen da, eta adierazpena oso nabarmena da guruin endokrinoen kasuetan, BoERV12 familiaren kideetan izan ezik. BoERV1 familiarenak izan ezik, familia hauen kideak ere odolean detektatuak izan ziren. Maila baxuago batean lau familia hauen kideak garunean, hesteetan, gibelean, sistema linfatikoan eta obarioetan identifikatu ziren.



VI-2. irudia: *gag* genearen adierazpen-maila erlatiboa ((ESTak/ehunaren EST kopuru totala)*10⁵) ehun eta familiaka.



VI-3. irudia: *pol* genearen adierazpen maila erlatiboa ((ESTak/ehunaren EST kopuru totala) $\times 10^5$) ehun eta familiaka.



VI-4. irudia: *env* genearen adierazpen maila erlatiboa ((ESTak/ehunaren EST kopuru totala) $\times 10^5$) ehun eta familiaka.


Behiaren erretrobirus endogenoen (BoERV) adierazpena behiaren (*Bos taurus*) EST-eten

pol geneari dagokionez (VI-3. irudia), BoERV1, BoERV3 (I klasea) eta BoERV23 (II klasea) familiako kideetan adierazten da batez ere. Hiru familia hauen kideen *pol* genearen adierazpena enbrioieta ematen da. Honetaz gain BoERV3 familiaren kideen *pol* genea ehun gutxitan adierazten da eta BoERV1 familiakoenak garun, konektibo, heste, sistema linfatiko, bular eta barrabiletan. BoERV23 familiarenen *pol* genea, aldiz, gurutze endokrinoetan.

Azkenik, *env* genearen adierazpena (VI-4. irudia) BoERV1, BoERV3, BoERV16 (I klasea) eta BoERV23 (II klasea) familien kideetan zuen bere jatorria eta, modu apalago batean, BoERV7 eta BoERV24 familien kideetan. Familia hauen kideen *env* genea, BoERV24-koak izan ezik, gurutze endokrinoetan nabarmenki adierazten da, batez ere BoERV3 familiakoa. Blastozistoen kasuan BoERV16 eta BoERV23 familien kideen adierazpena gertatzen da, batez ere BoERV23 familiaren eta enbrioiaren kasuan BoERV1, BoERV3 eta BoERV7 familien kideenak. Baita ere BoERV1 familiaren kideen *env* genea *in vitro* morulan nabarmenki adierazten da. Obiduktuaaren kasuan BoERV1, BoERV23 eta BoERV24 familien kideen adierazpena gertatzen da eta obarioan, batez ere, BoERV24 familiaren. Azkenik BoERV3 familiaren kideak odolean ere adierazten dira.

VI.3.2.1. Adierazpena eta espezie ezberdinako ERV familien arteko erlazioa

Lan honetan aztertutako BoERVen adierazpena eta beste mamaliotan adierazten diren ERV familiena konparatzeko asmotan, adierazpena aztertua duten behiaren, gizakiaren eta txerriaren ERVen familia ezberdinen ordezkarien zuhaitz filogenetikoa eraiki zen (VI-5. irudia). Zuhaitz horretan, I klasean barneratzen diren gizakiaren ERV9 eta HERV-W familiak behiaren BoERV1



VI-5. Irudia: Adierazpena aztertu zaien ERVen familien zuhaitz filogenetikoa.

NJ, 1000 bootstrap. Koloreetan, HERV/HML, gizakiaren ERVak; BoERV, behien ERVak; PERV, txerriaren ERVak; familia bakotzaren presentzia aztertutako ehun kopuruaren arabera ehunekotan adierazten da. Parentesi artean euren jatorria S: (Seifarth et al., 2005); P: (Prusty et al., 2008); O: (Okahara et al., 2004).

familiarekin multzokatu ziren, bi espezietan ehun askotan adierazpena duten familiak alegia. Era berean, I klaseko HERV-F eta BoERV9/BoERV10 familiak batera agertu ziren; BoERV8 familia, ordea, HERV-F-tik gertuago bazegoen ere beste bi behi familia baino ehun gutxiagotan adierazi zen. I klaseko gainontzeko familietañan adierazten diren ehun kopuru eta ahaidetasun filogenetikoaren arteko joera hau ez zen hain argia izan. Adibidez, adierazten diren ehunen proportzio ezberdina zuten HERV-T/-E, BoERV12/14/15/16 eta PERV-G2 familiak batera multzokatu ziren. Hala ere, BoERV14/15 eta HERV-T familiak izan ezik, familia gehienak ehun askotan adierazpena azaldu zuten. Azkenik, II klasekoak diren gizakiaren HML4/8/10 eta behiaren BoERV19/23/24 familiek aztertutako ehunen laurdenean baino gehiagotan adierazi ziren.

VI.3.3. Testuinguru genomikoa


Adierazten ziren BoERVetatik gertu zeuden gene kopurua kokapen eta heinaren araberakoa izan zen (VI-1. taula). Itxarotekoa zenez, 5kb-ko heinak, bai urgora dauden geneetan (4 kasu) zein urbehera daudenetan (7 kasu), kasu gutxi aurkeztu zituen. 100Kb-etakoak, ordea kasu gehien (138 kasu urgoran eta 103 urbeheran).

Gene hauetatik aurresandako geneen proportzioa (%25 -%100 artean) eta aurresandako pseudogeneen proportzioa (%5-%25 artean) heinaren arabera aldakorrak izan ziren (VI-1. taula).

VI-1. taula: Adierazitako diren behiaren BoERVen inguruan dauden gene-kopurua.

	Kokapena							
	Barneratuak		Urgora (Kb)			Urbehera		
	Genea BoERVan	BoERVa introian	5	50	100	5	50	100
Heina								
Gene/BoERV asoziazioak	4	21	5	72	145	7	64	117
ERVak (81 bakar)	4	21	5	72	145	7	64	117
Geneak (68 bakar)	4	20	5	40	51	6	39	57
Geneen ezaugarriak								
Aurresandakoak	50%	14.29%	0%	29.16%	20%	14.29%	29.69%	29.06%
Pseudogeneak	0%	0%	0%	1.38%	1.38%	0%	0%	0%
Aurresandako pseudogeneak	25%	19.06%	40%	12.5%	15.86%	14.29%	12.5%	13.68%

BoERVen txertaketa norabideari dagokionez (VI-6. irudia) ez zen txertaketa joera argirik egon, introietan agertzen diren BoERVetan izan ezik, zeintzuek transkripzio norabidearen aurka txertatzeko joera azaldu zuten.



VI-6. irudia: BoERVen txertaketa-norabidea.

NS, ez esangarria; * p<0.05; ** p<0.01; *** p<0.001

BoERVetik gertu zeuden geneak Gene Ontology-ko terminoren bat gainerrepresentatuta ote zegoen aztertzeko erabili ziren. Gainerrepresentatutako terminoak bakarrik 50kb eta 100kb urgora heinetan esangarriak izan ziren (VI-2. taula, VI-3. taula gehigarria) eta, oro har, kromosomen antolakuntzan parte hartzen duten geneak nabamentzen dira.

Gainerrepresentatutako GO termino hauekin erlazionaturiko BoERVak I klasean barneratzen diren familietaikoak izan ziren, batez ere BoERV1 eta BoERV3 familietaikoak (VI-2. taula). BoERV hauen insertzio-denbora aldakorra izan zen. Bestalde, gainerrepresentatutako GO terminoekin erlazionatutako balizko geneen kopurua heinaren arabera aldakorra izan zen (7 eta 22 gene artean). Era berean, balizko geneen proportzio handi bat aurresandakoa izan zen eta gene hauen proportzio oso txikia pseudogeneak izan ziren.

VI-2. taula: Gene Ontology termino gainerrepresentatuak eta erlazionatutako ERV eta geneak.

N: termino horrekin lotutako geneak; Esan.: esangarritasuna. Heina kb-ean.

	Kokapena Urgora			
	50kb N	Esan.	100kb N	Esan.
GO terminoak				
biopolymer metabolic process	-		20	*
nucleobase, nucleoside, nucleotide and nucleic acid metabolic process	-		18	**
tDNA metabolic process	7	**	16	***
cellular component assembly	7	***	15	***
macromolecule complex assembly	7	***	15	***
tprotein-DNA complex assembly	7	***	15	***
cellular component organization and biogenesis	-		16	***
tDNA packaging	7	*	15	***
testablishment and/or maintenance of chromatin architecture	7	***	15	***
tchromatin assembly or disassembly	7	***	15	***
tchromatin assembly	7	***	15	***
organelle organization and biogenesis	7	**	16	***
tchromosome organization and biogenesis	7	***	15	***
tchromosome organization and biogenesis (sensu Eukaryota)	7	***	15	***
cellular developmental process	7	*	16	***
tcell differentiation	7	*	16	***
tcell development	7	*	16	***
Erlazionatutako BoERVak (BoERV familia) [Insertzio-denbora (Orain dela milioi urte)]	23_14 (BoERV14) [57-26] 6_20 (BoERV1) [-] 4_19 (BoERV9) [33-15] 1_52 (BoERV1) [40-19] 21_18 (BoERV1) [0.434-0.2] 10_9 (BoERV3) [57-26] 18_18 (BoERV3) [13-6] 24_13 (BoERV3) [50-23] 1_23 (BoERV10) [29-13] 2_34 (BoERV16) [38-17]			
Erlazionatutako geneak	7		22	
Aurresandakoak	100%		54.55%	
Pseudogeneak	0%		0%	
Aurresandako pseudogeneak	0%		4.55%	

* p<0,05; ** p<0,01; *** p< 0,001

VI.4. Eztabaidea

Lan honetan behien ehunetan adierazi daitezkeen behien erretrobirus endogenoei (BoERV) buruzko lehen analisi sistematikoa aurkeztu da. Onartu beharra dago lan honetan erabilitako irizpideak eta metodologia direla eta, hemen aurkezten diren emaitzak benetan ematen den BoERVen adierazpenaren gutxiespena izan daitezkeela.

Alde batetik, oso kontserbatuak dauden BoERVak amu-sekuentzia bezala erabili dira, oinarrizko hiru gene erretrobiralak detektatu zaizkien BoERVak hain zuzen ere. Bestetik, BLAST bilaketak ez omen dira guztiz sakonak ESTetan erretrobirusak aurkitzeko (Oja et al., 2007; Flockerzi et al., 2008). Hala ere, metodo sofistikatuagoak erabiltzen duen programariak ez dago eskuragarri eta orain arte mota honetako bilaketak egin diren lanak BLASTen oinarrituta daude (Stauffer et al., 2004; Deloger

et al., 2009). Bestalde, lan honetan erabilitako irizpideak zorrotzak izan dira, soilik antzekotasun-maila oso altua zuten emaitzak kontutan hartuz.

Oro har, BoERVak behiaren ehun ezberdinatan, maila ezberdinetara, adierazten dira eta, adierazpen hau BoERV familia bakoitzean ezberdina da. Emaitza hauek gizakian (Stauffer et al., 2004) eta *Drosophilan* (Deloger et al., 2009) egindako mota honetako lanetan ikusitakoaren ildoa jarraitzen dute. *Drosophilaren* kasuan, elementu transposakorrak orokorrean aztertu ziren eta horien artean ERVekin erlazio urruna duten LTR erretrotransposoiak izan ziren adierazpen-mailarik altuenak azaldu zutenak (Deloger et al., 2009).

Ehunak/organoak aztertuz, guruin endokrinotan bai *gag* zein *env* geneak EST kopuru altuan detektatuak izan ziren, erabilitako kontrola (GAPDH) ere gaindituz. Adierazpen maila altu hau, batez ere, tiroideen eraginez gertatzen da (VI-2. taula gehigarria). Gizakiaren kasuan bai esperimentalki (Shiroma et al., 2001) zein mikromatrizeen bidez (Seifarth et al., 2005) tiroideetan ERVen adierazpena ikusi da. Adierazpen hau familiaz familia aldakorra izan zen; batez ere HERV-E, HERV-W, HML2 eta HML-3 familietako kideak ziren adierazten zirenak (Seifarth et al., 2005). Hala ere euren funtzioa argitzeke dago.

Garapen-faseak aztertzekoan, embrioian BoERVen presentzia EST ugaritan detektatu zen. Batez ere *env* genea kontrolean baino EST gehiagotan agertu zen. ERVen *env* geneak ostalarietan, haurdunaldi garaian, onurak izan ditzakeela aditzera eman da, *env* genearen gaitasun fusogeniko eta inmunosupresoreak direla eta (Stoye & Coffin, 2000; Spencer et al., 2003). Honekin lotuta, nahiko deigarria da behiaren placentaren ESTetan agertzen diren BoERVen kopuru maila baxuenetarikoa izatea. Ehun honetan ERVn adierazpena gizakietan, saguetan eta ardietan ikusi da, ERV baten *env* genea behar beharrezko delako placentaren osaketarako, sinxitina hain zuzen ere (Jern & Coffin, 2008). Bai embrioian zein placentan gertatzen den ERVen *env* genearen adierazpena, embrioaren babeserako gertatzen dela aditzera eman da (Stoye & Coffin, 2000; Spencer et al., 2003). Behiaren kasuan hau horrela izan daiteke, baina bakarrik embrioian, orain arte aztertutako animalietan gertatzen denetik urrunduz. Gainera, gizakietan placentan gertatzen den ERVen adierazpena placentaren metilazio-maila txikiarekin lotuta egon daitekeela aditzera eman da (Okahara et al., 2004; Maksakova et al., 2008). Hortaz, hemen aurkezten diren emaitzek orain arte beste espezie batzuetan aditzera eman denetik aldentzen dira, behiaren placentan BoERVek dinamika ezberdin bat daramatela aditzera emanet.

ERVen adierazpena modulatzen duen mekanismo nagusia metilazioa da (Maksakova et al., 2008). Behiaren placentan aztertutako gainontzko espezietan baino adierazpen gutxiago detektatzea azaldu ahal izateko behietan metilazio-patroia aztertua duten bi generen emaitzak aipa daitezke. Alde batetik, IGF2 (*insulin-like growth factor 2*) genearen inpronta-patroia dago. Gene hau behar beharrezko mitogeno fetala da eta behietan adin, ehun, promotore eta alelo araberako inpronta-patroi ezberdina azaldu zuen beste espezieekiko, hots, gizaki, sagu, tixerri eta ardiekin (Curchoe et al., 2005). Bestetik, XIST (*X chromosome inactivation-specific transcript*) genearen inpronta-mekanismoa dago. Gene honen transkriptoak X kromosoma inaktibatzen du eta behi hibridotan (*Bos gaurus* x *Bos taurus*) gene honen eta alboetako eskualdeen inpronta-mekanismoa eta saguen mekanismoa ezberdinak direla ondorioztatu zuten (Dindot et al., 2004). Metilazioaz gain, behian ez da gizakian, saguan edo ardian (Jern & Coffin, 2008) bezala placentaren morfogenesirako beharrezkoa den ERV espezifiko baten adierazpena deskribatu, sintxitina eta bere analogoak hain zuzen ere. Bestalde, “*Pregnancy-associated glycoproteins*” (PAG) deritzon peptidasa aspartikoen familia *Artiodactyla* ordeneko animalien placentan bakarrik adierazten da. Gene hauek elementu transposakorren eragina jaso zutela aditzera eman bazen ere (Telugu et al., 2009), ERVen kasuan eragin hau nahiko txikia izan zen. Hala ere, BoERVak adierazten diren ESTetan PAG familiako kiderik modu sendoan detektatzeko ez gara gai izan. Hortaz, aurreko guztia uztartuz, beste espezieekin alderatuz behiaren placentan adierazpen patroi eta dinamika ezberdinak ematen direla pentsa daiteke eta, hortaz, BoERVen *env* genearen adierazpena beste espezietan bezalakoa ez izatea azaldu.

Behiaren erretrobirus endogenoen (BoERV) adierazpena behiaren (*Bos taurus*) EST-ean

Metilazioarekin lotuta, *Arabidopsis*en TEekin egindako lan batean (Hollister & Gaut, 2009), TEak metilatzea gertu dauden geneetan eragina izan dezakeela aditzera ematen dute eta, horren ondorioz, hainbat TE ez direla metilatzen eragin kaltegarriak ekiditeko (Hollister & Gaut, 2009). Hortaz, lan honetan ikusten den BoERVen adierazpena ehun/organo batean momentu konkretu batean adierazten diren geneen funtzioa ez oztopatzearon ondorio izan daiteke.

pol genea ere enbrioian detektatua izan da, beste bi gene erretrobiralen maila berean izan ez bada ere. Hala ere, adierazpen hau nahiko interesgarria da. Saguen kasuan, enbrioiaaren garapenaren hastapenetan, *pol* geneak kodetzen duen alderantzizko transkriptasa (RT, *reverse transcriptase*), lan honetan EST bilaketak egiteko erabili den eskualdea hain zuzen ere, enbrioiaaren garapen normalarekin lotura duela ikusi da (Spadafora, 2004). RT entzimak zelularen garapen eta differentziazioan zeregin aktiboa duela ikusi da, bai garapen normalean (enbriogenesian), zein aldatutako zelula-hazkundean (tumoreetan) (Spadafora, 2004). Gainera, enbrioian RT entzimaren aktibitatea inhibitzen baldin bada, enbrioiaaren garapena gelditzen da (Spadafora, 2004). Hortaz, lan honetan enbrioietan ikusitako *pol* genearen adierazpena enbrioian beharrezko dela adieraz lezake.

Adierazpena familiaka aztertuz, genearen arabera, hainbat familiako kideek ehun guztietan adierazpena azaldu zuten, hala nola BoERV1, BoERV3 (I klasekoak) eta BoERV24 (II klasekoak) familietakoek. Familia hauen *pol* genearen adierazpena enbrioiaaren ehunetan altua da. Interesgarriki, familia hauek behiaren genoman gehien ugaritu diren familiak dira [II kapitulua]. Gizakien ERVen *pol* genearen adierazpena mikromatrize baten bidez aztertzen zuten lan batean (Seifarth et al., 2005), ugal ehunetan *pol* genearen adierazpena ERVen finkapenarekin erlazionatuta egon zitekeela aditzera eman zuten. Euren ustez, hozi-lerroko zeluletan ERVen transkripzio-maila altuak eta erretrotransposizioa beharrezkoak dira ERVen emendio eta finkapenerako eta, hortaz, ERVak ehun horietan adierazteko hautatzea (Seifarth et al., 2005). Agian gure emaitzetan ikusten den familia ugarienen *pol* adierazpena bide honetatik azaldu daiteke, hots, kide gehiago dituztela *pol* genearen aktibitatea enbriogenesian emendatuta dagoelako eta, ondorioz, beren buruaren kopia eta txertaketa berriak bultzatu direla.

Especie ezberdinetan ehunez ehun aztertutako ERVen familien adierazpena eta familia hauen arteko erlazio filogenetikoa uztartzeko analisiek ez zuten emaitza argiegirik eman orokorrear. Nonahiko adierazpena duten familien arteko erlazio filogenetikoa egon daitekeela ondoriozta daiteke. Honek, agian, etxekotu diren ERVeekin lotuta egon daiteke, hots, eboluzioan zehar ostalarientzat, kasu honetan mamaliorientzat, erabilgarri suertatu diren ERVen arteko erlazioari buruz. Lotura hau frogatzea zaila izateaz gain, ERV kopia bakoitzak metilazio patroi ezberdina duela aditzera eman da (Gimenez et al., 2009). Gorago aipatu bezala, metilazioa ERVen adierazpena kontrolatzeko mekanismo garrantzitsu bat da (Maksakova et al., 2008) eta gizakiaren ERVWE1 eta HERV-W familietan metilazio patroia familiekin erlaziorik ez duela ikusi da, metilazioa ERV kopia bakoitzaren LTR eta ehunarekin erlaziao duela baizik (Blanco et al., 2000).

Adierazten diren BoERVen inguruan dauden geneei dagokionez, ez zen txertaketa joerarik aurkitu, hots, zoriz transkripzioaren norabidean edo aurka txertatu ziren. Salbuespena introietan txertatzen ziren BoERVak izan ziren, kontrako norabidean txertatzeko joera azaldu zutenak. Behaketa hauek BoERV sorta ezberdinekin egindako lanaren ildoa jarraitu zuten [V kapitulua].

Interesgarriki, gene hauen artean, BoERVetatik urgora dauden kasuan, kromosomen antolaketarekin erlazionatutako geneak, hots, adierazpena kontrolatzen duten geneak gainerrepresentatuta daude. Bestalde, emaitza hauek lehendik BoERVetatik gertu zeuden geneen azterketarekin [V kapitulua] bat datozen. Adierazten diren BoERVetatik gertu dauden geneek osotzen dituzten gainerrepresentatuko terminoak, hiru geneak detektatu zitzaien BoERVeek osotzen zuten datu-multzoaren [V kapitulua] berdinak izan ziren. Bat-etortze hau ez da guztiz harrigarria, adierazten diren BoERVak hiru geneak detektatu zitzaien BoERVen oso antzeko datu-multzoa baita. Honetaz gain, gainerrepresentatutako terminoekin erlaziao duten BoERVak, oro har, Ruminantia eta Bovinae taldeen espeziazioa gertatu zen garaikoak dira (Fernandez & Vrba, 2005).

Laburbilduz, lan honetan aurkezten diren emaitzetan behien ehunetan hainbat BoERVren adierazpena detektatu da, nagusiki enbrioian eta guruien endokrinoetan. Emaitza hauek ERVen adierazpena behiaren ehun eta garapen-fasetan kontrolatuta dagoela aditzera ematen dute, beste espezie batzuetan detektatu den moduan.

VI.5. Bibliografia

- Al-Shahrour, F., P. Minguez, J. Tarraga, D. Montaner, E. Alloza, J. Vaquerizas, L. Conde, C. Blaschke, J. Vera, and J. Dopazo.** 2006. BABELOMICS: a systems biology perspective in the functional annotation of genome-scale experiments. *Nucleic Acids Research* **34**:W472-W476.
- Arnaud, F., M. Varela, T. Spencer, and M. Palmarini.** 2008. Coevolution of endogenous Betaretroviruses of sheep and their host. *Cellular and Molecular Life Sciences* **65**:3422-3432.
- Blanco, P., M. Shlumukova, C. A. Sargent, M. A. Jobling, N. Affara, and M. E. Hurles.** 2000. Divergent outcomes of intrachromosomal recombination on the human Y chromosome: male infertility and recurrent polymorphism. *J Med Genet* **37**:752-758.
- Boeke, J. and J. Stoye.** 1997. Retrotransposons, endogenous retroviruses, and the evolution of retroelements, p. 343-435. In J. Coffin, S. Hughes, and H. Varmas (eds.), *Retroviruses*. Cold Spring Harbor Laboratory Press, Cold Spring Harbor, NY.
- Blomberg, J., F. Benachenhou, V. Blikstad, G. r. Sperber, and J. Mayer. 2009. Classification and nomenclature of endogenous retroviral sequences (ERVs): Problems and recommendations. *Gene* **448**:115-123,
- Curchoe, C., S. Zhang, Y. Bin, X. Zhang, L. Yang, D. Feng, M. O'Neill, and X. Tian.** 2005. Promoter-specific expression of the imprinted IGF2 gene in cattle (*Bos taurus*). *Biology of Reproduction* **73**:1275-1281.
- Deloger, M., F. M. G. Cavalli, E. Lerat, C. Biqmont, M. F. Sagot, and C. Vieira.** 2009. Identification of expressed transposable element insertions in the sequenced genome of *Drosophila melanogaster*. *Gene* **439**:55-62.
- Denesvre, C., D. Soubieux, G. Pin, D. Hue, and G. Dambrine.** 2003. Interference between avian endogenous ev/J 4.1 and exogenous ALV-J retroviral envelopes. *J Gen Virol* **84**:3233-3238.
- Dindot, S., K. Kent, B. Evers, N. Loskutoff, J. Womack, and J. Piedrahita.** 2004. Conservation of genomic imprinting at the XIST, IGF2, and GTL2 loci in the bovine. *Mammalian Genome* **15**:966-974.
- Elsik, C., R. Tellam, K. Worley, and Bovine Genome Sequencing Anal Cons.** 2009. The Genome Sequence of Taurine Cattle: A Window to Ruminant Biology and Evolution. *Science* **324**:522-528.
- Fernandez, M. and E. Vrba.** 2005. A complete estimate of the phylogenetic relationships in Ruminantia: a dated species-level supertree of the extant ruminants. *Biological Reviews* **80**:269-302.
- Flockerzi, A., A. Ruggieri, O. Frank, M. Sauter, E. Maldener, B. Kopper, B. Wullich, W. Seifarth, N. Muller-Lantzsch, C. Leib-Mosch, E. Meese, and J. Mayer.** 2008. Expression patterns of transcribed human endogenous retrovirus HERV-K(HML-2) loci in human tissues and the need for a HERV Transcriptome Project. *BMC Genomics* **9**:354.
- Frank, O., M. Giehl, C. Zheng, R. Hehlmann, C. Leib-Mosch, and W. Seifarth.** 2005. Human endogenous retrovirus expression profiles in samples from brains of patients with schizophrenia and bipolar disorders. *Journal of Virology* **79**:10890-10901.
- Frank, O., C. Verbeke, N. Schwarz, J. Mayer, A. Fabarius, R. Hehlmann, C. Leib-Mosch, and W. Seifarth.** 2008. Variable transcriptional activity of endogenous retroviruses in human breast cancer. *Journal of Virology* **82**:1808-1818.
- Gifford, R., P. Kabat, J. Martin, C. Lynch, and M. Tristem.** 2005. Evolution and distribution of class II-related endogenous retroviruses. *Journal of Virology* **79**:6478-6486.
- Gifford, R. and M. Tristem.** 2003. The evolution, distribution and diversity of endogenous retroviruses. *Virus Genes* **26**:291-316.
- Gimenez, J., C. Montgiraud, G. Oriol, J. P. Pichon, K. Ruel, V. Tsatsaris, P. Gerbaud, J. L. Frendo, D. Evain-Brion, and F. Mallet.** 2009. Comparative Methylation of ERVWE1/Syncytin-1 and Other Human Endogenous Retrovirus LTRs in Placenta Tissues. *DNA Res* **16**:sp011.
- Golan, M., A. Hizi, J. Resau, N. Yaal-Hahoshen, H. Reichman, I. Keydar, and I. Tsarfaty.** 2008. Human endogenous retrovirus (HERV-K) reverse transcriptase as a breast cancer prognostic marker. *Neoplasia* **10**:521-5U3.
- Griffiths, D. J.** 2001. Endogenous retroviruses in the human genome sequence. *Genome Biol* **2**:REVIEWS1017.
- Hollister, J. D., B. S. Gaut.** 2009. Epigenetic silencing of transposable elements: a trade-off between reduced transposition and deleterious effects on neighboring gene expression. *Genome Res* **19**: 1419-1428.
- Jern, P. and J. Coffin.** 2008. Effects of Retroviruses on Host Genome Function. *Annual Review of Genetics* **42**:709-732.
- Johnson, W. and J. Coffin.** 1999. Constructing primate phylogenies front ancient retrovirus sequences. *Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America* **96**:10254-10260.
- Katoh, K., K. Kuma, H. Toh, and T. Miyata.** 2005. MAFFT version 5: improvement in accuracy of multiple

Behiaren erretrobirus endogenoen (BoERV) adierazpena behiaren (*Bos taurus*) EST-eten

sequence alignment. Nucleic Acids Research **33**:511-518.

Klymiuk, N., M. Muller, G. Brem, and B. Aigner. 2006. Phylogeny, recombination and expression of porcine endogenous retrovirus {gamma}2 nucleotide sequences. J Gen Virol **87**:977-986.

Kumar, S., K. Tamura, and M. Nei. 2004. MEGA3: Integrated software for molecular evolutionary genetics analysis and sequence alignment. Briefings in Bioinformatics **5**:150-163.

Maksakova, I., D. Mager, and D. Reiss. 2008. Keeping active endogenous retroviral-like elements in check: the epigenetic perspective. Cellular and Molecular Life Sciences **65**:3329-3347.

Oja, M., J. Peltonen, J. Blomberg, and S. Kaski. 2007. Methods for estimating human endogenous retrovirus activities from EST databases. Bmc Bioinformatics **8**.

Okahara, G., S. Matsubara, T. Oda, J. Sugimoto, Y. Jinno, and F. Kanaya. 2004. Expression analyses of human endogenous retroviruses (HERVs): tissue-specific and developmental stage-dependent expression of HERVs. Genomics **84**:982-990.

Perron, H., C. Bernard, J. B. Bertrand, A. B. Lang, I. Popa, K. Sanhadji, and J. Portoukalian. 2009. Endogenous retroviral genes, Herpesviruses and gender in Multiple Sclerosis. Journal of the Neurological Sciences **286**: 65-72.

Prusty, B., H. zur Hausen, R. Schmidt, R. Kimmel, and E. de Villiers. 2008. Transcription of HERV-E and HERV-E-related sequences in malignant and non-malignant human haematopoietic cells. Virology **382**:37-45.

Seifarth, W., O. Frank, U. Zeilfelder, B. Spiess, A. Greenwood, R. Hehlmann, and C. Leib-Mosch. 2005. Comprehensive analysis of human endogenous retrovirus transcriptional activity in human tissues with a retrovirus-specific microarray. Journal of Virology **79**:341-352.

Serafino, A., E. Balestrieri, P. Pierimarchi, C. Matteucci, G. Moroni, E. Oricchio, G. Rasi, A. Mastino, C. Spadafora, E. Garaci, and P. S. Vallebona. 2009. The activation of human endogenous retrovirus K (HERV-K) is implicated in melanoma cell malignant transformation. Experimental Cell Research **315**:849-862.

Shiroma, T., J. Sugimoto, T. Oda, Y. Jinno, and F. Kanaya. 2001. Search for active endogenous retroviruses: identification and characterization of a HERV-E gene that is expressed in the pancreas and thyroid. Journal of Human Genetics **46**:619-625.

Spadafora, C. 2004. Endogenous reverse transcriptase: a mediator of cell proliferation and differentiation. Cytogenetic and Genome Research **105**:346-350.

Spencer, T., M. Mura, C. Gray, P. Griebel, and M. Palmarini. 2003. Receptor usage and fetal expression of ovine endogenous betaretroviruses: Implications for coevolution of endogenous and exogenous retroviruses. Journal of Virology **77**:749-753.

Stauffer, Y., G. Theiler, P. Sperisen, Y. Lebedev, and C. V. Jongeneel. 2004. Digital expression profiles of human endogenous retroviral families in normal and cancerous tissues. Cancer Immun **4**:2.

Stoye, J. and J. Coffin. 2000. Reproductive biology - A provirus put to work. Nature **403**:715-+.

Telugu, B., A. Walker, and J. Green. 2009. Characterization of the bovine pregnancy-associated glycoprotein gene family - analysis of gene sequences, regulatory regions within the promoter and expression of selected genes. BMC Genomics **10**:185.

VI.6. Eranskina

VI-1. taula gehigarria: Lan honetan erabilitako ERVak. ERVen familia, beren posizioa Btau_3.1 genoma-bertsioan, ERVen izendapena Blomberg et al.-en (2009) gomendioa jarraituta eta ERV jakinaren gene erretrobiral bakoitzat detektatu den EST kopurua.

ERV	Kromosoma: Posizioa (frame)	Izendapena	gag	pol	env
I klasea					
BoERV1					
chr1_43	1: 119642767-119651367 (+)	Btau_3.1_C_chr1_119642767_-+			
chr 1_52	1: 135862148-135870733 (+)	Btau_3.1_C_chr1_135862148_-+			2
chr 1_54	1: 137728046-137736386 (-)	Btau_3.1_C_chr1_137728046_-			
chr 1_58	1: 145500205-145507889 (+)	Btau_3.1_C_chr1_145500205_-+			10
chr 2_5	2: 1856883-1864414 (-)	Btau_3.1_C_chr2_1856883_-	1		
chr 2_8	2: 6865738-6877980 (+)	Btau_3.1_C_chr2_6865738_-+	1		2
chr 2_26	2: 69350995-69361048 (-)	Btau_3.1_C_chr2_69350995_-	1		5
